

ZERGATIK KANTATU EUSKARAZ?

Euskal abeslarien hizkuntza hautua 2010eko hamarkadan.
Izaro, Huntza eta En Tol Sarmiento musika taldeen kasuak.

*Esker berezia Izaro Andresi, Josune Arakistaini, Iñigo Etxezarretari,
Jone M. Hernandezi eta Miren Rubiori.*

LABURPENA

2010eko hamarkadako musikariek euskaraz kantatzeko zein arrazoi ematen duten aztertzea izango da ikerketa lan honen helburu nagusia. Horretarako, teoria soziolinguistikoan hizkuntza bat ikasi edo erabiltzerako garaian eragiten duten jarrerak eta motibazioak ezagutu beharko dira, eta belaunaldi horretako musikarirekin hitz egin ondoren, teoria hori euren kasuan aplikatu. Horrekin batera, azken 50 urteetan euskaraz egindako musikagintzak izan duen bilakaera ere analizatuko da, gaur egungo abeslariak egiten duten hizkuntza hautua testuinguruan jartzeko. Elkarrizketatuko diren musikariak belaunaldi berrikoak izango dira —2018an 30 urte edo gutxiago dituztenak—, eta euskal publikoaren artean arrakasta dutenak. Hauek, hain zuzen: Izaro Andres (Izaro), Josune Arakistain (Huntza) eta Iñigo Etxezarreta (En Tol Sarmiento).

AURKIBIDEA

SARRERA	5
IKERKETAREN HELBURUA	7
IKERKETA OBJEKTUA	8
1. MUSIKA TALDEEN HAUTAKETA	8
2. MUSIKA TALDEEN AURKEZPENA	9
2.1. Izaro	9
2.2. Huntza	10
2.3. En Tol Sarmiento	11
METODOLOGIA	13
MARKO TEORIKOA	15
1. HIZKUNTZA HAUTUA: JARRERAK ETA MOTIBAZIOAK	15
1.1. Kontzeptuak argitzen	15
1.1.1. Hizkuntza hautua	15
1.1.2. Jarrera eta motibazioa, barne eragileak	15
1.1.3. Jarrera eta motibazioen definizioak	16
1.2. Jarrera dimentsioak, eta motibazio iturburuak	17
1.2.1. Definizioak	17
1.2.2. Jarrera integratzailea eta motibazio sinbolikoa	18
1.2.3. Jarrera eta motibazio instrumentala	19
1.3. Hedadura gehien duten jarrera eta motibazioak	19
2. HIZKUNTZA HAUTUA EUSKAL MUSIKAN	20
2.1. 1960-1970 hamarkadak. Euskal Kantagintza Berria eta euskarazko berpizte musikala	21
2.2. 1980ko hamarkada. Euskal Rock Erradikalean euskarak atzera	22
2.3. 1990ko hamarkada. Estilo aniztasunerako saltoa	25
2.4. 2000-2010eko hamarkadak. Euskaldunak ingelesez kantuan	27
EMAITZAK	30
1. IZARO ANDRES (IZARO)	30
1.1. Musikaria, musika eta euskara	30
1.2. Hizkuntza hautuaren arrazoiak	32
1.3. Euskararen egoera musikan	34
2. JOSUNE ARAKISTAIN (HUNTZA)	35
2.1. Musikaria, musika eta euskara	35
2.2. Hizkuntza hautuaren arrazoiak	37
2.3. Euskararen egoera musikan	39
3. IÑIGO ETXEZARRETA (EN TOL SARMIENTO)	40
3.1. Musikaria, musika eta euskara	40
3.2. Hizkuntza hautuaren arrazoiak	42
3.3. Euskararen egoera musikan	45
4. EMAITZA BATERATUA	46
4.1. Musikaria, musika eta euskara	46
4.2. Hizkuntza hautuaren arrazoiak	47
4.3. Euskararen egoera musikan	50
ONDORIOAK	51
BIBLIOGRAFIA	55
ERANSKINAK	57
1. TALDEEN HAUTAKETA	57
2. GALDETEGIA	59
3. ELKARRIZKETAK	61

SARRERA

1966ko urtarrilaren 23a da. Donostiako Victoria Eugenia antzokian euskal abeslari belaunaldi berriak emanaldia du eskaintzekoa. Kontzertua iragartzeko afixan izen hauek ageri dira: Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Zuaznabar anaia txalapartariak, Julen Lekuona, eta Arantxa Gurmendi eta bere orkestina. Emanaldia hasi aurretik Ramon Saizarbitoria eta Maria Arregi aurkezleak igo dira taula gainera aurkezpen lanak egitera. Musikariak aurkeztuta, mezu hau igorri die entzuleei: “Gazteak izan zaitezte ye-ye edo nahi dezutena, baina lehenen eta behin euskaldunak”.

Gitarra eskuan zutela atera ziren abeslariak, eta euskaraz aritu ziren kantuan. Ekintza horrek zalaparta piztu zuen garaiko prentsan, euskal arima zikintzen ari ziren musikariak zirelako horiek. Euskalduntasunaren esentzia zalantzan jartzera zetozelako, azken batean. Baina abeslari horiek bi hautu garbi egin zituzten: garaiko moldeetan musika egitea batetik, eta euskaraz kantatzea bestetik. Zalaparta horren erdian, hautu horren aldeko artikulua argitaratu zuen Iñaki Beobidek *Zeruko Argia* aldizkarian. Emanaldia eta ia bi hilabetera:

“Ritmo berriko abesti batzuek abestu zirala? Bai jaunak, bai, abestu ziran EUSKERAZ. Kanpoko abestiak baño geiago izan ziran gureak, zaarrak edo sortu berriak. Presley, Halliday eta Beatlesen abestiak ere bai ordea. Ta zergatik ez? Gure izkuntza euskera izaki, zer dala ta ezin dugu euskeraz kanta? Euskerak mugak al ditu? Onetako erabili diteke ta beste gauz artarako ez? Ez, ez degu zuek bezela pentsatzen. Guretzako euskera ez da baserri batean edo urrezko bitrina batean gorde bear degun gauz bat, guretzako euskera, gure egintza guzietan beraz balia gindezken gauz bat izatea nai dugu” (Beobide 1966, 7).

Hizkuntza hautua kontzienteki egin zuen belaunaldi bateko ordezkariak dira horiek guztiak. Kantugintzan hizkuntzari zentralitatea eman zioten aitzindariak eta bidegileak izan ziren. Beste hainbatekin batera, ostera etorriko ziren musikari belaunaldiei bidea zabaldu zienak. Hamarkadaz hamarkada hamaika izan baitira euskaraz kantatzea erabaki duten musikariak. Hamaika doinu eta erritmotan, gainera.

1960 eta 1970ko hamarkadetan gailendu zen Euskal Kantagintza Berriak euskal arima berreskuratu nahi zuen euskaraz kantatuz, eta lehen rock taldeak agertu zirenean ere ildo horri eutsi zioten; 1980eko urteetako punk leherketa gaztelerazkoa izan zen batez ere, baina zenbait musikaririk euren aldarrikapenak euskaraz egitea erabaki zuten; 1990eko hamarkadan, konpromiso politikoak bultzatuta hedatu egin zen euskaraz kantatzeko hautua, eta milurteko berrian *naturaltasunez* jarraitu dute hizkuntza horren aldeko hautua egiten. Belaunaldi bakoitzak bere berezitasunak izan baititu, baina katea ez da eten, eta hamarkada denetan abestu da euskaraz.

Musikari horiei guztiei galdera bera egin zaie, ordea: Zergatik kantatzen duzu(e) euskaraz?. Erantzunak denetarikoak izan dira, eta hori izango da, hain justu ikerketa lan honekin argitu nahi dena: zein den gaur egungo musikarien artean galdera horri ematen zaion erantzuna. Zergatik egiten duten euskaraz kantatzeko hautua egungo musika taldeek, beste modu batera esanda.

Gaur egungo musikarien hizkuntza hautuaren zergatia aztertzeko, ordea, badago abiapuntu bat. 2010. urtean Euskal Herrian plazaratu ziren diskoen zerrenda bat argitaratu zuten *Entzun!* aldizkariak eta Harrobia Lantzen egitasmoak elkarlanean, eta bertan Inaxio Esnaola kazetaria kezkatuta azaldu zen: “Pasa den urteko argitalpenen gehiengoa erdalduna da, eta euskara bigarren mailan geratu da” (Esnaola 2011, 2). Alarma piztu zen une horretan, eta galdera ugari jarri ziren mahai gainean: zergatik jaitsi da euskaraz kantatzeko hautua? Zerk eragin du jaitziera? Inoizko gazte euskaldun gehien dagoen garaian nola liteke beste hizkuntzetan kantatzea? Eta beste behin ere aurreko belaunaldietako musikariei egindako galdera bera egin zitzaieen gaur egungoei: Zergatik kantatzen duzu(e) euskaraz?

Erantzunak aldatzen hasi ziren aurreko belaunaldietan ematen ziren erantzunekin alderatuz gero. Euskaraz kantatzea ez dutela aukeratzen, hautua *naturaltasunez* egindakoa dela, edo berdin diela zein hizkuntzatan abestu. Iraganean euskaraz kantatzea kasu askotan konpromiso eta jarrera politiko baten emaitza izan zen, eta belaunaldi berriak horrekin apurtu du hein batean. Horregatik izan liteke interesgarria gai hori ikertzea, eta jakitea zein diren gaur egungo musikarien arrazoiak hizkuntza hautu bat egiterakoan.

IKERKETAREN HELBURUA

HELBURU NAGUSIA

2010eko hamarkadan lehen lana argitaratu duten belaunaldi berriko musikariek egindako hizkuntza hautuaren atzean dauden arrazoiak aztertzea. Hori izango da ikerketaren helburu nagusia. Beste era batera esanda, azken hamarkadan eszenaratu diren euskal abeslarien hizkuntza hautuaren inguruan duten diskurtsoak zein diren aztertzea.

HELBURU ESPEZIFIKOAK

Ildo horretan, hizkuntza hautua azaltzeko erabiltzen dituzten arrazoiaren atzean dauden diskurtso linguistikoak tentuz aztertu beharko dira. Horiek biltzeko elkarrizketak egingo dira erreferentzialak diren musikariek.

Bestetik, musikariaren eta bere inguruaren arteko harremana ere aztertu beharko da. Hau da, musikariaren hizkuntza hautuaren eta bere ingurune soziolinguistikoaren artean dagoen lotura ikertzea izango da beste helburu espezifiko bat. Testuinguruak hautu horretan izan dezakeen pisua zehaztea interesgarria izango baita ikerketarako. Baina hori ez da azterketaren helburu nagusia izango, eta horregatik hizkuntza hautuan eragina izan dezakeen faktore baten gisa hartuko da aldagai hori.

GALDERA(K)

Ikerketaren helburu nagusiaren atzean galdera nagusi hau legoke:

- Azken hamarkadan plazaratzen hasi diren euskal abeslariak euren sorkuntzan egiten duten hizkuntza hautuaren atzean zein arrazoi —kontziente ala ez— erabiltzen dituzte? Zergatik?

Galdera nagusi horrek beste batzuk ere baditu atzetik:

- Sorkuntza prozesuko hizkuntza hautuaren arrazoiak zein ezaugarri ditu?
- Zerk bultzatzen du abeslaria arrazoi bat edo bestea erabiltzera, hala egiten duenean? Erabaki kontzientea da?
- Zein musika kontsumitzen du? Zein hizkuntzetan?
- Zein da abeslarien testuinguru soziolinguistikoa?
- Loturarik ba al dago abeslariaren hizkuntza hautuaren arrazoiaren eta testuinguru soziolinguistikoaren artean? Zenbateraino eragiten du?

IKERKETA OBJEKTUA

1. MUSIKA TALDEEN HAUTAKETA

Euskal abeslarien hizkuntza hautuaren arrazoiak zein diren ikertzerako garaian, lehenik eta behin aztergaia zein den zehaztu beharko da. Hau da, nor diren euskal abeslari deitzen ditugun horien perfila. Askotan eztabaidatu den aldagaia da hori, eta ikerketa honetan ere zalantza hori argitu behar da aurrera jarraitu aurretik. Euskal abeslari deituko zaio euskaraz jakin, eta sortu duen musikaren zati bat —disko bakoitzean gutxienez abesti bat— euskaraz egiten duen abeslariari. Irizpide horrekin, beraz, lehen galga jarri zaio ikerketa objektuari.

Baina euskal abeslariak ikertuko direla esatearekin ez da nahikoa. Asko baitira euskaraz jakin eta bere sorkuntzaren zati bat hizkuntza horretan egiten dutenak. Azterketaren helburua egungo abeslarien hizkuntza hautuaren arrazoiak topatzea denez, musikari garaikide horiek zein garairi lotuak dauden zehaztu beharko da. 2010 eta 2018 urteen artean lehen diskoa argitaratu duten sortzaileen artean egingo da ikertuko diren abeslarien hautua. Euskal Herrian dagoen musika panorama anitza baita, eta ibilbide luzea duten musika taldeek sortu berriekin partekatzen dute agertokia. Baina aztergaia gaur egungo musikariek duten diskurtso linguistikoa aztertzea denez, horregatik erabaki da azken zortzi urteko epean estreinako diskoa argitaratu duten taldeak hautatzea.

Ez hori bakarrik, ikerketa epea amaitzen den unean abeslariak 30 urte edo gutxiago izatea ere erabaki da. Alegia, 2018. urtean 30 urte edo gutxiago izatea. Lanaren aztergaia belaunaldi berrien hizkuntza hautua denez, muga horien baitan dagoen belaunaldia hartuko da aztergaitzat, 'belaunaldi berrizat' joko duguna.

Bigarren galga hori jarrita, beste bat ezarri beharko da. Azken batean, 2018an 30 urte edo gutxiago izan, eta azken hamarkadan lehen diskoa argitaratu duten euskal musikariak ez baitira gutxi. Horregatik, arrakastaren edo popularitasunaren arabera galga ere ezarriko zaio ikergaiari. Hau da, ikerketa egingo den unean entzule gehien izaten ari diren taldeen artean aukeratuko da. Zergatik? Talde horiek entzuleen artean izan dezaketen eragin soziala handiagoa izango delako era horretan.

Baina zeren arabera erabakiko da zein den unean uneko musikari ezaguna? Zein irizpide erabiliko da hori zehazterakoan? Musika entzuteko plataformetan gehien entzuten diren euskal musikarien zerrendari errepaso eman beharko zaio horretarako. Sarean musika entzuteko euskarri ezagunena eta erabiliena da Spotify plataforma¹, eta bertako datuak baliatuz, munduko 2.894 hiritan gehien entzuten diren

¹ 2018an argitaratutako txosten fiskalaren arabera, Spotifyk 183 milioi erabiltzaile dauzka mundu osoan. Euskal Herrian dituen erabiltzaileen daturik ez dago, baina musika era digitalean gero eta gehiago entzuten dela zehaztu zuen Elkar-ek eta Siadecok 2018an argitaratu zuten euskal herritarren irakurketa eta musika ohiturak aztertzen zituen ikerketan. Biztanleen herenak formatu digitalean entzuten du musika, gehienek doan. Joera hori areagotu egiten da gazteen kasuan: %66ak doan entzuten du plataforma digital batean, eta %9,7ak ordainduta. Plataforma horien artean zein erabiltzen den ez da zehazten, baina Spotifyk duen hedadura ikusita, bere presentzia esanguratsua izango dela aurreikusi daiteke.

abestien zerrenda eguneratua argitaratzen du *Every Place at Once* webguneak². Tartean, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean gehien entzundako abestien zerrendak ere baditu, eta bertan azaltzen diren taldeen arabera erabaki daiteke zein diren euskal musikari arrakastatsuenak. Hori bai, zerrenda luzea denez, lehen hamabosten artean egingo da hautaketa³.

Talde horien artean aurretik ezarritako baldintza horiek nork betetzen dituen aztertu da ondoren. Hau da, zerrenda horretatik zein den 2010eko hamarkadan lehen diskoa argitaratu duen taldea, eta belaunaldi berrikoa ote den. Horretarako, *badok.eus* ataria baliatu da —euskal musikaren inguruko webgune osatuena da Badok—, talde bakoitzaren soslaian arakatu da baldintza horiek nork betetzen diren jakiteko. Galbahe horiek guztiak kontuan hartuta, talde hauek leudeke lehen zerrenda honetan: Eskean Kristö, Nøgen, Glaukoma, En Tol Sarmiento, Skakeitan, Izaro, Huntza, Siete Balas, Baloreak eta Kaleko Urdangak.

Hizkuntza hautua egiterakoan euskal musikariek zein arrazoi erabiltzen dituzten aztertzeko, ordea, hiru talderen lagina hautatuko da. Kasu horietan oinarrituko da ikerketa lana. Zerrenda horretatik honako hauek hautatu dira: Izaro, Huntza, eta En Tol Sarmiento.

Galbahetik igaro diren hiru talde horiek aukeratzeko irizpide ezberdinak erabili dira. Batetik, lau herrialdeetan gehien entzun diren abestien artean errepikatuenak diren taldeak zein diren ikusi da, eta lurraldetasun printzipioa ere ezarri da bestetik. Hau da, ez daitezela talde denak lurralde berekoak izan, ezta antzeko testuinguru soziolinguistikokoak ere. Irizpide horiek erabilia aukeratu dira, beraz, ikerketa honetarako objektu izango diren hiru taldeak.

2. MUSIKA TALDEEN AURKEZPENEA

Hizkuntza hautuaren inguruko azterketa egiteko hiru musika taldeak aukeratuta, horien ibilbidea aurkeztuko da, labur bada ere.

2.1. IZARO

Izaro Andres (Mallabia, Bizkaia, 1993) abeslaria dago bere izena daraman musika proiektuaren atzean. Musikaren arloan ibilbiderik egin gabea ordurako, ikasketengatik AEBetara joan zenean erabaki zuen abestu egin nahi zuela: “Kalifornian bizitzen nengoela konturatu nintzen banuela musika egiteko bide bat, eta aprobe txatu beharra neukala pentsatu nuen, musikak zoriotsu egiten nauelako”. Ikuspegi profetikoko horri tiraka, 2014. urtean bere lehen bi abestiak argitaratu zituen *youtube* plataforman: *Paradise* eta *Honey*. Hor abiatu zuen ondoren arrakastatsua izango zen musika ibilbidea.

Hilabete batzuk igarota, crowdfunding kanpaina bat abiatu zuen bere lehen disko luzea argitaratu ahal izateko, eta lan hori errealitate bihurtu zen 2016. urtean kaleratutako *Om* diskoarekin. Estreinako lanean, pop eta folk musikak doinuak landu zituen, eta euskaraz, gazteleraz zein ingelesez abestu zuen. Batez ere Euskal Herriko mugen barruan aurkeztu zuen lan hura, baina Andres Espainia zein Kataluniara ere atera zen

² Webgunearen iturburua: everynoise.com/everyplace.cgi

³ 2019ko otsailaren 10ean begiratu da zerrenda hori, eta orduan agertutako musika taldeen artean egin da aukeraketa.

Ian harekin. Besteak beste, Madrilan, Bartzelonan, Zaragozan, Sevillan, Granadan eta Kanariar uharteetan ere jo zuen.

Urtebete beranduago, bost abestiko *Hankapuntetan* disko laburra argitaratu zuen. Abesti denak euskarazkoak izan ziren bertan, eta Mikel Urdangarinen laguntzarekin grabatutako *Errefuxiatuak* abestiak berebiziko sona izan zuen hedabide eta sare sozialetan. Baina Euskal Herrian bertan, eta kanpoan sona berezia eman zion lana 2018. urteko *Eason* diskoa izan da. Orain arte Izaroren azkan lana denak, hain zuzen. Lehen diskoan bezala, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez kantatu zuen, pop, folk eta indie eritmoetan.

Mallabiko musikariak lortu duen sona irudikatzeko, baliagarria izan daiteke azken disko hori aurkezteko lehen kontzertuetan izan zuen harrera ikustea. Bilboko Arriaga antzokian edo Donostiako Victoria Eugenia, besteak beste, sarrera guztiak agortu zituen, eta bira amaierako emanaldian ere beste horrenbeste egin zuen Donostiako Kursaal. Baina Ian honekin atzerrira ere salto egin zuen. Espainian gero eta kontzertu gehiago eskaini zituen, eta lehen aldiz Mexikora ere joan zen abeslaria sei zuzeneko eskaintzera. Ikusle aldetik lortu duen hedapenez aparte, azken diskoak Musika Bulegoaren saria⁴ jaso zuen 2018an. Beraz, entzuleen onarpenaz aparte, Izarok kritikaren oniritzia ere jaso duela ikusi daiteke.

Sortzez bizkaitarra da Andres, baina ikasketengatik Donostiara joan zen bizitzera, eta gaur egun bertan bizi da. Horregatik, bi eremu soziolinguistiko dituela esan daiteke: jaioterrikoa eta bizilekukoa. Bakarleri gisa aritzen denez, elkarrizketa Iزارo Andrei berari egin zaio. Galderak korreo elektroniko bidez bidali zaizkio berak hala hobetsita, eta musikariak idatziz erantzun dizkie horiei 2019ko maiatzaren 14an.

2.2. HUNTZA

Huntza taldeko ahotsa, abestien egilea eta trikitilaria da Josune Arakistain (Lastur, Deba, Gipuzkoa, 1996). Hamabost urte zituenean trikiti txapelketetan parte hartzen hasi zen, eta garai horretan sortu zuen bere lehen abestia:

“Lehenengo kantua sortu nuen txapelketa baterako kalejira bat bezala. Iruditzen zitzaidan beti kantu berdinekin sartzen ginela, eta zerbait ezberdina egin nahi izan nuen. Garai horretan norbere sorkuntzak egitea ez zen oso ohikoa, probatu nuen, eta harrera ona izan zuen”.

Baina behin txapelketak alboratuta talde bat sortu nahi zuela garbi zeukan Arakistainek.

“Aldaketa bat egin nahi nuen, beste formatu batzuetan probatu. Buruan neukan nolako taldea nahi nuen, zein instrumentu egongo ziren, eta zein estilotan arituko ginen: folk estilo horretan. Garbi neukan, baita ere, taldean biolin bat, gitarra elektriko bat eta trikiti bat ere egongo zirela”.

Horrela sortu zen Huntza taldea. 2014an Bilbon ikasketak egiten ari zela, trikipoteo batean trikitia joz atera zen Arakistain Uxue Amonarriz ikaskide eta pandero jotzailearekin batera. Eguenero elektrotxarangarekin topo egin zuten, eta bertan biolin jotzaile bat zegoela ikusi. Hizketan hasi, eta batera jotzen hasteko elkartzen hasi ziren

⁴ Euskal Herriko musika jarduerarekin zerikusia duten eragile guztiak biltzea asmo duen proiektua da Musika Bulegoa. Hauek dira Eusko Jaurlaritzarekin batera, ekimeneko kideak: Kultura Live (Euskal Herriko Areto Pribatuen Elkarte), MIE (Musika Industria Elkarte), Musikari (Euskal Herriko Musikarien Elkarte) eta Musikagileak (Euskal Herriko Musikagileen Elkarte). Urteko ekoizpen musikala onenak saritzen dituzte Musika Bulegoaren sarietan, euskal musika sustatzeko helburuarekin.

Bilbon bertan. Taldea hor hasi zen sortzen. 2016ko martxoaren 8an igo ziren taula gainera estreinako aldiz *Harro gaude* kantua plazaratuz, eta hilabete gutxiren buruan lehen lana argitaratu zuten: *Ertzetatik*. Arrakasta berehalakoa izan zen, batez ere *Aldapan gora* abestiari esker. Hedabideetan behin eta berriro entzun zen kantua, eta *youtube* kanalean euskarazko bideo ikusiena izatera iritsi zen 2018an: 5,7 milioi bisita jaso zituen.

Lehen disko arrakastatsu horren ondotik bi kantuko *Lumak* lan laburra atera zuten 2017an, eta *Xilema* luzea 2018an. Lehen diskoaren sona berrestea lortu ez duten arren, atzerrian lan horiek defendatzeko aukera eduki du Huntzak. Bat-batekoa izan baitzen taldeak lortu zuen arrakasta, eta horri esker plaza askotan jo du Huntzak. Euskal Herrian ditu jarraitzaile gehien, eta bertan jo izan dute batez ere, baina baita Valentzian, Katalunian, Madrilen, Argentinan, Japonen edo Eskozian ere.

Folk eta rock estiloak landu izan dituzte, baina triki-pop generora ere hurbildu dira. Taldea Bilboko kaleetan eta ikasle giroan sortu bazen ere, taldekide guztiak gipuzkoarrak dira. Aitzol Eskisabel eta Inhar Eskisabel ataundarrak dira, Aitor Huizi eta Uxue Amonarriz hernaniarrak, Peru Altube arrasatearra, eta Arakistain Debako Lastur auzokoa. Taldearen sortzaile eta abestien egilea Arakistain bera da, eta horregatik elkarrizketa berarekin egin da. Aurrez-aurre egin da elkarrizketa hori, 2019ko maiatzaren 13an, Debako Itziar auzoan.

2.3. EN TOL SARMIENTO

2010eko hamarkadako belaunaldiko musikarien ordezkari bezala aukeratu da En Tol Sarmiento, baina lehen urratsak 2004an eman zituen Ekoran (Araba) sortutako taldeak. Urte horretan egin zuten lehen entseua Iñigo Etxezarreta (Gasteiz, 1988) gitarra jotzaileak, Ruben Campiun baxu jotzaileak eta Floren Nuelak bateria jotzaileak, baina ez zuten gauza handirik lortu. “Hurrengo urte baterako utzi genuen”, azaldu du Etxezarretak. 2005ean berriz elkartu ziren, eta orduan bai, entzuten zituzten taldeen bertsioak jotzen hasi ziren, eta hiru abestiko lehen kontzertu bat eskaini zuten urte horretan bertan. 2006an tronpeta jotzaile bat sartu zen taldean, eta ordura arte jorratzen zuten punk-rock estiloa aldatu zuten, eta ska musikara gerturatu ziren: “Gurekin zegoenez jo zezan saiatu ginen, estiloa apur bat aldatuz. Inondik inora ska musikaren jakitun ginelako. Hortik aurrera estiloa mantendu dugu”.

2008. urtean sei abestiko lehen maketa grabatu zuten: *Vendimia seleccionada*. Abesti bat euskaraz zegoen, eta gainerako guztietan gazteleraz kantatzen zuten. Taldeak argitaratutako lehen lana izan baldin bazen ere, ez da euren lehen lan ofizialtzat hartzen, eta horregatik sartu da taldea ikerketako aztergai gisa. Taldea, gainera, geldirik egon zen 2011 urtera arte, Etxezarreta abeslaria Nantesen (Frantzia) bizitzen egon zelako. Horregatik, En Tol Sarmientok bi garai izan zituela esan daiteke: hastapenetakoa, eta 2010eko hamarkadakoa bestetik. Azken honetan egonkortu zen taldea, eta orduan lortu zuen gaur egun daukan arrakasta eta sona.

Etxezarreta Nantesetik itzuli zenean, taldea buru-belarri jarri zen lehen disko ofiziala izango zena prestatzeko. Horrela, 2012an argitaratu zen *Hacia la luna* diskoa. Hamahiru abesti zituen, eta horietatik lau euskaraz ziren, bat frantsesez, eta gainerako guztiak gazteleraz. Ordura arte ezezaguna zen En Tol Sarmiento, baina *Musikaren doinua* kantua berebiziko sona lortu zuen, eta Arabar Errioxan jotzetik Arabako gainerako eskualdeetan kontzertuak eskaintzera igaro ziren. Hala ere, apurka Euskal Herri osoan lortu zuten sona, eta gaur gaurkoz Bizkaian, Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian dituzte zale gehien, Etxezarretaren arabera. 2019ko Herri Urratseko abestiaren egileak dira.

Zure mundua eta *Beldurrik ez* diskoak argitaratu zituzten 2014 eta 2015ean, hurrenez hurren, eta diskotik diskora euskararen presentzia areagotzen joan zen. *Zure mundua* lanean hamabi kantutik zazpi euskarazkoak izan ziren, eta hurrengo urtean atera zuten diskoan abesti denek zeuzkaten euskarazko hitzak.

Sortzez Ekorakoa da taldea, Arabar Errioxako eskualdekoa, eta taldekide gehienak inguru horretakoak dira: Iñigo Etxezarreta gasteiztarra, Ruben Campiun Ekorakoa, Floren Nuela Coriakoa (Extremadura), Javier Lucas Logroñon bizi den bilbotarra, eta Ruben Terreros Najerakoa (Errioxa). Testuinguru soziolinguistikoa, beraz, ez da batere euskalduna eta hala ere abestietan euskaraz kantatzen dute. Hizkuntza hautu hori Etxezarretak berak egin du. Taldeko euskaldun bakarra da, eta berak hala nahi izan zuelako hasi zen taldea hizkuntza horretan abesten. Berak idazten ditu abestien letrak, eta horregatik, elkarrizketa berarekin egitea hobetsi da. Telefonoz egin da elkarrizketa hori, 2019ko maiatzaren 13an.

METODOLOGIA

Ikerketaren helburu nagusia zein den ikusita, azterketa egiteko metodologiak kualitatiboa izan behar duela ondorioztatu da.

Azken batean, hurbilpen kualitatiboaren bidez gizarte praktikak ulertzeko ahalegina egiten da. Jokaera sozial batek duen zentzua aztertzen da, eta era berean, baita ikerketako aktoreek hizkuntzaren bidez adierazteko duten modua ere, kuantitatiboan ez bezala. Hau da, ikerketarako erabiltzen den lehengaia aktorearen adierazteko modua da. Horregatik, errealitate bat deskribatu baino, horren arrazoieta sakontzen saiatzen da metodologia hau, eta jokabide zehatz batzuk ingurune sozialaren testuinguruan kokatzen ditu (Martinez et al. 2019, 10-13). Horregatik, azken hamarkadako euskal musikari batzuek hizkuntza hautua egiten dutenean, eta horren atzean erabiltzen dituzten arrazoiak aztertu nahi direnez, ikuspegi kualitatiboa da metodologia egokiena. Helburua ez baita argazki bat osatzea, baizik eta hautu eta diskurtso horien atzean egon litezkeen gizarte praktika eta argudioak jaso eta aztertzea.

Hau kontutan hartuta, elkarrizketa erdi-egituratuaren teknika erabiliko da. Izan ere, teknika honen bidez informazioa nahiz elkarrizketatuak zer adierazten duen ere biltzen du (Ibid, 29). Gidoia erdi-egituratua izaterakoan, jasotako erantzunak konparagarriak dira, oso garrantzitsua dena kasu honetan. Baina, era berean, erantzun batzuetan sakontzeko aukera ere eskaintzen du teknikak, eta hori ere oso beharrezkoa da, diskurtsoak eta arrazoiak aztergaiak izaki, horietan sakontzeko aukera eskaintzen delako.

Edozein modutan, ikerketa objektuan zehaztu denez, euskaraz abestea erabaki duten azken hamarkadako hiru musikariri egingo zaie elkarrizketa, eta horietan oinarrituko da ikerketa lana. Belaunaldi horretako abeslari erreferentzialak aukeratu dira, eta testuinguru ezberdinetakoak hiruak ere.

Elkarrizketaren gidoia eta ikerketarako kategoriak

Ikerketa egin ahal izateko, elkarrizketetarako gidoi komun bat ezarri da, nahiz eta elkarrizketatu bakoitzarekin galdera berriak sortu diren. Galdetegian puntu nagusi batzuk ezarri dira. Honako hauek:

- SARRERA: MUSIKARA HURBILPENEA
 - Entzule gisa esperientzia
 - Musikari bezala lehen pausoak
- EUSKARAREKIKO HARREMANA
 - Norbanakoak euskararekin duen harremana
 - Ingurune soziolinguistikoa
 - Hizkuntza egoeraren kontzientzia
- MUSIKA ETA EUSKARA HAUTUA
 - Hizkuntza hautuaren zergatia
 - Euskararen egoera musikan
 - Euskal musikariaren definizioa

- ZALETUAK GOGOAN
 - Norentzako kantatzen den
 - Arrakasta helburua eta hizkuntza
- BESTE HIZKUNTZETAN ABESTEN
 - Beste hizkuntzetan kantatzearen zergatia

Elkarrizketak eginda, informazio hori elkarren artean alderatu ahal izateko puntu batzuk zehaztuko dira, eta horien arabera aterako dira ikerketaren emaitzak eta ondorioak. Eskema hau erabiliko da horretarako:

- MUSIKARIA, MUSIKA ETA EUSKARA
 - Ingurune soziolinguistikoa
 - Norbanakoak euskararekiko duen harremana
 - Hizkuntzaren egoeraren kontzientzia
 - Euskarazko musikaren eragina
- HIZKUNTZA HAUTUAREN ARRAZIOIAK
 - Zergatik kantatu euskaraz?
 - Euskal abeslariaren definizioa
 - Hizkuntza hautua: arrakasta eta irismena
 - Hizkuntza hautuaren kontzientzia
- EUSKARAREN EGOERA MUSIKAN
 - Aurreko belaunaldien eragina musikariaren hizkuntza hautuan

MARKO TEORIKOA

Zergatik kantatu euskaraz? Galdera hori dakar ikerketa lan honek abiapuntu bezala, eta horri erantzuteko oinarri teorikoak zein izango diren aztertuko da atal honetan. Jarrera eta motibazioak aipatu beharko dira hizkuntza hautu horien oinarriei buruz hitz egin behar denean, baina horretaz gain, euskal musikan euskaraz kantatzeak izan duen bilakaera ere aztertuko da. Azken batean gaur egun euskaraz kantatzerakoan zein arrazoi erabiltzen diren jarriko da mahai gainean, baina horretarako kontuan izan beharko da hautu hori aurretik musikari askok egin dutela. Beraz, marko teoriko honetan bi helburu horiek ezarriko dira: hizkuntza hautuan eragiten duten jarrera eta motibazioak azaltzea, batetik, eta euskaraz kantatzeak azken 50 urteetan izan duen bilakaera zein izan den erakustea, bestetik.

1. HIZKUNTZA HAUTUA: JARRERAK ETA MOTIBAZIOAK

1.1. KONTZEPTUAK ARGITZEN

Azken hamarkadako hiru musikariren kasu praktikoetan oinarritutako ikerketa honetan euskal abeslarien artean hizkuntza hautua egiterakoan erabilitako arrazoiak zertan oinarrituko diren jakiteko, atalez atal azalduko dira zein diren hizkuntza aukeraketa bat egitera bideratzen duten eragileak.

1.1.1. HIZKUNTZA HAUTUA

Ezer baino lehen, ordea, hizkuntza hautua zer den argitzea litzateke hasierako lana, eta zerk eragin dezakeen aukeraketa bat ala beste. Soziolinguistika Hiztegiak honela definitzen du *Hizkuntza-hautaketa*:

“Komunikazio-interakzio baterako hizkuntza jakin bat edo beste bat hautatzea. Komunikatu nahi duen egoera guztietan egin behar du hiztunak hautaketa hori” (UZEI 2010, 49).

Soziolinguistika Eskuliburuan, bestalde, definizio hau dator *Hizkuntzaren hautaketa* atalaren sarrera gisa:

“Komunikatu nahi duen egoera guztietan hiztunak erabiliko duen hizkuntza edo hizkuntza-aldaera hautatu behar du. Hori banakako hautua da, interakzio-testuinguruko baldintzei lotua zaiena” (Zarraga et al. 2010, 170).

Bi definizio horietan diotenaren arabera, beraz, hiztunak uneoro egiten duen hizkuntza aukeraketa bat litzateke hizkuntza hautua, eta bertan testuinguruak eragin zuzena izango du. Horregatik, hizkuntza bat edo beste erabiltzerako garaian bi esparru horiek elkar eragingo dute: banakakoaren eremua eta bere testuingurua.

1.1.2. JARRERA ETA MOTIBAZIOA, BARNE ERAGILEAK

Hautu hori egiterako garaian eragina duten faktoreak askotarikoak dira: hiztunak hizkuntzarekiko duen iritzi eta joerak, edo norbanakoaren testuinguru soziolinguistikoak, esaterako. Lan honetan zehar, ordea, eremu pertsonalean

sakonduko da batez ere, norbanakoaren barne eragileetan. Zehazki, hizkuntza bat ala beste bideratzerako garaian hitzunik dituen jarrera eta motibazioek duten garrantzia aztertuko da.

Izan ere, hitzunen testuinguruko elementuak eragina izango duten arren, zein hizkuntza erabili aukeratzeko azken erabakia norberari dagokio, eta azken pauso horretan aparteko eragina izango dute jarrerak eta motibazioak. Hala diote HUEZIKO adituek:

“Norbanakoaren jarrera eta motiboek zeresan handia dute portaera linguistikoei dagokienez, izan ere norberarena izango da hizkuntza bata ala bestea hautatzearen azken erabakia” (Arratibel et al. 2016, 200).

Are gehiago hizkuntza minorizatu baten esparruan. Barne eragile hauek aparteko garrantzia dutela dio Nekane Larrañagak soziolinguistak kasu horietan.

“Gizarte inguruko baldintzek hizkuntza erabileran eragina badute ere, ez dira gizartezko indarrak bakarrik erabilera erabakitzen dutenak, hitzunen hizkuntzarekiko jarrerek ere eragiten baitute hauen hizkuntza aukeran.

Gizakiaren kanpoko eragileak, hau da gizartezko indarrak —Mackeyk aipatzen digun bezala—, hizkuntza gutxiengotu baten erabilera baldintzatzen dutela kontutan hartuta ere, hizkuntza gutxiengotuen erabileran gizakiaren norizana edo izanahia litzateke eraginkorrena. Hitzunen barneko eragilea litzateke beraz hizkuntza jokaeran eraginkorrena” (Larrañaga 1995, 242).

Soziolinguistika Eskuliburuaren arabera, gainera, egoera elebidunetan are erabakigarriagoak dira jarrerak eta motibazioak.

“Egoera elebidunetan jarrerek garrantzi handiagoa hartzen dute; izan ere, hizkuntzaren biziraupena jokoan egon daiteke. Motibazio egoki eta indartsuak eta aldeko jarrerak funtsezkoak izango dira, sarritan, hizkuntza-komunitateak bere hizkuntzari eutsi diezaion” (Zarraga et al. 2010, 76).

Beraz, euskara minorizatuta eta egoera diglosiko batean dagoenez, jarrerak eta motibazioak norbanakoaren hizkuntzarekiko jokaera baldintzatuko dute. Euskararen hautua egiterakoan ezinbestekoak izango direlako aldeko motibazioa eta jarrera izatea, Larrañaga eta Soziolinguistika Eskuliburuaren arabera.

Hori dela eta, bi barne eragile hauei erreparatuko zaie musikarien hizkuntza hautua aztertzeko. Azken batean, musikariek, gainontzeko herritarrek nola, beraien hizkuntzarekiko motibazio eta jarreraren arabera egingo baitute hautu hori.

1.1.3. JARRERA ETA MOTIBAZIOEN DEFINIZIOAK

Jarrera eta motibazioaren dimentsio ezberdinak aztertu aurretik, baina, bi barne eragile hauek zehatzago definitzea komeni da, kontzeptuak argitze aldera.

Soziolinguistika Eskuliburuan honela definitzen da *Hizkuntza jarrera* kontzeptua: “Hizkuntza edo aldaera zehatz baten aurrean, alde edo kontra erantzuteko edo ekiteko joera da” (Zarraga et al. 2010, 204). Hau da, hizkuntza bat hautatzerakoan pertsona batek erakutsiko duen barne eragilea litzateke jarrera, hautu hori gauzatzerakoan gakoa izango dena. Baita musikari baten portaera linguistikoan ere.

Motibazioa, bestalde, “giza portaerak eragiten eta zuzentzen dituzten prozesu mentala” da, Xabier Erize soziolinguistaren hitzetan (2016, 120). Ildo berean, hizkuntza hautua egiteko “ekintzaren arrazoiak” dela zehazten du Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx*

soziolinguistikak: “Motibazio gisa ulertu behar da, hizkuntza bat ikasi edo erabiltzera bideratzen dituen arrazoi, desio edo interesak” (in ibid)⁵.

Hortaz, definizio hauei jarraiki, motibazioa norbanakoaren prozesu mentala da, hizkuntza hautuaren zergatia. Azken batean, norbere interes, desio eta arrazoien baitakoa izango baita, hizkuntza hautua eraginez eta baldintzatuz.

Dena den, jarrera eta motibazioen arteko muga oso fina dela kontutan izan behar da, bi kontzeptuak norbanakoaren portaeran eragingo duten eragileak izango direlako, bai pertsonen ekintzetan eta baita pentsamenduetan ere (Erize 2016, 122). Hala ere, esan liteke jarrera hizkuntza hautuaren aurrean norbanakoak izango duen jokabidea bideratuko duen joerari lotuago dagoela, eta motibazioa, berriz, hautu hori egiteko duen zergatian kokatuko litzatekeela.

1.2. JARRERA DIMENTSIOK, ETA MOTIBAZIO ITURBURUAK

Jarrera eta motibazioa kontzeptuak definitu ondoren, esan behar da jarrera eta motibazio dimentsio ugari daudela.

Jarrerari dagokionez, hizkuntzen ukipenezko egoeretan, hizkuntza bat erabili edo ikasterakoan eragina duten bi jarrera dimentsio daude: integratzailea eta instrumentala (Zarraga et al. 2010, 212). Motibazioen kasuan, bestalde, norbanakoa euskara ikasi edo erabiltzera bideratuko dituen hiru motibazio bereizi zituen Martinez de Lunak (2001)⁶: motibazio sinbolikoa, motibazio pragmatikoa eta arrakasta motibazioa.

1.2.1. DEFINIZIOAK

Soziolinguistika Eskuliburuan jarrera dimentsio bakoitza definitu, eta berari lotutako motibazioak zein diren azaltzen du:

“**Jarrera integratzailea:** hizkuntza horretako erkidegoaren parte izateari edo izan nahiari erantzuten dio. Hizkuntzen identitate-emaile izaeran ere adierazten da, baita atxikimendu-sentimenduarekin ere. Hizkuntza-erkidegoaren parte direnen eta izan nahi dutenen joera adierazten du.

Jarrera integratzailea motibazio sinbolikoarekin lotzen da, eta jarrera izanarazle modura ere definitu izan da euskal tradizioan” (Zarraga et al. 2010, 212-213).

“**Jarrera instrumentala:** hizkuntza edo aldaera zehatz hori hitz egiteak dakartzan onurak kontuan hartuz, horren alde ekiteko joera. Onura horiek ekonomikoak edota sozialak izan daitezke.

Jarrera instrumentala motibazio pragmatiko modura ere ulertu ohi da, arrakasta motibazio edota truke-ordaineko jarrera modura ere definitzen da” (ibid, 213).

Beste hitz batzuetara ekarrita, pertsona batek jarrera integratzailea izango du hizkuntza batekiko atxikimendua azaltzen duenean. Edo beste modu batera esanda, hizkuntza komunitate bateko kide izatea helburu bihurtzen denean. Jarrera instrumentalaren kasuan, berriz, norberari eragingo dizkion onura sozial edo ekonomikoek eraginda izango du hiztunak hizkuntza horrekiko aldeotasuna.

Jarreraren bereizketa hau motibazio dimentsio jakin batzuekin daude lotuta, definizioan ikusi dugunez. Hau da, jarrera mota bakoitzak bere motibazio dimentsioarekin izango du lotura. Baina, lehenik eta behin, azaldu ditzagun labor zeintzuk diren Martinez de Lunak zehaztutako hiru motibazioak.

⁵ Egileak itzulita. Lanean zehar jatorriz euskaraz ez diren aipuak itzulita emango dira.

⁶ Saretik ateratako erreferentzia: www.soziolinguistika.eus/node/892

Motibazio sinbolikoa hizkuntza komunitate bateko partaide izatearen nahiari dagokio. Hau da, komunitate horretan integratzeko nahiaren ondorio da motibazio sinbolikoa, soziolinguistaren hitzetan (in Zarraga et al. 2010, 213).

Motibazio pragmatikoaren kasuan, onura jakin baten ondorioz ikasten edo erabiltzen du hiztunak hizkuntza bat. Esaterako, lanpostu jakin bat lortzeko. Arrakastazko motibazioak ere onura bilatzen du, baina ez hain instrumentala, baizik eta “gizartearen elite sozio-ekonomiko eta politikoen hizkuntza-ereduari jarraitzeari lotuta” sortzen den motibazioa litzateke (ibid).

Hortaz, jarrera integratzaileak berarekin ekarriko du motibazio sinbolikoa, eta jarrera instrumentala motibazio pragmatiko edota arrakastazkoari lotuta egongo da.

Noski, bai batean zein bestean hizkuntza-eremuak zeresan handia izango du hizkuntza gutxituetan. Izan ere, “mendeko hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko prozesuak aurrera eramateko, abiatzean maila goreneko edo indar handieneko motibazioa behar dira, batez ere inguruneko baldintzak hizkuntza horren kontrakoak badira” (ibid, 213-214). Egoera horietan motibazio sinbolikoa gakoa izango da, motibazio horren baitan hasiko baita norbanakoa hizkuntza hori ikasten, bestelako onura ekonomiko nahiz arrakastazkorik lortzen ez badu ere.

Ikerketa honetan, musikariaren hizkuntza hautua egiterakoan dituen jarrera eta motibazioak aztertu beharko dira. Hau da, euskaraz abesteak zein dimentsioei lotuta dauden ikertzea garrantzitsua izango da.

1.2.2. JARRERA INTEGRATZAILEA ETA MOTIBAZIO SINBOLIKOA

Jarrera integratzailea norbanakoarengan talde identifikazioa eta hizkuntza atxikimendua eragiten duen jarrera dela ikusi da aurreko definizioan. Baina jarrera hori ere baldintzatuko du gizarte elebakarra edo eleaniztuna bada.

“Komunitate elebakarretan jarrera integratzaileak nagusi direnez, hizkuntzarekiko eta komunitatearekiko afektuzko sentipenak sortzen dira; elebitasun edo eleaniztasun egoeretan, alabaina, gatazka sor daiteke, identitateen arteko tentsioak sortzen direlako” (Zarraga et al. 2010, 212).

Alegia, hiztun komunitate bakarra dagoenean, ez da tentsiorik sortuko, eta talde horrekiko identifikazio maila bat garatuko du norbanakoak. Gizarte elebidun edo eleaniztunetan, ordea, hizkuntzarekiko atxikimendu, identifikazio eta jarrera gatatzatsuago izango da. Beraz, tentsio horrek hizkuntza batekiko jarrera bideratu lezake, batzuetan aldekoagoa besteetan kontrakoagoa izanik.

Kasu horietan, gainera, identifikazio elementu garrantzitsua bihurtu liteke hizkuntza, hiztunak bere identitatearen zutarrietako bat bezala jo lezakeelako *berezkotzat* jotzen duen hizkuntza hori. Kasu horietan jarrera “izanerazlea” ere badela dio Larrañagak.

“Euskarak euskaldun egiten gaitu, euskara gure hizkuntza edo Euskalerriko hizkuntza da, bestalde euskara gure arbasoengandik jasotako hizkuntza zaharra da. Adierazpen hauei, norbere izatea edo izanahiari loturik daudenez eragile izanarazleak deitu diegu” (Larrañaga 1995, 165).

Jarrera hau ulertzeko, beraz, kontuan hartu behar da hizkuntza ez dela komunitate batean integratzeko baliabidea izango bakarrik, norberaren izatean ere kokatuko litzatekeela. Hau da, identifikazio elementua ere bada hizkuntza eta horrekiko jarrera. Beraz, jarrera integratzaileak izanerazleak ere direla ondorioztatu du Larrañagak.

Gainera, jarrera integratzaileen eta motibazio sinbolikoen kasuan, hizkuntzaren eta komunitatearen arteko identifikazio hori nazio bati lotuta dago Euskal Herrian, Martinez de Lunaren aburuz:

“Gaur egungo Euskal Herrian dauden artean hizkuntzekiko definizioa argia eta eraikitako balioak dituen unibertso sinboliko bakarra euskal nortasun amankomunarena da. Beraz, euskararekiko motibazio sinbolikoak Euskal Herriko edota Euskadiko —Euskal Nazioko— partaide izateari lotuak agertzen zaizkigu gehienbat; kontzientzia horiek gaur egun nahikoa hedatuak agertzen direnez euskararen aldeko motibazio sinbolikoak sortu eta suspertzeko duten ahalmena aintzakotzat hartu behar da” (Martinez de Luna 1996, 48).

Musikariei begira, beraz, eta orain arte aipatutakoa kontutan izanik, euskaraz kantatzearen arrazoiaren atzean komunitate horretan integratzeko zioa baldin badago, jarrera integratzailea garatu eta motibazio sinbolikoak gidatu dutela esan daiteke. Hautua eremu diglosikoan egiten baldin badu, gainera, hautu hori tentsio edo eremu gatazkatsuan egin duela kontutan izan beharko da. Beste era batera esanda, musikariak euskaraz abestuko du, horrek euskaldun identitatearekin lotuko duelako, edo komunitate horrekiko atxikimendua duelako.

1.2.3. JARRERA INSTRUMENTALA ETA MOTIBAZIO PRAGMATIKOA

Arestian ikusi den bezala, jarrera instrumentala eta motibazio pragmatikoa hizkuntza horrek sortuko dituen onurei lotuta dago. Izan ere:

“Hizkuntza helburu jakin bat lortzeko baliatzea bilatzen du. Horrela, hizkuntzaren bitartez talde horretako partaideekin tratu komertzialak egitea, lantokian gora egitea, diru gehiago irabaztea... motibazio instrumentalaren adibide garbiak dira. Hizkuntza arrakastarekin, bizi-kalitatearekin, gizartean gora egiteko aukerekin eta abarrekin lotzeak motibazio instrumentala eragingo du” (Zarraga et al. 2010, 75).

Arrakastazko motibazioa ere onurari lotuta dator, baina onura hori posizionamendu sozialari lotuta legoke. Elite sozioekonomikoetan integratzeko nahiak bultzatuko baitu hiztuna hizkuntza hori ikastera edo erabiltzera. Zerk emango sona eta prestigioa, haren aldeko motibazioa garatzen denean sortuko da arrakastazko motibazioa, beraz.

Hori musikaren eremura eramanez gero, euskaraz kantatzeak onura ekonomikoa zein komertzialak eragiten dituenean sortuko dira motibazio pragmatikoa eta jarrera instrumentala. Aldiz, musikariaren hizkuntza hautua gizarteko posizionamenduen baitan egiten den hizkuntza erabileraren baitan egiten badu, arrakastazko motibazioak bultzatuta hartuko du erabakia.

1.3. HEDADURA GEHIEN DUTEN JARRERA ETA MOTIBAZIOAK

Hizkuntza hautua egiterako garaian norbanakoak duen testuinguru soziolinguistikoak eragina duela aipatu da, hizkuntza baten aldeko edo kontrako jarrera eta motibazioa horren arabera izanik, Larrañagaren hitzetan. Esaterako:

“Euskarari buruzko jarrera guzti hauek gizarteko eragileek baldintzatzen dituztela argi ikusi ahal izan dugu. Bai herriko biztanle kopuruak, bai bertakoen euskararen ezagutzak eta bai etorkinen kopuruak, eragina dute euskararekiko jarreretan.

(...) Biztanle gehien bizi den hirietan, etorkin gehien kokatzen diren eta euskararen ezagutza urriena duten herrietan agertzen dira indar haundienarekin euskararen balio eza eta lan edo ikasketetarako balioa adierazten duten jarrerak. Herri hauetan gehiengoak ados agertzen da, euskaldun izateko euskara jakin beharrik ez izatearekin, euskarak lana topatzeko balio duen iritziarekin eta euskararen ordeztzeriko hizkuntzak ikastea nahi izatearekin.

Jarrera izanera zle eta euskararen aldeko jarrerak herri euskaldun eta kanpoko gutxi bizi den herrietan nagusitzen dira berriz. Herri hauetako gazteen gehiengoak Euskalerrriaren izaerari lotuta eta indartu beharreko hizkuntza bat bezala ulertzen du euskara” (Larrañaga 1995, 240).

Testuinguru soziolinguistikoaren arabera jarrera batzuk besteak baino gehiago gailentzen dira, beraz, eta horren arabera, euskararen aldeko jarrera integratzailea hedatuen dauden eremuak ingurune euskaldunenak dira. Kontrara, hirietan eta eremu erdaldunagoetan euskararekiko jarrera instrumentalak gehiago gailentzen dira, eta euskarak funtzio batzuetarako balio dutela diote: lana lortzeko, besteak beste.

Ikerketaren helburua, ordea, ez da jarrera horiek non gailentzen diren jakin eta aztertzea, baina aldagai hori kontuan hartzea interesgarria izango da erkaketa lana egiteko. Hain zuzen, hizkuntza hautua egiterakoan ematen diren arrazoen artean musikariak zein eremutakoak diren kontuan hartuz gero, eta antzeko testuinguruetan zein jarrera gailentzen diren ikusiz gero, ondorioak atera daitezkeelako.

Motibazioei buruz, bestalde, Martinez de Lunak esan izan du arrakastazko motibazioak eta pragmatikoak ez direla behar beste garatu euskal gizartean. Hau da, batez ere motibazio integratzaileak gailendu izan dira, eta arrakastazko zein motibazio pragmatikoak gehiago hedatu behar direla uste du:

“Euskal Herriko elite gehienek hizkuntz eredua erdara izan da, eta oraindik ere horixe da. Beraz, arrakasta ereduaren aldetik orain arte ez da motibazio aipagarririk sortu. Motibazio hori ezean ikas/erabiltzeko saioak eta jarduerak bere laguntzaz aparte egin beharko dute aurrera. Are gehiago, sozialki indarrean dagoen arrakasta ereduaren hizkuntz aukeraren (gaztelania nahiz ingelesarena) zama jasan beharko du euskarak.

(...) Motibazio sinbolikoen aldetik euskararen egoeraren diagnosis baikorra izan behar bada ere, motibazio pragmatikoen aldetik (‘arrakasta ereduarenak’ barne) egoera nahikoa da beltza” (Martinez de Luna 1996, 50).

Alegia, motibazio sinbolikoek daukaten garrantzia alboratu gabe, arrakastazkoak eta pragmatikoak gehiago zabaldu beharko liratekeela dio:

“Motibazio izanarazleek soilik ez du indar nahikorik errealitatea iraularazteko. Euskararen aldeko trukeordaineko eta arrakasta motibazioak, bestalde, areagotuko eta hedatuko badira, hizkuntz horri lan, modernotasun eta arlo aitzindarien ateak zabaldu behar zaizkio” (Martinez de Luna, 2001).

Ikerketaren eremura ekarrita, desoreka hori kontuan hartzea interesgarria izango da ondoren musikariek erabiliko dituzten arrazoiak aztertzerako garaian.

2. HIZKUNTZA HAUTUA EUSKAL MUSIKAN

Jarrera bat ala beste izan, euskaraz kantatzeko hautua ez dute gaur egungo musikariek bakarrik egin. Euren aurretik hainbat abeslarik egin dute aukeraketa hori. Euskaraz kantatzeko egin den erabaki horretan pop eta rock estiloetan izandako mugarri nagusiak azalduko dira ondoren. Kontakizuna 1960ko hamarkadan abiatuko da, eta gaur egunera arte iritsiko da. Azken batean, musikari garaikideek hautu bat egin badute, aurretik beste batzuek bide hori urratu dutelako izan baita.

“Hizkuntzaren hautu etengabea da euskarazko rockaren historia. 60ko hamarkadan, rocka euskaraz kantatzea hautatu zuten Biurriak eta Yoloak taldeek. Errobi, Niko Etxart, Koska, Lisker eta Enbor taldeek hautu bera egin zuten 70eko

hamarkadan. Itoiz, Hertzainak, Jotakie, Zarama eta Kortaturen txanda etorri zen 80koan. Gaur egun hautu hori egiten jarraitzen dute askok; zorionez, ez da etenik izan *continuum* horretan” (Irazu 2017, 178).

2.1. 1960-1970 HAMARKADAK. EUSKAL KANTAGINTZA BERRIA ETA EUSKARAZKO BERPIZTE MUSIKALA

Frankismo beteko jazarpenaren ildotik ulertu behar da Euskal Kantagintza Berria deitu izan zaionaren sorrera. 1936ko Gerra galdu ondotik, euskarazko ekoizpen eta adierazpide oro jazarria zegoen, eta 1960ko hamarkadan identitate eta kultura berpizte bat egon zen (Del Amo 2016, 32).

Euskal Kantagintza Berriari buruz hitz egiten denean, ordea, Ez Dok Amairu kolektiboaz hitz egitea ezinbestekoa da. 1965. urtean sortua, hainbat musikariren ekimena izan zen, eta Jorge Oteiza artistak hauspotuta. Euskal identitatearen bila lanean ari zen eskultore eta eragile kulturala, eta kolektiboaren sorrera “euskal kulturaren birsortzearen erreferentzia kulturala” bihurtu zen (ibid). Bertan zeuden Mikel Laboa, Xabier Lete, Lourdes Iriondo edo Benito Lertxundi bezalako musikariak. Baina kolektibo hori Euskal Kantagintza Berria deitu izan zaionaren zati bat besterik ez zen izan, Michel Labeguerie edo Imanol Larzabal bezalako abeslariak talde hartatik aparte ibili baitziren (ibid).

Euskal kulturaren birsortzea bilatu zuten garai horretan, eta zentzu horretan euskarak berebiziko garrantzia izan zuen. Ez Dok Amairu taldeak Kataluniako Nova Canço hartu zuten erreferentzia gisa: “Euren helburua frankismoaren aurkako fronte kultural, linguistiko eta politiko bat sortzea izan zen” (Cabeza 2016, 12). Erreferentzia hori Euskal Herrira ekarrita, beraz, euskararen berreskurapena presente zegoen, eta hala kantatzea erabaki zuten mugimendu horretako kideek: “Euskararen jazarpen giro horretan, ez da harritzekoa Ez Dok Amairu bezalako talde bat sortzea, (...) euskara babestu eta berreskuratzeko asmoz sortua” (ibid, 14).

Hala ere, Euskal Kantagintza Berria euskal kultura berreskuratzeko mugimendua izan bazen ere, hiru ildo ezberdin zeuden bere baitan, Ion Andoni del Amo ikerlariak dioenez:

“Alde batetik euskal kulturaren berreskurapen mugimendu bezala ikusten zutenak zeuden, ordura arte tradizioarekin eta folkloreakin oso lotuta baitzegoen, eta atzera egiten ari baitzen. Bestetik, berreskurapen nazionala zentzu politikoan ikusten zutenak zeuden. Azkenik, musika —eta euskalduna zen oro— euskal estetika berri baten sorrerako proiektuaren baitako adierazpide inportante gisa ikusten zutenak zeuden, eta hor sartuko litzateke Oteiza. Korrante horiek denak Euskal Kantagintza Berriaren baitan nahastuta azaldu ziren, Oteiza buru zuen berrikuntza estetikitik hasi, eta ETAREN fronte kulturalaren planteamenduetaraino.

Hain justu, fronte kulturalak erdigunean jarri zuen euskara eta bere berreskurapena. Arrazan eta genealogian oinarritutako Sabino Aranaren nazionalismoaren parean, ETAREN proposamen alternatiboaren arabera, euskara litzateke euskal identitatea eta nazioa definituko duen oinarritzko elementua” (Del Amo 2016, 33-34).

Hala ere, arrazoi bategatik ala besteagatik izan, oinarrian euskal kultura berreskuratzea zegoen, eta hori euskaraz kantatzearekin batera helduko zen. Hori izan zen garai horretako musikariek lortu zutena.

“Euskara, eta euskal kulturako elementuen erreproduzio kolektiboak (...) identitate berri honen sinbolo bihurtuko dira. Eta identitate horretan, musikak garrantzia berezia izango du, azken batean, jaialdiak katarsi kolektibo bihurtuko baitira” (Del Amo 2016, 38-39).

Hau da, euskaraz kantatzen zuten musikaren bidez euskal identitate berri bat sortzen joan zela dio ikerlariak. Horren inguruan sortu ziren musika jaialdiak aldarrikapen politiko eta kulturaletarako gune bihurtu ziren, eta berpizte kultural horretan euskaraz kantatzeak bere garrantzia izan zuen (ibid, 42).

Ez Dok Amairuren ibilbidea, hala ere, 1972an amaitu zen. Baina horien ondoren ere euskarazko musika egiten jarraitu zen. Haizea, Izukaitz, Gontzal Mendibil eta Xeberri, Peio Ospital eta Pantxoa Carrere... musikariak dira horren lekuko. Talde horiek aurreko hamarkadan abiatutako ildoari jarraitu zioten, eta berpizte kultural horren oinordekoak izan ziren. Baina horiekin batera, 1970eko hamarkadan “beste iraultza bat sortu zen”: euskarazko rocka (Cabeza 2016, 15). Errobi, Koska, Lisker edo Enbor bezalako taldeek beste sonoritate bat ekarri zuten euskarazko musikara. Hamarkada berean, Itoiz —hasiera batean— rock sinfonikoa egiten hasi zen, eta Oskorri folkean nabarmentzen ditu Pablo Cabeza musika kazetariak. Euskara musika estilo berrietara iristen hasi zen.

Jaialdien garaia izan zena, hala ere, 1970eko azken urteetaraino iritsi zen. Hori baino lehen, ordea, aldaketa zantzuak zeudela dio Del Amok: “Hamarkada erdialdera nabaria zen giro kontrakultural karismatikoa inflexio puntu batera iritsi zela”. Giro politikoa aldatuz doa, frankismoaren azken urteak dira, eta alderdi politikoak bata bestearen atzetik sortuko dira (2016, 42). Baina borroka kolektibo batzuek batasuna lortuko dute. Tartean euskararen aldekoa eta borroka antinuklearra aipatzen ditu.

Baina, hamarkada amaieran euskal musikaren ekoizpenak behera egingo du, eta “kultura ziklo baten amaiera” erakusten duten datuak ematen ditu Elena Lopez Agirrek (in ibid, 43): 1981ean 11 LP argitaratu ziren. 1967 eta 1976 urteen artean, ordea, 50 LP eta 220 single edo EP plazaratu zituzten euskal diskoetxeek. Garai aldaketa iritsi zen. Baina ez soilik musika ekoizpenari begira, baita hizkuntza hautuari begira ere. Euskal Kantagintza Berria euskarazko mugimendua izan bazen, ondoren etorriko zenak hizkuntzaren bereizgarri hori galduko baitzuen.

2.2. 1980 HAMARKADA. EUSKAL ROCK ERRADIKALEAN EUSKARAK ATZERA

1970eko hamarkadako azken urteetan krisi ekonomikoa lehertu zen mendebaldeko gizartean, eta atzeralditik irteteko erantzun neoliberalak ezarri ziren. “Sozialki eta politikoki suntsitzailea izan zen erantzun hori, baina kontrara, kulturalki emankorrak izan ziren” (ibid, 45). Punk mugimendua sortu zen Erresuma Batuan, eta handik mundu osora hedatu zen. “Krisiak eragin zituen ezaugarri suntsitzaileenari aurre egin zion adierazpide berri batekiko protesta eta erresistentzia bezala lehertu zen” (ibid, 47). Mugimendu horrek bere doinu propioak izango zituen: gitarra distorsionatuak eta erritmo bizia.

“Modu harrigarrian” zabaldu zen punk mugimendua Euskal Herriko hainbat gazteren artean. Krisi ekonomiko, politiko eta sozialeko testuinguruan, “aurreko belaunaldiekin apurtu zuten” (ibid, 50). Ez Dok Amairuk ordezkatzeko zuten guztiarekin apurtu zuten gazte horiek, eta horrek arrakala handia sortuko du. “Gazteak Londresera begira daude, eta euren aurrekoen erreferentzia kulturalak baztertzen dituzte” (ibid).

Etenaren inguruko ikuspegi hori hizkuntza hauturaino ere iritsi zen, 1980eko hamarkada hasierako musikariek apenas kantatzen baitzuten euskaraz. Hala dio Alberto Irazuk kazetariak:

“70eko hamarkadan euskarazko musika erdigunean egon zen kantautore eta kantaldien mugimendu indartsuarekin; aldiz, 80ko hamarkadako basamortuko

bidaia neketsua izan zen euskarazko rockarentzat. 1980-84 bitartean esku bakarreko hatzekin konta daitezke diskoa euskaraz kaleratutako talde edo rock kantariak: Itoiz, Zarama, Hertzainak, Niko Etxart, M-ak. Garaiko hemerrotekek erakusten dute zenbateraino zegoen gutxiengoan euskarazko rocka kontzertuetan eta disko dendetan” (Irazu 2017, 115).

Josu Amezaga soziologoak azaldu du zenbaterainokoa izan zen etena. “Euskarazko diskagintzak atzerakada nabarmena jasan zuen 1980ko hamarkadaren hasieran” (1994, 211). Horretarako, disko ekoizpenari begiratzea bakarrik nahikoa izango litzateke: 1980an euskarazko hamabi disko argitaratu ziren —Euskal Kantagintza Berriari lotutakoak denak—, eta 1981ean bi besterik ez (ibid). Fenomeno horren oinarrian zer zegoen azaltzen saiatu da:

“Euskal kantagintzak iraganaldi politikoaren ondoren izan zuen eraldakuntzari loturik dago. Eta eraldakuntza honetan, euskarazko kantagintzaren beherakadarekin batera, bestelako fenomenoak gertatu zen: gaztelerazko musikagintzarena hain zuzen. Lehendik ere erderazko talde eta kantaririk bazen, baina aztertzen ari garen eremuan oso gutxi zirela esan behar dugu, Euskal Kantagintza Berriak musikagintza popularraren eremu ia guztiak betetzen baitzituen, Euskal Herriko musikarien artean noski (ezin dira ahaztu ordurako kanpotik zetozen musika joerak, disken edota komunikabideen bitartez: rock, kantagileak, musika espainol edota frantsesa, etab.; hauek ere beren lekua zuten herriaren musika-kontsumoan). 1980ko hamarkadaren hasieran, ordea, gaztelerazko taldeak agertzen hasten dira, bertakoak” (ibid, 211-212).

Analisi horri beste puntu bat gehitzen dio Del Amok, gazte mugimendu berria langile auzoetan lehertu zela baitio. Baldintza ekonomiko zailenean zeuden inguruetan, eta espainiar etorkinen bizitokietan, hain zuzen. Eremu horietan sortu ziren punk talde nabarmenetako asko (Del Amo 2016, 71). Inguru horietan sortuta, hizkuntzaren hautua ere argia izan zen: 1980ko punk mugimenduak gazteleraz abestu zuen batez ere.

Hala ere, salbuespenak egon ziren, eta euskaraz kantatzea erabaki zuten musikariak ere azaldu ziren. Arestian aipatu dira, esaterako, Hertzainak edo Zarama musika taldeak. Bi talde horiek ere eremu erdaldunetan sortu ziren, Gasteizen eta Santurtzin hurrenez hurren. Nola ulertu daiteke hori? Irazuk teoria hau planteatzen du:

“70 eta 80ko hamarkadetan askoz errazagoa izan zen inguru erdaldun urbanoetan rocka euskaraz egitea inguru euskaldunetan baino. Inguru euskaldunetan, herri txikietan alegia, tradizioa muga gogorra izan zen euskarak beretzat har zitzakeen funtzio berrientzat.

Bestelakoan kontra bai, baina euskararen zein harresiren kontra borrokatu behar izan zuen Hertzainak-ek Gasteizen? Eta Zaramak Santurtzin? Horixe da arrazoietako bat, 80ko hamarkadaren lehen erdialdean zergatik izan zuen halako pisua erabat inguru erdaldunetan egindako euskarazko rockak; oso batez besteko handian, inguru erdaldunetan egindako apustuei esker eutsi baitzitzaion euskarazko rockaren bisualizazioari” (Irazu 2017, 179).

Josu Zabala Hertzainak taldearen sortzaileak ere hala onartu zuen 1990. urtean Argia aldizkarian argitaratutako elkarrizketa batean. Garai horretan euskaraz kantatzea gainerakoentzako deserosoa zen zerbait zela, eta hori punk jarreraren parte zela.

“Euskaraz kantatzea erabaki genuen inor ez zelako euskaraz kantatzen ari, eta rockak definizioz deserosoa izan behar duelako, eta euskaraz kantatuta herri honetako arkakuso deseroso hori izan gintezkeelako. Hasieran entzuten gintuen jendeak ez zekien euskaraz eta guk ez genuen lanik hartzen gure abestiak azaltzeko. Gure jarrera oso militantea zen, beharrezko ikusten genuen, eta horrek ezberdindu gintuen rock radikalaren beste taldeengandik. Gasteizen beharrean inguru euskaldun batean jaio bagina, txiki-txiki egingo gintuzten. Beste hainbeste

gertatzen da Zarama taldearekin, euskaraz kantatzen baitute Santurtzin” (in ibid, 180).

Hau da, garai hartan ingurune erdaldun batean “errazagoa” zen punka euskaraz egitea. Inguru erdaldunetako euskaldunberriei esker abestu ahal izan zen, gainera, euskarazko rocka. Zehaztapen hori egiten du kazetariak.

“70eko eta 80ko hamarkadetan, euskara lehen aldiz rockaren zenbait azpigeneroetan barneratu zenean, barneratze hori euskaraz ikasten ari ziren musikarien eskutik etorri zen sarri. Nabarmena da hori punk eta ska estiloen kasuan, molde horretako euskarazko lehen abestiak egin zituzten talde ezagunenak eta erabaki horren atzean egondako izen-abizenak ikustea besterik ez dago: lehen garaiko Hertzainak eta Xabier Montoia; Zarama eta Roberto Moso; Kortatu eta muguruzatarrak” (ibid, 112).

Hiruak euskaldun berriak izan ziren, eta hiruek erabaki zuten euskaraz kantatu ahal izateko lehenbizi hizkuntza hura barneratu behar zutela. Dena den, Hertzainak-ek eta Zaramak hasieratik erabaki zuten euskaraz kantatzea, Kortatuk ez bezala. Gehinbat gazteleraz abesten zuten arren, lehen diskoan bazituzten bi kanta euskaraz zirenak. Hala ere, hizkuntza aldaketa erabatekoa egin zuten euren hirugarren eta estudioko azken diskoan: euskara hutsezkoa izan zen. “1988an Kortatuk egin zuen aldaketa, gazteleratik euskarara igarotzearena, puntu enblematiko bat da” (Del Amo 2016, 76). Gutxitan gertatzen den fenomeno bat izan zela dio Irazuk:

“Adibideak badira, baina kontrako norabidean. Behin gertatu zen eta behar bada ez da berriro gertatuko. Erabaki harrigarri hura garai jakin baten eta pertsona jakin batzuen konpromisoaren fruitu izan zen: gaur egun imajinatzea ere kosta egiten da, erdaraz arrakastaren ez-titan bizi den rock talde bat, zer eta dena arriskuan jarriz euskara hutsez hasteko” (Irazu 2017, 117).

Hautu horrek “berebiziko indarra eman zion euskarazko rockari: gaztelaniatik euskarara salto egindakoak ez ziren edozein, garaiko talderik garrantzitsuena baizik” (ibid, 116). Erabaki hori puntu enblematiko baten gisa aipatzen du Del Amok, eta erreferentziala izan zela ere badio. Izan ere, “euskarazko rocka legitimatu” baitzuen Irungo hirukotearen disko hark, “eta nazioarteko testuinguru batean ere kokatu zuen, gainera” (Del Amo, 2016, 103). Eta momentu horretatik aurrera, Euskal Rock Erradikalean ez ohikoa zen zerbait normalizatu egin zen: euskaraz kantatzea, baita punkean ere.

“1991n disko ekoizpenak ordura arte zeukan bereizgarri linguistikoa irauli zuen, eta euskaraz argitaratutako diskoek gaztelerazkoei aurre hartu zien. Baita punkean ere.

Euskal Rock Erradikalaren garaitik gazteleraz kantatu, eta jardunean jarraitzen duten talde beteranoek ere euskarazko abestiren bat ere txertatzen hasten dira garai horretan” (ibid, 103-104).

Euskararen inguruko ikuspegia zabaldu egiten da, beraz, hamarkada aldatzera doan garai horretan. Tradizioarekin lotuta egotetik, gazteen kultura subordinatuarekin harremana izatera igarotzen da euskara, “kultura erradikal honek ekarritako faktore modernizatzaileari esker” (ibid, 76). Era horretan, gazteen mugimendua imajinario euskaldunera gerturatuko da, eta “euskararen aldeko aldarrikapen politiko-kulturalak erreferente gisa jokatuko du” (ibid). Hau da, Euskal Kantagintza Berrian euskara zentrala izan baldin bazen, 1980ko hamarkada amaieran berriz ere erdigunera itzuli zen (ibid). 1990eko urteetan estilo aniztasunerako saltoa eman zen, eta nabarmen euskaraz kantatu zen, gainera.

2.3. 1990 HAMARKADA. ESTILO ANIZTASUNERAKO SALTOA

1980eko hamarkada Kortaturen erabakiarekin, eta euskararen inguruko ikuspegi berri batekin amaitu baldin bazen, “90eko hamarkada ez zen makalago hasi” (Irazu 2017, 116). Kortaturen errautsetatik sortu zen Negu Gorriak, eta estreinako diskoan aldarrikapen bat ozen bat bota zuten: “Euskalduna naiz eta harro nago!”. Eta haren oihartzunak hamarkada osoan zehar iraun zuen. Baina Negu Gorriak hizkuntza hautuan aldaketa bat ekarri zuen. Hala dio Jacqueline Urla antropologoak:

“Negu Gorriak ez zen modu ozenean aldarrikatzen ari, baizik eta esaten zuen hori euskaraz esaten ari zen. Euskal Rock Erradikaleko talde gutxienetarikoa bat da bere abertzaletasuna hizkuntzaren eremura hedatu zuena. Talde askok euskarazko izenak baitzeuzkaten, eta diskoetako maketazioan euskarazko hitz batzuk ere txertatzen zituzten. Salbuespenak salbuespen, rock erradikalaren mundua ez zen batere euskalduna. (...) Era horretan, rockeroek distantzia bat ezartzen zuten gaztelera ofizialarekiko eta kontrakulturan ezartzen zuten euren burua, baina ez zuten euskara ohiko hizkuntza gisa erabiltzen. Negu Gorriak-ek politikak eta praktikak euskararen inguruko erabilera sinboliko honekin apurtu zuen, eta euskaraz bakarrik abestea erabaki zuen. Eragina izugarria izan zen.

Ez euskaraz kantatzen ez zelako. Lehenagotik Hertzainak, M-ak edo beste kantautore askok hala egin zuten. (...) Baina goraldi betean zegoen talde hura [Kortatu] desegin eta erabat euskalduna izango zen talde berri bat sortzerakoan, garaiko prentsak erabaki politiko bat bezala hartu zuen. Militantzia linguistikoa abertzaletasunarekin eta musika erreibindikatiboaren batu zituen” (Urla 1999)⁷.

Hau da, euskaraz kantatzea kontzientzia politiko bati, eta militantzia linguistiko bati lotu zioten. Areago, Negu Gorriak-ek erakutsitako jarrera horrek autoestimua linguistiko eta kultural bat hedatu zuela dio Urlak (ibid). “Abertzaletasuna hizkuntzaren eremura hedatu zuen”.

Aurreko hamarkadan euskararekiko jarrera positiboa apaldu egin zen, eta muguruzatarrek ildo hori berreskuratu zutela dio, bere aldetik Irazuk:

“60ko hamarkadako ye-ye euskaldunen norabide berean mintzo da Muguruza. Gogora dezagun Yoloak taldekoek Zeruko Argiako kazetariari onartutako ametsa zela “hizkuntza munduan zear agertu eraztea”, eta nola hura txistuaren bidez egin zitekeen, “bainan gitarra elektrikaz ere bai”

Musika estiloa eta tonua garaian garaikoari egokituta, *continuum* bat dago bi belaunaldiek hizkuntzarekiko azaldutako jarreraren” (Irazu 2017, 128-129).

Jarrera horrek izango dituen bereizgarriez ere mintzo da Del Amo. Dioenez, garai horretan hizkuntza, musika estiloa eta politika batuko zituen komunitate kontrakultural bat sortu zen (2016, 272). Euskara, rock gogorra, eta —batez ere— ezker abertzaletarekiko atxikimendua lotu zituen joerari deitu dio komunitate kontrakulturala. Negu Gorriak-ek abiatu zuen batasun hori, eta 1990eko hamarkadan joera hori hedatu egin zen. Lotura horren eraginez, garaiko musika taldeen artean “batez ere euskaraz egin zen” (ibid, 109).

Komunitate kontrakultural hori musika estilo baten eremuan sortu zela dio, rock erradikala deitzen duen estilo batean, hain zuzen. Hamarkada horretan zehar gero eta estilo ere anitzagoak hedatu ziren, baina gehienak rockaren inguruko eremuetakoak: heavya, post-hardcorea edo trash metala bezalako doinuak azaldu ziren euskal musikan. Komunitate kontrakulturean kokatuko dira talde horiek, eta horregatik euskaraz abestu zuten horietako gehienek, Iker Barandiaran kazetariaren hitzetan:

⁷ Saretik ateratako erreferentzia: www.negugorriak.net/pdfs/globalnoise.pdf

“Talde horrek [Negu Gorriak-ek] eragin zuen gehien aurreiritziak apurtzen eta bidea zabaltzen. Baina sortu ziren beste asko ere: hardcorearen eremua ireki zutenak (Bap!!), heavyarekiko aurreiritzietatik gailendu zirenak (Su Ta Gar, Ehun Kilo), rockari soinu txikiaren kolore eta alaitasuna eman ziotenak (Lin Ton Taun), musika zelta euskal folk eta pop-era ekarri zutenak (Sorotan Bele), hardcorea emakume ahots eta rockarekin aberastu zutenak (Kashbad), folka eta rocka hurbileko hitzekin bereganatzea lortu zutenak (Exkixu), hardcore melodikoari euskal labela jarri ziotenak (Deabruak Teilatuetan), trikitia eta popa batuz herrietako plazak gainezka dantzan jartzea lortu zutenak (Tapia eta Leturia, Maixa ta Ixiar, Gozategi...), metalaren (P.L.T.) nahiz post-hardcorearen (Dut) joera berrietara egokitzen asmatu zutenak, pop-rocka eta poesia uztartu zituztenak (Bide Ertzean), eragin alternatibo garaikideekin bat egiten zutenak (Ama Say, Beti Muga), iraganeko eskema itxietatik ateratzeko gai izan ziren bakarlariak (Anari, Jabier Muguruza), hip hop kultura bereganatu zutenak (Selektah Kolektiboa)... eta beste asko” (Barandiaran 2014)⁸.

1980ko lehortearen ostean rock eremuaren barruan aniztasuna azaldu zen taldeen artean, eta hori nabarmendu dute egile denek. Aurreko hamarkadetan bezala, gainera, euskarazko abesti horietan testuinguru politikoari lotutako abestiak egiten jarraituko dute musikariek. Areago, hamarkada honetan asko haziko dira kantuetako aldarrikapenak (Del Amo 2016, 109). Garaiko komunitate kontrakulturalaren beste oinarrietako bat hori izango baita: politika.

“Eduki politikoak gain hartuko dio sozialari, eta abestien %70ak eduki hauek izango ditu: Euskal Herriaren eraikuntzaren aldeko deia, presoaren aldeko aldeko aldarrikapenak, eta euskara” (ibid).

Aldarrikapen politikoek gora egin zutela dio, eta aurreko hamarkadarekin alderatuta berezitasunak daudela dio Del Amok. Euskal Rock Erradikalak ezker abertzalearekin beti harreman gatazkatsua izan zuen —jarrera punk horretatik, alderdi politikoetatik aldentzen saiatu ziren orduko talde asko—, baina rock erradikala deitzen dion “bigarren belaunaldi honetan alienazio ideologiko handiago bat gertatzen da” (ibid, 104).

“Gazteen azpikultura horren leherketa apurka euskal kultura subordinatu batekin hibridatuko da, eta hori kontraboterean egon nahi duen mugimendu politiko batek gidatu nahiko du. Eta hori hamarkada aldaketarekin egonkortu egingo da” (ibid, 105).

Hau da, musika eta jarduera politikoaren arteko muga gehiago lausotuko da komunitate kontrakulturalako taldeen artean. “Atzerriko estilo musikalak ekartzen dira, eta horri ekintza horren politizazioa gehitu behar zaio” (in ibid, 108). Aldarrikapen politikoak garaiko doinu berrietara eramango dituzte musikariek. Bide hori Negu Gorriak-ek zabaldu zuen, eta euren ekarpena mugarritzat jo du Urlak (1999): kanpoko mugimendu politiko eta sozialak Euskal Herrian txertatzen jakin zuelako, bertako ohiturekin uztartuz, eta euskaraz kantatuz.

Estilo anitzetan euskaraz kantatu zen 1990eko hamarkadan eta gainera konpromiso linguistiko batetik egin zedin bultzatu zuten hainbat taldek —Negu Gorriak horien artean nagusiena—. Hizkuntza, musika estiloa eta mezuaren inguruan garatu zen komunitate kontrakulturala horren lekuko izan liteke. Milurteko berriaren atarian euskaraz kantatuko da, eta hurrengo hamarkadan ere ildo hori jarraituko zaio hasiera batean. Baina garai berriek joera berriak ekarriko dituzte berekin. Garaiko erritmo eta doinuetan, gainera.

⁸ Saretik ateratako erreferentzia: www.badok.eus/historia/90eko-hamarkada-oparoa/

2.4. 2000-2010 HAMARKADAK. EUSKALDUNAK INGELESEZ KANTUAN

Mende berria hasi da, eta lehen urteetan euskaraz kantatzeko hautuak bere horretan eutsiko dio. Hamarkada berriak aurreko joeretatik edango du, hasiera batean behintzat. “Aurreko etapetan ez bezala, pluraltasun garaikide bat egongo da estiloei dagokienez, eta rock, punk edo pop joera berrietako taldeak sortuko dira” (ibid, 114). Eta aniztasun horrek euskal azentua izango du gehienbat⁹. Estilo musikalei dagokienez aldaketa iritsiko da: ordura arte euskaraz apenas entzun zen rapa edo elektronika areagotu egingo baita.

Aniztasuna areagotzen den heinean, 2010eko hamarkadan ingelesak eta gaztelerak presentzia gero eta handiagoa hartuko dute. *Entzun!* musika aldizkariak eta *Harrobia Lantzen* euskal musika babesteko ekimenarekin elkarlanean, urteroko diskoen zerrenda argitaratzen hasi ziren 2011. urtean. Euskal Herriko ekoizpen musikala bildu zuten bertan, eta *GureanDo!nu* izena hartu zuen¹⁰. 2010 urteari dagokion zerrendan, Inaxio Esnaola koordinatzaileak editorialean argi esan zuen: “Pasa den urteko argitalpenen gehiengoa erdalduna da, eta euskara bigarren mailan geratu da” (Esnaola 2011, 2).

Hurrengo urteetako zerrendetan gorabeherak izan ziren. 2011ko editorialean zioenez “hizkuntzaren afera ere ez da aldatu (...) gaztelerak eta ingelesak kopuruaren zati handi bat hartu dute” (Harrobia Lantzen 2012, 2). 2012an euskarazkoak gehiago izan ziren, 2013an gaztelerazkoak gailendu ziren, eta 2014 eta 2015ean berriz, euskarazkoak. Dena dela, kezka bat bai sumatzen da mende berriko bigarren hamarkada hasieran. 1990eko hamarkadan euskaraz erruz kantatzen bazen, hautu hori aldatzen hasi baitzen hogeitau urte beranduago.

Gorabehera horiek kontuan hartuta, Del Amok dio euskal izaera kolektiboarekin duen atxikimenduan aldaketa bat dagoela belaunaldi berriko gazteen artean. Horretarako, EHUren identitate kolektiboaren CEIC zentroak 2005. urtean argitaratu zuen ikerketa aipatzen du.

“Euskalduntasunak, hizkuntzari eta euskal kulturari erreferentzia egiten dion atalak, sektore sozial batzuetan zuen esanahi politikoa galdu du. (...) Belaunaldi berrietako kide askorentzako, euskalduntasuna sozialki bermatuta dagoen zerbait da” (in Del Amo 2016, 163).

Alegia, euskalduntasuna Euskal Herrian jaiotze hutsagatik emana dagoen zerbait litzateke, euskaraz hitz egin ala ez. Belaunaldi berrien artean “kultura konpromisoa ez da premiazko zerbait bezala bizitzen. Eta ildo horretan ulertu behar da ingelesez kantatzen duten musika taldeen gorakada” (ibid, 164). Hori ikusita, 1990ko hamarkadan hizkuntzak, politikak eta musika estiloak osatu zuten kontrakulturako komunitateak indarra galduko duela dio ikerlariak.

Gorka Bereziartua kazetariak ere ideia horri eutsiko dio. *GureanDo!nu* zerrendaren editorialean azaldutako kezkatik tiraka, artikulua idatzi zuen, eta bere arabera, eragile askok eragin dute hizkuntza hautu horren aldaketan. Hala ere, “1990eko hamarkadan

⁹ Inaxio Esnaola kazetariak Euskal Herrian argitaratutako diskoen zerrenda egin zuen 2005 eta 2009 urteen artean, baina ez zituen inon argitaratu —ikerketa lan honetarako eskura jarri ditu—. Garai hartako disko ekoizpenari begiratuz gero, lan gehienak euskarazkoak izan ziren. 2007an, ordea, erdia baino gutxiago izan ziren euskaraz.

¹⁰ 2015. urtera arteko disko zerrendak argitaratu zituzten.

ezker abertzalearen inguruan egituratu zen kontrakultura musikalak behera egin izanak” eragina izan duela uste du (Bereziartua 2011)¹¹.

Era berean, kontzientzia linguistikoaren falta sumatzen du Jon Sarasuak egungo musikari askoren artean. Euskaldun petoak direnen artean, batez ere:

“Hamarraldi batzuk atzerago, musika talde batzuk euskaraz kantatuta arrakastaren mugak sentitzeraino iritsi ziren, eta nahiago zuten taldea desegin, muga horiek gainditzeko erdaraz kantatzen hastea baino. Euskaldun berri prekarioak edo ia euskaldunak ziren sarritan. Gaur, ohikoa da haiek baino euskaldun petoagoek gazteleraz edo ingelesez kantatzea, merkatu arrazoiengatik, irismen edo estetika argudioengatik. Beste balio eskala batzuk maneiatzen dira. Eta balio eskala horietan du bere lekua euskalduntasunak” (in Del Amo, 2016, 115).

Ikusienez, iraganean politikak izan zuen pisua galdu egingo da euskal gizartean, eta horren eraginez belaunaldi berriek bestelako hautuak egingo dituzte. Areago, ingelesez kantatzea erabaki duten talde askok, hautu hori egin izan dute “euskal rockean dauden konbentzio nagusien aurrean egindako haustura estetiko gisa” (ibid, 197). Hizkuntzarekiko konpromisoa ez da hain beharrezkoa sentitzen, “erakunde publiko eta hezkuntza sistemak bermatuko duen zerbait dela uste dutelako askok” (ibid). Kasu batzuetan, beraz, hautu horiek iraganean izan zuten konpromiso hori galdu egingo dute.

Egoera horrek badakar azken urteetan musikarien artean asko zabaldu den beste joera bat: hizkuntza hauturik ez dela egiten esatearena. Ordura artekoak ez bezalako arrazoiak emango dituzte musikari batzuek hizkuntza hautua arrazoitzerako garaian. Uxue Alberdik honako hausnarketa hau egin zuen:

“Diskurtso arriskutsuak entzuten ari gara, edo ontzat ematen. Adibidez: ‘Nik ez dut hizkuntza hautatzen, hizkuntzak hautatzen nau ni’ bezalakoak, nire ustez ‘ni ez naiz ez matxista ez feminista’ bezalako logika beretik datoz. Hizkuntzen arteko botere harremanak neutralizatu egiten ditu, eta aukera libre eta xalo bezala aurkezten da zapalkuntza kulturalaren ondoriozko hautua dena” (Alberdi 2018)¹².

Hizkuntza hauturik ez dutela egiten diote abeslari batzuek, eta naturaltasunez egindako hautua izan dela besteek. Del Amok Alberdiren antzeko aipamena du hizkuntza hautua naturaltasunez egiten dela dioten aipamenei:

“Hizkuntzaren aukeraketa naturaltasunez egin dela esatea ohikoa bihurtu da, bereziki euskaraz aritzen direnen artean: taldea gustura sentitzen den hizkuntza bat aukeratzen da, eta ez da hizkuntza mugatzen. Horrekin, kontuak ez dio polemikoa izateari uzten, ez baita normaltasun eta berdintasun egoera bat, areago, horietako bat, euskara, minorizatuta dago” (Del Amo 2016, 200).

Alegia, bi autore horien arabera, hizkuntza minorizatuta dagoela jakin arren, kontzientzia hori gabe egiten dute musikari batzuek euskararen aldeko hautu hori. Orain arte, ordea, euskaraz kantatu izan denean aldagai hori presente egon da behin eta berriro, ikusi den bezala. Horregatik, musikarien artean diskurtso berri bat agertzen hasi dela ikusi dute ikerlariek, eta 1990eko hamarkadako militantzia eta hautu politikoa atzean geratu da kasu batzuetan. Komunitate kontrakulturalak pisua galdu duela, hain justu.

¹¹ Saretik ateratako erreferentzia: www.argia.eus/blogak/boligrafo-gorria/2011/02/02/iaz-disko-asko-eta-erdaraz-zenbait-burutazio-inglesez-kantatzeko-hautuaz/

¹² Saretik ateratako erreferentzia: www.argia.eus/multimedia/solasaldiak/euskalgintza-eta-kulturgintza-aro-berri-baten-aurrean

Dena dela, milurteko berriarekin batera euskaraz kantatzen jarraitu dela ezin da ukatu, baina aukeraketa hori egiteko arrazoiak aldatu egin dira. Eta hori izan daiteke XXI. mendeko belaunaldi berriko musikarien bereizgarri nagusietako bat: argudiaketa aldaketa hori.

EMAITZAK

Teoria soziolinguistikoak hizkuntza hautuari buruz dioena, eta euskal musikariek azken hamarkadetan egin duten aukeraketa aztertu eta gero, ikerketa objektuan zehaztu diren musikariek gaiaren inguruan eman dituzten erantzunak aztertuko dira atal honetan. Ikerketarako metodologia zehaztu denean ezarri diren puntu nagusiak gogora ekarrita aztertuko dira musikariek egindako elkarrizketak. Hau da, atal horietako bakoitzaren inguruan abeslari bakoitzak azaldu duena analizatuko da. Musikariak alfabetoko hurrenkeran aztertuko dira.

Metodologiaren atalean zehaztu dira ikerketarako zein puntu aztertuko den. Hau litzateke eskema:

- MUSIKARIA, MUSIKA ETA EUSKARA
 - Ingurune soziolinguistikoa
 - Norbanakoak euskararekiko duen harremana
 - Hizkuntzaren egoeraren kontzientzia
 - Euskarazko musikaren eragina
- HIZKUNTZA HAUTUAREN ARRAZOIAK
 - Zergatik kantatu euskaraz?
 - Euskal abeslariaren definizioa
 - Hizkuntza hautua: arrakasta eta irismena
 - Hizkuntza hautuaren kontzientzia
- EUSKARAREN EGOERA MUSIKAN
 - Aurreko belaunaldien eragina musikariaren hizkuntza hautuan

Musikariak euskararekin duen harremana eta bere testuinguru soziolinguistikoa zein den zehaztuko da lehenbizi, ondoren hizkuntza hautua egiterakoan emango dituen arrazoiak eskaintzeko. Marko teorikoan aipatu den bezala, hizkuntza hautuaren zergatia aztertzerakoan, kanpoko faktoreen eragina ikertu baino, barne eragileetan oinarrituko da ikerketa lana. Baina hala ere, norberaren testuinguru soziolinguistikoa zein den kontuan hartuko da. Horregatik eskainiko dira emaitzak hurrenkera horretan.

Azkenik, euskal musikaren baitan euskarak duen egoeraren inguruan musikari bakoitzak duen iritzia ere kontuan hartuko da. Azken batean, iraganeko taldeek egindako hizkuntza hautuak eurei zenbateraino eragin dien jakitea garrantzitsua izango da. Beste aldagai garrantzitsu bat delako hori ere.

1. IZARO ANDRES (IZARO)

1.1. MUSIKARIA, MUSIKA ETA EUSKARA

Mallabitarra (Bizkaia) da jaiotzez Izaro Andres musikaria. Hau da, eremu euskaldun batekoa da sortzez. Eustat Euskal Estatistika erakundearen datuen arabera, 2016an biztanleen %70,3 euskaldunak ziren, %14,9 ia euskaldunak, eta %14,7 erdaldunak. Hori Mallabiarri dagokionez, baina azken urteetan Donostian bizi da musikaria. Iturri

beraren arabera, euskaldunak ziren bertako biztanleen %46, ia euskaldunak %19,7, eta %34 erdaldunak.

Andresi egindako elkarrizketan ere baieztatu du bere eremu soziolinguistikoa euskalduna dela. "Etxean eta kalean" ikasi du euskaraz, eta bere gertuko eremuko elkarrizketak zein hizkuntzetan egiten dituen galdetzerakoan hau erantzun du:

"Gehienbat euskalduna, aitarekin gaztelaniaz aritzen naiz. Euskal Herritik kanpoko lagun asko dauzkat, atzerritarrak ere bai, kanpoan bizi izan naizelako, eta haiekin nagoenean nire eremua guztiz ezberdina da".

Egunerokotasunean euskaraz bizi dela dio, eta euskara zein eremutan erabiltzen duen galdetzean, testuinguruak zehaztu ditu: "Nire ahizparekin, amarekin, kuadrillakoekin, nire bandarekin, bikotearekin, Donostiako lagun gehienekin, kontzertuetan...".

Gainerako taldekideekin ere euskara erabiltzen du kasu askotan, nahiz eta horietako bat euskaraz ikasten ari den.

"Hiru euskaldunak dira, eta gure artean beti euskaraz mintzo gara. Bat kataluniarra da, eta euskaraz ikasten ari da. Normalean euskaraz mintzatzen gara, baina gauzak azkar egin behar direnean gaztelaniaz egiten diogu berari".

Andresen testuinguru soziolinguistikoa eta emandako erantzunak aztertuz gero, egunerokotasunean eta taldekideekin euskaraz aritzen da kasurik gehienetan. Beste modu batean esanda, euskara bere egunerokotasunean presente dagoela esan liteke.

Euskararen aldeko testuinguru batean bizi denez, eremu horretan hizkuntzaren egoera zein den galdetzean, baikor azaldu da. "Nire inguruan egoera nahiko itxaropentsua da, inguru euskaldunean bizi naiz". Dioenez, gainera, azken urteetan euskarak "asko irabazi du, baina asko dauka oraindik irabazteko". Horregatik, euskara minorizatuta dagoenaren inguruko kontzientzia badaukala esan daiteke. Areago, euskararen egoera orokorrari buruz galdetzean hala dio:

"Orokorrean, falta zaigu euskara kaleetara ateratzea, gazteek erabiltzeko bezalako hizkuntza dela ikustaraztea. Nerabeek askotan gaztelania erabiltzen dute, beraien 'nerabe linguairako' egokiagoa ikusten dutelako. Euskaraz falta zaizkigu sexuaz aritzeko baliabideak, hizkuntzaren alde ganberroena falta da, uste dut horregatik egiten dutela nerabeek alde euskaratik. Gerora itzuli nahi izaten dute, esfortzu handiz eta akaso ez hain era naturalean".

Gazteen euskararen erabileraren inguruan kezkatuta azaldu da musikaria, eta gai batzuez hitz egiteko euskarak duen baliabide falta nabarmendu du. Egindako adierazpenen arabera, beraz, euskararekiko atxikimendua izan baduela ulertu behar da, eta baita egoeraren inguruko kezka duela. Euskararen egungo egoeraren inguruko kontzientzia ere badauka Andresek, eta ingurune euskaldun batean bizi baldin bada ere, testuinguru horretatik kanpo hizkuntza nola dagoen badaki. Edozein modutan, baikorra ere bada euskararen etorkizunarekin, eta ikuspegi hori baldin badauka, eremu euskaldun batean bizitzeak bere eragina izango du zalantzarik gabe. Hala azaldu du berak, gainera.

Musikari gisa, bestalde, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez kantatu izan du. Entzule bezala, ordea, hizkuntza gehiagotako musika entzun duela dio. Euskaraz, ingelesez, gazteleraz, frantsesez, katalanez edo norvegieraz kantatzen duten taldeak entzun izan ditu, besteak beste. Zein estiloko musika gustatu zaion galdetzean, hala dio: "Ez naiz estilo etiketatze zalea egia esan, ez dut uste asmatzen dugunik. Baina esango nuke gehienbat popa, folka, countrya, indiea, baladak, eta folklore latinoamerikarra".

Gustukoak izan dituen taldeak ere zerrendatu ditu, nerabearokoak eta beranduagokoak:

"Asko izan ditut, aldatzen joan direnak ni heldu ahala. Nerabearora heldu baino lehen Hannah Montana eta High School Musical-eko aktore/aktoriesak. Nerabearoan Taylor Swift, KenZazpi, Gatibu, The Corrs, Vanessa Hudgnes, The Cramberries, Simple Plan, The Fray, Whitney Houston, Aretha Franklin, Zaz, Pedro Guerra, Dolly Parton... Eta hortik gaur egunera: Norah Jones, Maika Makovski, Zahara, Adele, Pedro Pastor, Damien Rice, Billie Eilish, Pedro Guerra, Miley Cyrus, Maria Arnal i Marcel Bagés, Novo Amor, Tom Odell, Aurora, Ruth B..."

Entzule bezala, batez ere nazioarteko musika kontsumitzen duela esan daiteke, eta heltzen joan ahala euskarazko erreferentzia musikalak gutxitu egin dira berak emandako zerrenda horretan. Elkarriketan zehar, hala ere, aipatu du Mikel Urdangarinen jarraitzaile ere badela. Dena den, nerabearoan euskarazko bi talde aipatzen baditu, egungo erreferenteen artean ez du bat bera ere txertatu.

Sortzaile horiek, gainera, bere ondorengo ibilbide artistikoan eragin handia izan dutela nabarmendu du: "Uste dut garrantzia handia izan dutela eta daukatela eta izango dutela, bai horiek bai etorriko direnak. Gure banku sonoroa eraikitzen goaz horrela". Entzuten duen musikak, beraz, bere sorkuntzan eragingo duela dio.

1.2. HIZKUNTZA HAUTUAREN ARRAZOIAK

Hizkuntza ohitura musikaren eremura eramanez gero, Andresek dio ez duela "inoiz" hauturik egin. Zein hizkuntzatan kantatu nola erabaki duen galdetzean, hau izan da erantzuna: "Ez nuen erabaki, ez dut inoiz erabaki. Kantu bakoitzak, melodia bakoitzak hizkuntza bat ala beste eskatzen dit eta beti uzten diot libre ateratzen". Beste era batera esanda, hizkuntza bakoitzak eskaintzen dion melodiari atxiki dio aukeraketa. Hori da bere hautuaren arrazoi nagusia: ez duela erabakirik hartzen.

"Niretzat hizkuntza ez da hautu kontziente/politiko bat, niretzat hizkuntza hautu artistikoa da, gitarra akustikoa edo elektrikoa aukeratzea bezala, kantuari hobeto gelditzen zaiona. Euskaraz dakidanetik abesten dut euskaraz, dakizkidan beste hizkuntzetan bezalaxe, berdin. Helbururik gabe, hauturik gabe, arrazoirik gabe. Sormenak dakarren hizkuntzari atxiki eta listo".

Hautu artistikoa nabarmendu du, erabaki linguistikoen gainera. Hizkuntza bakoitzak duen fonetika nabarmenduz. Euskaraz bezala, gazteleraz eta ingelesez ere kantatu izan du Andresek musikari gisa egin duen ibilbidean¹³, eta abestu duen hizkuntzetan beti berdin sentitu dela dio: "[Hizkuntza] guztietan sentitzen naiz berdin". Hitz horietatik, beraz, ulertu behar da kantatzerako garaian ez daukala hizkuntzekiko atxikimendu berezirik, ez dela batarekin edo bestearekin gehiago identifikatzen. Azken batean, denetan berdin sentitzen baita.

Hizkuntza denetan berdin sentitu arren, euskal abeslari gisa identifikatzen ote den galdetzean honakoa erantzun du: "Esango nuke". Baina ildo horretan sakondu aurretik, jakin behar da zer den berarentzat euskal abeslari izatea: "Abeslaria izatea eta euskalduna izatea". Hau da, euskaraz kantatzeak ez du musikaria euskal abeslari egiten. Identifikazio marka hori zeri atxikitzen dion zehaztu du ondoren:

"Zailak dira galdera hauek, akaso bihar ezberdin pentsatuko dut, baina gaur: euskal abeslaria, euskalduna eta abeslaria, berdin du zein hizkuntzatan abesten duen, akaso ez du hizkuntzarik erabiltzen blueseko inprobisatzaileak bezala. Gero,

¹³ 2016an argitaratu zuen lehen diskoa Izarok, eta orduetik hiru lan kaleratu ditu. Denetara 28 kantu, eta horietatik hamalau dira euskaraz, zortzi gazteleraz, eta sei ingelesez.

euskaraz abesten duen abeslaria, izan daiteke ala ez euskalduna eta euskaraz abestu”.

Euskaraz kantatzea, gainera, ez dio izaera bati lotzen: “Erabaki politikoa baldin bada bai, bestela ez”. Zentzu horretan, berak hizkuntza hautua kontzientzia politiko edo linguistiko batetik egin ez duenez, bere kasuan ulertu behar da euskaraz kantatzea ez duela izaera baten atxikimenduan jartzen. Hautu artistiko batean baizik.

Euskaraz edo beste hizkuntzaren batean kantatzeak zer eman eta kentzen dion galdetutakoan, musikariak emandako erantzuna aurreko ildo beretik doala esan daiteke. Aldagai fonetikoak aipatzen baitu: “Hizkuntza bakoitzak bere melodia ematen dizu, bere hitz-jokoak, bere hitzak, bere ahoskatzeko era”. Elkarrizketan ildo hori birritan nabarmendu du:

“Ez dut uste ezer eman ez kentzen didanik, baina zerbait esatekotan: eman, niri asko gustatzen zait *rr*-ak fuerte ahoskatzea euskaraz, ahotsarekin azpimarratuko banu bezala. Eta kendu: akaso guztizko komunikazioa euskaraz ez dakitenekin, baina hizkuntza guztiekin pasatzen da hori.

Bere adierazpenak ikusita, hizkuntza batean edo bestean kantatzeak ez dio ezer berezirik ematen edo kentzen, ez bada ahoskatzeko modua, edo hitz joko ezberdinak egiteko aukera. Eta dioen hori ulergarria izan daiteke hizkuntza hauturik egiten ez duen heinean, edo egiten duen hautua artistiko gisa definitzen duenean.

Dioenez, gainera, bere zaletuek badakite ez duela hizkuntza hauturik egiten. Euskal Herrian dauzka jarraitzaile gehien Andresek, nahiz eta Espainian edo Mexikon ere entzuleak badituen. Horientzako abesten duela dio, baina kasu horretan ere hizkuntza ez du muga bezala ikusten: “Uste dut nire jarraitzaileak puntu batera heldu direla, non, berdin entzuten dituzten hizkuntza ezberdinak”. Musika bera delako hizkuntza nagusia:

“Errazagoa da beti entzuleak ulertzen duen hizkuntzan abestea, baina tira, musika bera da hizkuntza nagusia, eta beste guztia bigarren plano batean geratzen da. Atzerrian eta hemen berdin aritzen naiz: hiru hizkuntzetan. Hemendik kanpo sekula ez didate hizkuntzei buruzko galderarik egin, kuriosoa da”.

Hiru eleduneko kantutegiarekin atera da beti oholtzara Andres, eta euskaraz kantatzeak ez dio lortu duen sona edo arrakasta hori mugatu. Hala sentitzen du berak. Dena den, euskaraz kantatu izanak euskaldunen artean begirunea lortzen lagundu ahal izan diola uste du.

Ildo beretik, jakitun da baita ere, euskaraz kantatzearen eraginez iritsi ahal izan dela entzule euskaldunengana. Maila berean, gaztelera edo ingelesez kantatu izanagatik ere Mexikoko entzuleekin konektatu ahal izan duela uste du.

“Euskaraz abesteak nik uste lekua egin didala hemen. Jendeak nahi du musika berria eta musika asko euskaraz, hori oso aberasgarria delako, eta nik horretan nire apurra eskaini dut, eta eskaintzen jarraituko dut. Eta hemendik kanpora begira, uste dut ingelesez edo gaztelaniaz kantatzeak ahalbidetu didala adibidez Mexikorekin konektatzea. Baina gero berdin gozatzen dituzte ulertzen ez dituzten abestiak ere”.

Sonari buruz ari denean, jendearen artean lortutako fama edo ezagutzari egiten dio erreferentzia. Arrakasta beste kontu bat baita Andresentzat: “Egiten duzun horrekin duin bizitzea lortzea da”. Horregatik, euskaraz kantatzeak arrakasta mugatu ote dion galdetzean, hala erantzun du:

“Ez bereziki euskaraz kantatzeagatik, baina bai hemen lan egiteagatik. Kultura oso gaizki zaindua dago hemen, musikarion eta sortzaileon lan baldintzak ez dira duinak eta oso gogorra da lan hau. Inguruak ez duelako lana kontsideratzen, eta bada”.

Alegia, arrakastaz hitz egiten duenean, lan baldintza duinak izateari ematen dio garrantzia, eta sorkuntzaren bidez lortu dezakeen sonari. Horregatik, hizkuntzak arrakasta bermatu edo mugatu beharrean, musika industriak Euskal Herrian duen gabezia azpimarratu du abeslariak.

“Esan bezala hemengo musika industrian ezinezkoa da arrakasta izatea, oso zaila izango delako baldintza duinetan lan egitea, ez dago legedirik musika erregulatzen duenik, ez dago estatuturik, ez baja eskubiderik, ez ezer”.

Horregatik, balizko hizkuntza hautua —dioenez berak ez baitu hauturik egin— ez litzateke arrakasta edo sonari lotua egongo. Andresen erantzunen arabera, hizkuntza batean ala bestean abesteko erabakia artistikoa izan da, unean uneko melodiei hobekien egokitzen zaizkion doinu fonetikoaren arabera egindako hautua. Hau da, kantuari hobekien doakion hizkuntza aukeratzen duela azaldu du behin eta berriro elkarrizketan zehar. Esan daiteke, beraz, lehentasuna musikari ematen diola, eta hizkuntzak berak eduki dezakeen musikaltasuna baliatzen duela aukeraketa egiteko. Euskaraz kantatzea, gainera, ez dio izaera bati lotzen, eta hizkuntza horretan kantatzerakoan ez du atxikimendutik egiten.

Deigarria izan liteke puntu hori, azken batean euskararen egungo egoeraren kontzientzia badaukalako musikariak, eta bere egoerarekin kezka azaldu du arestian. Horregatik, hizkuntza hauturik “inoiz” ez duela egin esaten duenean, aurretik erakutsitako kontzientzia horrekin kontrastea dagoela ikusi daiteke.

Gainera, bere entzuleak hautu artistiko horren jakitun direla dio, eta berdin diela zein hizkuntzatan kantatzen duen Andresek. Aipatu duenez, musika bera delako hizkuntza nagusia. Hala ere, euskaraz kantatu izana euskal entzuleengana iristeko berme bat izan dela onartzen du, eta berdin Mexikora iristeko gazteleraz edo ingelesez abestu izana. Hizkuntzak, beraz, entzuleengana iristeko berme bat eskaintzen diela jakitun da, eta horren kontzientzia ere badauka. Baina behin publiko horietara iritsita, hizkuntzak ez luke garrantzirik izango, bere arabera hautu artistiko bat litzatekeelako.

Dena den, entzuleak izateari ez dio arrakasta deitzen, musikari bezala lan baldintza duinak eskuratzeari baizik. Eta zentzu horretan, euskaraz kantatzeak ez du arrakasta hori bermatzen, ezta beste hizkuntza batean kantatzeak ere. Argi azaldu baitu Euskal Herriko gaur egungo egoeran ezinezkoa dela musikaren industrian arrakastarik lortzea. Hau da, baldintza duinak lortzea.

1.3. EUSKARAREN EGOERA MUSIKAN

Musikaren eremuan euskarak duen presentziaren inguruan, Andresek uste du “oro har gehiago kantatzen dela euskaraz, baina proportzioan gutxiago”. Izan ere, “jendea eroso sentitzen da euskaraz abesten, konplexu asko kendu ditugu eta erakargarria da euskaraz musika egitea”. Hizkuntza bati erakargarritasuna onartzen badio ere, ez du hizkuntza bati ala besteari lehentasunik ematen.

Hala ere, euskaraz egiten den musikak badu hutsune bat, abeslariak dioenez: “Askotan euskara hutsean egiteagatik produktua ona dela kontsideratzen dugu, eta hizkuntzak ez dauka kalitate musikalean inongo eraginik”. Alegia, Andresen arabera, entzule askori euskarazko musika gustatzen zaie euskaraz kantatze hutsagatik. Eta

hori euskal musikarentzako kaltegarria izan daitekeela dio, hizkuntzak ez duelako kalitatea bermatzen.

Aurretik euskaraz kantatzea erabaki duten zein musikari ezagutzen duen galdetzean, hau erantzun du:

“Ba ez dakit, ez dut inoiz beraiekin hitz egin ea erabakia izan den edo ez. Badakit Anarik hala erabaki zuela, baita Fermin Muguruzak ere, baina gainontzekoek ez dakit zergatik egiten duten horrela, akaso naturala zaie besterik gabe”.

Hautu kontzientea egin duten bi musikariren kasua jarri du Andresek, eta erabaki horiek berak euskaraz kantatu ahal izateko momentuan eragina izan duela dio: “Uste dut libre egin nautela erabaki hori hartu beharrik ez izateko eta libreki sortu, musika egite hutsagatik”. Hau da, berak hizkuntza hauturik ez badu egiten, hori bada aurreko belaunaldiek gisa horretako erabaki bat hartu zutelako. Horien eraginez sortzen baitu berak musika inongo hizkuntzarik hautatu gabe, eta fonetikari lotuta. Ildo horretan dio iraganeko musikariek libre egin dutela bera gaur egun.

Deigarria izan daiteke puntu hori ere. Arestian ere aipatu baita gaur egungo gazteen hizkuntza erabilerak kezkatzen duela Andres. Nerabeen lenguirako euskarazko baliabideak falta direla esan baitu, erreferentziak falta zaizkiela, azken batean. Berak euskaraz “libreki” kantatzen baldin badu, hori ere bada aurreko belaunaldietako musikariek hala egitea erabaki zutelako. Hau da, erreferentzialtasun horiek izan dezaketen garrantziaren jakitun bada. Beraz, entzuleen artean sona duela kontziente den heinean, eta gazteen euskararen erabilerak kezkatzen duen heinean, hizkuntzaren hautu kontziente bat ez egiteak kontraste bat sortzen duela esan daiteke.

Hala ere, egia ere bada bere sorkuntzaren erdia euskarazkoa dela, eta euskaraz kantatzeko erabakia kontzienteki egiten ez badu ere, erreferentzialtasun horrek berdin funtzionatuko luke egungo gazteen artean.

2. JOSUNE ARAKISTAIN (HUNTZA)

2.1. MUSIKARIA, MUSIKA ETA EUSKARA

Josune Arakistain ingurune euskaldun batean jaioa da. Debako (Gipuzkoa) Lastur auzokoa da, eta Eustatek auzo horretako datu soziolinguistikorik eskaintzen ez duenez, udalerrikoak baliatuko dira musikariaren testuingurua zein den ikusteko. Deba herri euskalduna da zenbakiei dagokienez: biztanleen %76,9 euskaldunak ziren 2016. urtean, %8,6 ia euskaldunak, eta %14,4 erdaldunak. Datuez aparte, Arakistainek dio bere ingurunea euskalduna dela:

“Bai, oso euskalduna. Elgoibarrera joaten ginenean ikasketa arrazoiengatik, akaso gaztelera gehiago entzuten da han, baita Deban bertan ere. Txikitan gaizki pasatzen nuen, gazteleraz nahiko egiten baita Deban, eta Elgoibarren ere antzera. Azken batean, Itziartik gatoz gu, eta euskaraz egiten da hemen”.

Ingurune euskaldun bat bakarrik ez, egunerokotasunean ere euskaraz bizi dela dio musikariak:

“Nire familiako kide guztiekin egiten dut euskaraz, nire kuadrillako denekin, ikasketa munduan dena euskaraz egin dut, eta lagunekin ere unibertsitatean euskaraz hitz egin dut beti. Orain hasi naiz erdaraz egiten apur bat gehiago, estatura kontzertuak ematera goazenean. Bestela oro har bizitza euskaraz egiten dut”.

Euskara etxean jaso zuen Arakistainek, eta testuinguru denetan hitz egiten du hizkuntza horretan. Bizi duen testuinguru soziolinguistikoa positiboa da euskararekiko, eta horregatik, Arakistainen ustez bere ingurunean euskara osasuntsu dago.

“Nire inguruko esparruan euskara osasuntsu dago. Itziarren oso ondo dago. Orain Deban ibili naiz irakaskuntzako praktikak egiten, eta han ere oso ondo, inori ez baitiot atentzioa deitu behar izan. Gero beste errealitate bat izango da ikasle horiek klasetik ateratzen direnean, eta ikusi beharko da patioan zein hizkuntza erabiltzen duten, baina nik ikusi dudanagatik osasuntsu dago egoera ikasgelako eremuan”.

Behin testuinguru soziolinguistikoa horretatik aterata, euskararen egoera orokorraren inguruko jakin-mina daukala dio abeslariak. Ez baitaki eremu bakoitzean zein den euskararen egoera.

“Euskal Herriari buruz hitz egitea zaila da, zonaka doala esango bainuke. Musikalki apur bat oxigenatzen ari dela esango nuke. Bagaude euskaraz kantatzen dugun taldeak, baina kanpotik datorren musika dena erdaraz da, gazteleraz edo ingelesez, eta gazteek asko kontsumitzen dute hori. *Influencer* askok ere euskaraz dakite, baina gero bideoak igotzen dituztenean *youtube*-ra erdaraz izaten dira. Orduan, ez naiz ausartzen esatera euskararen egoera nolakoa den.

Kezka badaukat hala ere. Tira, kezka baino gehiago jakin-mina esango nuke, jakin nahiko nukeelako nola dagoen egoera benetan. Hemengo errealitatea baitakit, baina Donostia edo Bilbo bateko egoera nola dagoen ez dakit”.

Bere ingurunean euskararen egoera osasuntsua dela kontziente da musikaria, eta jakitun da baita ere hori ez dela horrela euskal geografia guztian. Badaki zailtasunak egon badaudela, eta egoerarekin kezkatuta azaldu den arren, ez dauka errealitate orokorraren ezagutzarik.

Sortu izan duen musika guztia ere euskaraz sortu izan du beti, eta Huntzako bere taldekideekin dena euskaraz egiten duela dio —denak dira euskaldunak—. Dena den, entzuten duen musika ez da euskarazkoa soilik izan. Ingelesezko eta gaztelerazko taldeak ere entzun izan dituela dio.

“Nire musika gustua ez da trikitia izan, eta orain ere ez da horrela. Entzuten dut, eta musika estilo bezala asko gustatzen zait, baina musika komertziala gustatzen zait. Irratian jartzen duten kanta denak ez, baina asko gustatzen zaizkit, edo nik nire gisara bilatu ditudan kantak ere bai. Estilo ezberdinak entzuten ditut, denetatik. Kantua gustatzen bazait nahikoa da, ez naiz estilo batean markatzen”.

Denetarik entzuten duela esan du, baina estilo batzuetako doinuak ditu gogokoen: “Trikitia batetik, baina baita folka ere. Irlanda edo Eskoziako folk estilo hori entzun izan dut. Horrez gain, teknoa edo musika elektronikoa asko gustatzen zait, eta baita popa edo rocka ere”. Dioenez, ez da album osoa entzutekoa, abestiak banaka kontsumitzen ditu gehiago. Horiek ondorengo bere sorkuntzan eragina izan ote duten ala ez galdetzean, hala dio:

“Ni abestiak sortzen zerotik hasi nintzen, ezertan oinarritu gabe. Orduan, nik uste, entzun dudana dena nire subkontzientean egongo dela, eta horren arabera hasi naizela sortzen. Trikitiarekin sortzen dut, eta baliteke Xabi Solanok beste edonork baino eragin handiagoa izatea nigan, baina sortzen ari nintzen une horretan kontziente nintzen Xabirengan fijatuko nintzela, edo trikitiko kantak entzungo nituela. Baina igual erritmo bat elektronikako abesti batetik hartu dut, eta horren gainean hasi naiz sortzen trikitiarekin”.

Alegia, trikitizalea baden arren, musika garaikidea eta irratian jartzen duten eskaintza du gustuko, eta horien eraginez egin du bere sorkuntza. Dena den, Xabi Solano behin

eta berriro aipatu izan du erreferentetzat, eta bere eragina handia izan dela ondorioztatuko da. Hortik ulertu behar da, beraz, euskarazko erreferentziek pisua daukatela beregan.

2.2. HIZKUNTZA HAUTUAREN ARRAZOIAK

Testuinguru euskaldunean bizi da Arakistain, eta zein hizkuntzatan abestu hautatzerako garaian, berak ere ez du erabakirik hartu. Hala dio behintzat. Beti abestu izan duela euskaraz, eta naturaltasunez egin duen hautu bat izan dela:

“Ez zen izan erabaki bat, naturaltasun guztiarekin atera zaidan zerbait izan da, pentsatu gabe hasi bainintzen euskaraz, nire bizitzako beste alor askotan bezala. Sortzen hasi nintzenean ez nuen pentsatzen beste modu batean izan zitekeenik ere. Gainera, ez naiz kontsideratzen gazteleraz lexiko aberatsa duen pertsona bat, eta erosoago sentitzen nintzen hizkuntzan hasi nintzen sortzen”.

Erosotasunari eman dio lehenetasuna Arakistainek euskaraz kantatzea hautatzerakoan. Gainera, kantuei musikaltasuna emateko bere ibilbidean errimak baliatu izan dituela dio, eta askotan bertsoak baliatu izan ditu abestiei hitzak jartzeko: “Bertsoak erdaraz imajinatzea zaila egiten zait. Orduan bertsolaritzatik eta nire egunerokotasunarekin lotuta, harreman zuzena zeukan euskaraz kantatzeak”. Bertsozalea dela onartu baitu, eta bertsoak euskaraz diren heinean euskaraz kantatzen du. Berriz aipatu du naturaltasunez hartutako erabaki izan dela: “Natural atera zitzaidan. Inork ez zidan planteatu ere egin gazteleraz kantatuko ote nuen”.

Bere kasuan, gainera, instrumentuak ere eragina izan dezake hizkuntza hautatzerako garaian. Trikitiarekin euskara ez den beste hizkuntza batean kantatzea arrotza izango bailitzateke testuinguru batzuetan.

“Nire etxean trikitiari letraren bat erdaraz sartuz gero, hori nire aitarentzat bekatua litzateke. Imajinatu testuinguru tradizional horretan zer litzatekeen hori. Xabi Solanok kanta batzuk erdaraz egin zituen jaso zituen kritikak ikusi besterik ez dago. Euskal artista askok euskaraz egin ondoren abesti bat gazteleraz egiten badute kritikatuak izan ohi dira, are gehiago trikitiarekin lotuta badago”.

Trikitia, beraz, hizkuntza bati lotua egon daitekeela uste du Arakistainek.

“Nik esango nuke baietz, euskal tradiziara lotuta baitoa oraindik. Badago jende asko trikitia duen talde bat erdaraz kantatzen ikusten duenean kritikatzan duena. Gazteak ez seguruena, baina adin batetik gorakoak seguru baietz”.

Trikitia euskarari lotzen diolako batetik, eta kantuak trikitiarekin sortzen hasi zelako bestetik, bi aldagai horiek eragina eduki dezakete euskaraz kantatzeko erabakia “natural” hartu duela esaterakoan. Horrela izan litekeela dio.

Dena dela, euskaraz kantatzen hasi baldin bazen, bere inguruko pertsonengana iristeko izan dela azaldu du.

“Nire helburua izan da nire ingurukoengana iristea. Nik hasiera batean sortzen nuenean pisukideekin partekatzen nituen abestiak, eta gustatzen zitzaidan ingurukoek ere ulertu ahal izatea. Ingelesezt kantatzen ariko banintz, ez dut uste berdin iritsiko nintzenik ingurukoak euskaldunak izanda. Ez dakit zer geratuko zen biologia Bilbon egin beharrean Sevillan egin izan banu. Nik uste dut abestiren batzuk erdaraz aterako zirela, batez ere abestiak ingurukoekin partekatzea gustatzen zaidalako, eta ez balute euskaraz ulertuko frustragarria izango zen euskaraz sortu eta pisukideek ezer ere ez ulertzea”.

Edozein modutan, euskaraz kantatzeko hautua pentsatu gabe egindako zerbait izan zela dio. Hori horrela da baita ere, bere ingurua euskalduna delako, eta inguruko pertsonengana iristeko ez duelako trabarik sentitu euskaraz kantatu izan duenean.

“Musikari denoi gustatzen zaigu jendearengana iristea, eta zure ingurunea euskalduna bada eta bilatzen baduzu jendearengana iristea, kasu honetan euskaraz abesten duzu. Nik garbi nuen inguruko publikora iritsi nahi nuela. Tira, ez da hainbeste hautu bat izan, ez baitaukat beste ingurunerik”.

Kantatzerakoan hizkuntza hauturik ez duela egin dio berriz ere. Erabaki hori egin ez arren, euskara hutsez kantatzen du, eta horregatik euskal abeslari sentitzen den galdetuta, “euskaldun bezala bai” sentitzen da horrela, baina abeslari bezala zalantza egiten du: “Nire burua muskarizat daukat”. Dena den, euskal musikari gisa identifikatzen da. Baina bere ustez zer da euskal abeslaria izatea? Hala dio:

“Euskal abeslaria ere bada euskaraz kantatu ez arren euskalduna dena... Nire ustez bai. Euskalduna deitzen diot egunerokotasunean euskara bere bizitzan presente daukan pertsonari. Abesterakoan bere hautua ingelesez kantatzea izan baldin bada, musika esparruan ez du euskara erabiliko, baina beste eremuetan erabiltzen badu, euskalduna kontsideratzen dut. Bai behintzat berak bere burua hala identifikatzen badu. Beste gauza bat da berak ingelesez kantatzea eta bere egunerokotasuna gazteleraz egitea. Ba hori ez dut euskalduna kontsideratzen”.

Euskaraz kantatzea, gainera, izaera bati ere lotzen dio: “Abeslari euskalduna bada identitatea duena”. Alegia, euskaraz kantatzen denean hizkuntzarekiko atxikimendu batetik egiten dela dio, eta hortik ulertu behar da berak ere identifikazio horretatik ere sortzen dituela bere kantuak euskaraz.

Euskararen egungo egoeraren inguruko kezka ere badauka, gainera Arakistainek, baina bere kantuetan ez du sekula euskararen erabilera aldarrikatzeko beharrik sentitu. Bere ustez, euskaraz kantatzeak berak hizkuntzaren alde gehiago egiten du.

“Euskararen gaiak zer pentsatu eman izan dit, baina inoiz ez dut hori abesti batera eramanean. Ez daukat abestirik letren bidez euskara bultzatzeko eskatzen duena. Nire ustez hori abestia euskaraz sortzen duzunean egiten duzu. (...) Nahiago dut buelta bat eman, eta euskara letretan bultzatu beharrean, euskaraz kantatzea. Nik uste hori eraginkorragoa dela: jendeak entzun dezala euskarazko abesti bat, eta ez euskara bultzatzen duen abesti bat”.

Euskaraz abestuta hizkuntzaren alde gehiago egiten dela sinesten baitu, eta adierazpen horietatik ondorioztatu daiteke bere alde egiteko ere hautatu duela euskaraz kantatzea.

Huntzak euskaraz kantatu izanak eragina izan du euskal publikoarengana gerturatzeko. “Euskal publikoaren aurrean kantatu behar baduzu berme bat da, eta errazago iristen zara eurengana”. Dioenez, erdaraz kantatuz gero estatuan arrakasta handiagoa lortu ahalko zuten, baina era berean, Euskal Herrian ez zuten halako sonarik lortuko. “Hemengo oihartzunik gabe ez ginatkeke iritsiko iritsi garen lekuetara. Horregatik uste dut berme hori eman digula hizkuntzak”.

“Gure kasuan, bereizgarritasuna horrek ematen digu. Kanpora joaten garenean badakite euskaldunak garela, eta hori ere jendeak miresten du, euskaraz kantatzea. Nik Huntza ez dut imajinatzen ingelesez, ez zuen izango identifikazio hori. Azken batean, Eskoziara joan eta euskaraz kantatzearen bereizgarri hori badaukagu”.

Alegia, atzerrira salto egin ahal izateko taldearen sorterrian arrakasta lortu izana ezinbestekoa izan dela uste du abeslariak. Hori gabe urrats hori ematea zaila izango

zela dio. Eta horretarako euskaraz abesteak bere garrantzia eduki du. Areago, aipu horretan dioenez, norberaren izaerarekin identifikatzen du euskaraz kantatzeko erabakia. Beste hizkuntzaren batean kantatuko balu ez baitzuen harekiko euskaraz sentitzen duen atxikimendurik sentituko.

Dena den, euskaraz kantatzeko erabakia ez doa arrakasta helburu bati lotua.

“Hain naturala izan da sortzeko prozesua, arrakastarako helburua euskarari ematea ez dela gure kasua. *Aldapan gora* abestiak eman digu arrakasta, eta hor melodiak eman dio bultzada, tonu igoera horrek. Melodiari emango nioke nik arrakasta”.

Arakistainek emandako erantzunen arabera, hizkuntza hautua naturaltasunez egin izan duela dio. Behin eta berriro azpimarratu du euren kasuan ez zutela erabaki zein hizkuntzatan kantatu, pentsatu gabe hasi zela euskaraz kantatzen. Ingurune euskaldun batean zegoelako. Naturaltasun hori ulertzeko, hainbat klabe eman ditu elkarrizketan zehar: trikitiarekin hasi zela musika sortzen, eta euskara instrumentuari lotua dagoela testuinguru askotan; abestien hitzetan bertsoak baliatzen dituela maiz, eta horiek ere euskaraz direnez, ez zuela pentsatu zein hizkuntzatan kantatuko zuen; edo ingurukoentzat kantatzea gustatzen zaiola, sortzen duen hori inguruko kideekin partekatu nahi izaten duela, eta ingurunea euskalduna denez, ez zuela beste hizkuntzaren batean sortu beharrik.

Alegia, euskaraz kantatzea ez zela hautu kontziente bat izan. Kontrara, bere egunerokotasunean hedatua dagoen hizkuntza erabilera bat beste eremu batera zabaldu besterik ez duela egin nabarmendu du. Era berean, euskaraz kantatzerako garaian hizkuntzarekiko identifikazioa ere aipatu du musikariak, euskaraz abesten duenean sentitzen baita “eroso”. Berea sentitzen du hizkuntza hori, atxikimendua sentitzen du berekiko, eta kantatzeko ez zuen pentsatu ere egin beste modu batean ere izan zitekeenik. Horregatik dio ez duela erabaki ere egin zein hizkuntzatan abestu. Euskaraz bizi delako.

Hizkuntzak, gainera, ez die arrakastarako gakorik eman, baina bai Euskal Herrian ezagutzera emateko aukera. Azken batean euskaraz kantatzea bertako entzuleengana iristeko berme bat izan dela dio. Zaleak bere komunitate linguistiko berekoak dira, gainera, eta horregatik gertutasunezko tresna bat ere bada euskaraz abestea bere kasuan.

2.3. EUSKARAREN EGOERA MUSIKAN

“Bere txikitasunean” euskarazko musika osasuntsu ikusten du Arakistainek, dioenez, euskaraz aritzen diren taldeak asko mugitzen baitira Euskal Herrian. “Nik uste hori suertea dela”. Eta ildo horretan hizkuntzak zeresana izan dezake:

“Nik uste Euskal Herriko taldeek hemen daukagula sona, eta hori hizkuntzagatik izan daiteke, euskaraz kantatzen dugun heinean hemen jotzeko aukera gehiago baitaukagu. Akaso erdaraz kantatuko bagenu, igual hemen ez genuen halako plaza izango”.

Iraganean bezain beste kantatzen da euskaraz gaur egun. “Alderaketa aldetik ez dakit gehiago ala gutxiago, garai berrietara egokitzen esango nuke. Euskara testuinguru berrietara zabaltzen ari da”. Baina gaur egun oraindik musika estilo berrietan euskaraz egiten denean kritikak agertzen dira. Adibidetzat jarri du 2019ko Korrikako abestiak harrotutako hautsak. “Ez gaude ohituta entzutera euskara estilo horietan. Ez dakit euskaragatik ala estiloagatik den, akaso biengatik, baina arrazoiren bat izango du hainbeste kritika izateko abesti horrek”.

Estilo berrietan euskaraz egiten denean kritikak sortzen direla aipatu du, eta akaso horregatik, euskarazko indarguneetako bat trikitia dela dio.

“Trikitia esango nuke, euskaraz kantatzen den eremua delako, eta ia musika eskola denetan erakusten den instrumentua delako. Trikitia duen taldeen abesti ia denak euskaraz dira. Orduan, musika eskola denetan erakusten bada trikitia, erakusten diren abestiak euskaraz izango dira. Lotura hori badauka”.

Hori horrela izanda, belaunaldi bakoitzak trikiti talde garaikideak izan du. Alaitz eta Maider, Xabi Solano edo Tapia eta Leturia aipatu ditu Arakistainek bere erreferente gisa: “Trikitia gutxi jo izan bazen nik ere ez nuen joko gaur egun. Orduan erreferentzialtasun kontu bat ere bada”. Aurreko belaunaldietan trikitia jo izanak beraz, bere kasuan eragina izan du. Huntza litzateke, gainera, gaur egungo trikiti talde erreferentziala, musika eskoletan euren kantuak irakasten baitituzte.

“Jendeak bai eskertu zuen abesti horiek egotea, eta trikiti eskola askotako gazte askok eskertu zuten *Aldapa gora* bat egotea trikitiarekin jo ahal izateko. Ni musika eskolan nengoenean beti jotzen genituen abesti tradizionalak, eta eskerrak Solano bat bazegoela. Bai sentitzen nuen behar hori, eta jendeak eskertu du. Abesti horiek beste hizkuntza batean ez zuten funtzionatuko, orduan biak batera doazela esango nuke: hizkuntza eta melodia”.

Alegia, bere garaian eredu izan zituen trikiti jotzaileak nola, gaur egun belaunaldi berrientzako erreferentzialtasun hori eduki dezakeela jakitun da.

Euskaraz kantatzea erabaki duten abeslari ugari ezagutzen ditu. “Musika asko kontsumitu dut, eta euskaraz kantatzea erabaki duten musikari gehienak ezagutzen ditut”, dio. Eta horiek euskaraz abestu zutelako kantatu dezake berak gaur egun hizkuntza horretan.

“Eurek euskaraz kantatzeagatik nik euskaraz abestu dut, azken batean hori kate bat da, eta kate baten zati bat gara. Eurengan fijatu naiz zuzenean ala zeharka, musika euskaraz entzun baitut, eta horregatik ere sortzen dut euskaraz. Egongo baziren taldeak euskaraz egiten zutenak baina ez zaizkidanak gustatuko, akaso ez nuen euskaraz kantatuko. Euskaraz kantatzen duen abaniko bat egoteak ematen dizu aukera zure estiloa entzuteko. Niri, adibidez, metala ez zait gustatzen, baina hori gustatzen zaienek badaukate euskarazko aukera. Eta hori da giltza euskal musika kontsumitzeko, ez badago aukerarik, beste hizkuntza batera joko baituzu”.

Eta ondorengoek euskaraz kantatuko badute gaur egungo taldeek egiten duten hizkuntza hautuak eragina izango duela jakitun da Arakistain. Euskarazko musika kate bat delako, bere arabera. Eta bere kasuan euskaraz naturaltasunez eta pentsatu gabe hasi baldin bazen kantatzen, hori ere bada aurretik hizkuntza horretan abestu izan zelako. Era berean, hizkuntza hautuaren kontzientziarik erakutsi ez badu ere, euskaraz kantatzea erabaki duen belaunaldi baten katebegi bat gehiago sentitzen da. Hamarkadaz-hamarkada egindako hautu baten jarraipena direla jakin badaki. Areago, ondorengoentzat erreferente izaten ari direla ere kontziente da, eta horren lekuko da trikiti eskoletan Huntza taldearen abesti ezagunena jotzen erakusten dutela.

3. IÑIGO ETXEZARRETA (EN TOL SARMIENTO)

3.1. MUSIKARIA, MUSIKA ETA EUSKARA

Etxezarreta gasteiztarra da jaiotzez, eta gaur egun ere bertan bizi da. Hala ere Arabar Errioxako lekora herriarekin harreman estua dauka: bertakoa du familia, eta En Tol Sarmiento-ko gainerako taldekideak ere ingurukoak dira. Horregatik, bi eremu horietan

dauden euskaldun kopurua emango da, musikariarengan bien testuinguruak izango duelako eragina. Eustaten arabera, Gasteizen biztanleen %27,2 ziren euskaldunak 2016an, %19,6 ia euskaldunak, eta erdaldunak ziren %53. Ekoran, berriz, handiagoa da euskaldun eta erdaldunen arteko aldea: herritarren %15,5 ziren euskaldunak, %15,9 ia euskaldunak, eta gainerako %68,5 erdaldunak. Bistan denez, Etxezarretaren testuingurua ez da euskalduna.

B ereduan egin zituen ikasketak DBHra arte, eta Batxilergora igaro zenean D ereduan hasi zen. Unibertsitateko ikasketak, bestetik, euskara hutsez egin zituen, Arrasaten. “Euskaraz ikastea erabaki nuen, banekielako bestela hizkuntza galduko nuela”. Unibertsitatean, gainera, euskaraz bizi zen jendea ezagutu zuen, eta “euskaraz komunikatzeko beharra” eduki zuen. Ikasketak amaitu ondoren EGA titulua atera zuen, eta ondoren lan munduan sartu zenean harreman batzuk euskaraz egin zituen. Bilakaera hori ikusita, beraz, apurka euskalduntzen joan dela esan daiteke.

Hala ere, harreman pertsonal gehienak gaztelerazkoak dira Etxezarretaren kasuan. Arestian esan bezala, bere ingurua ez da euskalduna, eta hala ere, gaur egun euskaraz zein gazteleraz “erdi eta erdi” egiten duela dio.

“Nire familia guztia erdalduna da, nire lagunek B ereduan ikasi dute, eta beste batzuek A ereduan, baina gure artean erdaraz hitz egiten dugu. (...) Arrasaten amaitu eta Gasteizera itzuli nintzenean, banekien ez nuela euskaraz hitz egingo. Pentsatzen nuen erdaraz hitz egingo nuela, batez ere Gasteizen, mugitzen ginen lekuetan dena erdaraz baitzen. Denborarekin aldatu da kontua, (...) inguruko lagun batzuk apuntatu ziren euskaltegia, eta gogotsu hasi ziren euskaldunon mundu horretan mugitzen. Gure artean batzuetan euskaraz hitz egiten dugu. Baina orokorrean giroa erdalduna da. (...) Hori izan da nire garapena. Hamabost urterekin inolaz ere ez nuen pentsatuko Gasteizen euskara erabiliko nuenik. Eta orain erdia euskaraz hitz egiten dut”.

Musika taldean bera da euskaldun bakarra, eta ondorioz taldekideen arteko harreman guztiak gazteleraz dira. Dena den, Euskal Herrian jotzen hasi zirenean, hiru taldekide euskaltegian hasi ziren euskara ikasten. “Momentu batean gorakada bat izan zuen [taldeak], eta iristen zitzaigun informazio gehiena ez zuten ulertzen. Oso ilusionatuta zeuden taldearekin eta euskaltegian eman zuten izena”. Denbora falta dela-eta albo batera utzi zutela dio Etxezarretak, baina gaur-gaurkoz euskararekin “ez daude deseroso”. Hau da, taldekideek hizkuntzarekiko jarrera positibo bat garatu dutela ondorioztatu daiteke, euskara ikasteko urratsa eman ondoren jarraitu ez bazuten ere.

Bistan denez, taldekideen arteko harremana gaztelerazkoa da, baina hori horrela izanda ere, En Tol Sarmientoren irudia zaintzea gustatzen zaio Etxezarretari. Hau da, euskaraz kantatzen dutenez, harremanak hizkuntza horretan izateko aukera bermatu behar dela uste du. Horregatik, bera arduratzen da horretaz.

“Taldea *hobby* batetik ia lan izatera igaro da, eta gehiena euskaraz etortzen zait. Taldearen irudia lantzea gustatzen zait, azkenean euskaraz kantatzen badugu, gurekin euskaraz komunikatu nahi badira aukera hori eman nahi izaten dut”.

Euskalduna ez den ingurune batean bizi baldin bada ere, euskararen etorkizunari dagokionez baikorra da musikaria. Eta ez da gutxiagorako, bere inguruan euskararen goranzko bilakaera ikusi baitu.

“Nahiko baikorra naiz. Duela hamar urte Gasteizen nengoenean ez nuen pentsatuko euskaraz hitz egin ahal izango nuenik, eta orain aukera badago. Orduan, nik Gasteizen ikusi dudana bilakaera ikusita, nahiko baikorra naiz, eta ez dut uste hain txarto dagoenik. (...) Gauza asko falta direla egiteko? Bai noski, Gasteiz da, eta ez Donostia, baina uste dut pausoak ematen ari direla, eta ez dut gaizki ikusten.

(...) Lehen herrian ere [Ekoran] ez zen ezer egiten euskararekiko, baina orain batzuk elkartu gara, eta batzuetan euskarazko gauzak sortzen dira. Adibidez, Korrika pasa deneko eguna prestatzen aritu ginen”.

Urratsez urrats bada ere, egoerari buelta ematen ari zaion irudipena dauka Etxezarretak. “Printza positiboak ikusten dizkiot, eta ez ikusten behera doanik. Egia da falta dela beste zerbait. (...) Baina gauza da *klika* hori egitea, eta hori da zailena”. Ikuspegi hori oso lotua egon daiteke berak eta bere inguruak euskararekin izan duen bilakaerarekin. Hau da, euskaraz ikasi bai, baina erabilerarako saltoa ematean legoke bere ustez egiteko handiena.

Ingurune erdaldun batean jaio eta hezitakoa da Etxezarreta, eta berak eta bere lagunak entzuten zuten musika batez ere gaztelarazkoa zen. Euskarazko sorkuntza ere kontsumitzen zuten, baina “akaso gehiago gaztelera euskara baino”. Punk eta rock eremuko taldeak entzuten zituzten, eta eurengan eragina izan zuten taldeen zerrenda egin du: Kaotiko, La Polla, Eskorbuto, Piperrak, Betagarri eta Berri Txarrak. Hau da, aldarrikapen kutsu nabarmeneko taldeak izan dira entzun izan dituztenak. Horien musikak eragina izan duela azpimarratu du abeslariak, bai musikalki eta baita abestien hitzetan ere. Taldearen lehen diskoetan letretan aldarrikapen gehiago txertatzen zituztela dio, garai hartan entzuten zuten musikaren lekuko.

3.2. HIZKUNTZA HAUTUAREN ARRAZIOIAK

En Tol Sarmientoren kasua berezia da, hizkuntza hautuaren inguruko kontzientzia hasieratik eduki duelako Iñigo Etxezarretak. Taldeko euskaldun bakarra da, eta euskaraz kanturen bat egin behar zutela errepikatzen zien taldekideei behin eta berriro. Hasieran gaztelaraz hasi ziren kantatzen, “naturalagoa” zitzaielako horrela: “Gure arteko harreman guztiak erdaraz zirelako. Eta akaso baita entzuten genuen musika ere —eta bertsioak egiten hasi ginen taldeak—, asko erdaraz zirelako”. Gaztelarazko harreman horretan eta entzuten zuten musikaren erreferentzialtasunak, beraz, gaztelaraz kantatzeko normaltasuna bideratu zutela esan daiteke.

Etxezarretak, ordea, nahi zuen taldeak euskaraz ere kantatu zezan. Baina gainerako kideek ez zuten ulertzen zergatik abestu behar zuten euskaraz, euren testuingurua ez baldin bazen euskalduna.

“Nik esaten nien lehen diskoan pare abesti bat edo hiru sartu behar genituela euskaraz, baina kostatu zitzaidan. Extremadurakoak esaten zidan ea zergatik kantatu behar genuen euskaraz; berak Logroñon egiten zuen lan, eta Ekoran bizita ez zuen euskara inoiz entzuten. Beraz, ez zuen ulertzen zergatik kantatu behar genuen euskaraz”.

Alegia, taldearen hizkuntza hautua problematizatu izan zuen hastapen horietan Etxezarretak behin eta berriro, gainerako taldekideak euskaraz kantatzera interpelatuz. Izan ere, hizkuntzarekiko kontzientzia zeukan taldeko abeslariak, eta horregatik errepikatzen zien taldeko kideei kanturen bat egin behar zutela euskaraz.

“Nahiz eta Gasteizen mugimendu askorik ez egon eta askok nortasun asko ez eduki euskararekiko, nik apur bat banuen, euskaraz ikasi bainuen. Orduan euskaraz kantatzearen nahiko kontziente nintzen arren, taldea ez”.

Hizkuntza hautua egin zuena Etxezarreta bera izan zela esan daiteke. Euskararekiko kontzientzia bat badu, eta harekin identifikatzen dela esan daiteke ondorengo adierazpenak irakurritz gero:

“Gaur egun daukadan kontzientzia bada euskara Euskal Herrian daukagun altxor bat dela, eta herri bat batzen gaituena hizkuntza bat dela uste dut. Badaude mila gauza batzen gaituena, baina puntan hizkuntza dago, eta hizkuntza batengatik zara bereizgarri, eta hori da altxor nagusia. Gaur egun, halako altxorak nire ustez zaindu behar dira, eta horien alde egin behar da”.

Atxikimendu hori sentitzen du hizkuntzarekiko. Gainera, euskal abeslariak hizkuntzari ez ezik, herri bati ere ekarpena egin behar diola sinisten du. Bera gisa horretan sentitzen dela esan du: “Bai, testuinguru batean jartzen baldin banaiz, nik uste baietz”. Zein da, ordea, euskal abeslari izateko aipatzen duen ingurune hori? Zer da beretzat euskal abeslari izatea? “Ez bakarrik euskarazko musika egitea, (...) baizik eta hizkuntzarekiko errespetu bat eta euskaltzaleen mugimenduari ekarpen txiki bat egitea. Ez da bakarrik hizkuntza, baizik eta esaten ari zarena”. Alegia, euskal abeslariak hizkuntza batean kantatuta herriari ekarpen bat egin behar diola sentitzen du Etxezarretak. Beraz, euskaraz kantatzea izaera edo identitate bati lotzen dio?

“Bai, beharbada bai. Eta askotan izaera hori ez da jaiotzetik duzuna, nik 20 urtera arte ez dut jaso euskal kulturaren hezkuntzarik ia-ia, ikastetxean euskarazko ikasgaiaren genuenaz gain. Eta izaera izan daiteke jaiotzetik ala ez, eta beste aldetik zuk erabakita. Kasu honetan nik erabaki dut, eta interesgarria ere bada halako gauzak egitea Euskal Herrian”.

Beste era batera esanda, hizkuntza batekiko atxikimenduak ez du zertan jaiotzetiko zerbait izan behar, ondoren erabaki eta hautatu daitekeen zerbait izan daiteke. Eta hori da hain justu bere kasua. Euskara bere identifikazio marketako bat izatea Etxezarretak berak erabaki zuen.

Berak gauzak garbi baldin bazituen ere, gainerako taldekideek aurreiritzi ugari zituzten euskararekiko, eta horregatik zeukaten euskarazko abestiak egiteko jarrera uzkurra. Dena dela, lehen diskoan¹⁴ euskarazko lau kantu sartu zituzten: “Hasieran izan zen zailena, zergatik bai, eta zergatik ez. Baina behin abesti horiek sartuta (...) etorri dira beste guztiak”. Gainera, horietako batek, *Musikaren doinua* kantuak, arrakasta handia lortu zuen. “Abesti hori irratan sartu zen, eta Arabar Errioxatik kanpo jotzen hasi ginen: Gasteiz inguruan, eta Araba iparraldean”. Kantu horri esker hasi zen taldea ezagunagoa egiten, eta Euskal Herriko geografian gero eta gehiago jotzen hasi ziren. Puntu hori erabakigarria izan zen taldeko gainerako kideek hizkuntzarekiko zuten jarrera aldatzeko:

“Euskal Herriko herriek taldea oso ondo tratatu zuten, eta nire ustez ere taldekideek apurka aurreiritzi horiek kendu dituzte. Abesti bategatik hasi gara jotzen Euskal Herrian, eta hortik aurrera euskaldunon mugimendu horretan sartu ginenez, Euskal Herriarekiko edo hizkuntzarekiko eskuzabala izateko-edo, erabaki genuen bide horretatik jarraitzea. Azken batean, taldeak bertan funtzionatzen zuela ikusi genuen”.

Gainerako taldekideek ikuspegia aldatu dutela dio Etxezarretak, eta lehen zituzten aurreiritziak alboratu dituztela. Eta apurka euskararen presentzia areagotu egin da taldean, egun gaztelerazko abestirik ez egiteraino.

“Taldea Euskal Herrian jotzen hasi zenean, garapen hori diskoetan ikusi daiteke. Lehenengo maketan eta diskoan abestien %15 ziren euskaraz, bigarren diskoan %70 inguru euskaraz, eta hirugarren diskoan %100. Eta orain taldeak ez du pentsatu ere egiten erdarazko kantuak ateratzea. Egia da noizbait zerbaitegatik sortzen bada, egingo dugula, baina dagoeneko taldean ez dago eztabaida hori. Euskaraz egiten dira abestiak, eta apur bat naturalki etorri da hautu hori. Taldea

¹⁴ En Tol Sarmientoren lehen diskoari aipatzen denean 2012an argitaratutako *Hacia la luna* lanari egiten zaio erreferentzia, eta ez 2008an plazaratutako maketa.

sartu denez euskaltzale mugimendu horretan, euskarak ere taldera gauza asko ekarri ditu, eta orduan taldeak ere bueltan euskarazko abestiak egiten ditu”.

Euskaraz kantatzen hastean Euskal Herrian arrakasta lortu du taldeak, eta horrek hizkuntza hautua egonkortu egin du: “[Taldeko] musikarien kasuan ikusten dut. Hasiera batean hainbeste traba jarri, eta orain hain gutxi jarrita, erakusten du hizkuntza batek arrakasta bat ekartzen duela atzetik”. Beste era batera esanda, euskaraz kantatzea sona eta ospea lortzeko bitarteko bat bezala ikusi dute En Tol Sarmientoko gainerako kideek, eta horrek euskararen erabilerarako bidea samurtu du.

Gainera, taldeak egiten duen musikarako Euskal Herrian zaletu gehiago daude, eta hori ere gakoa izan zen zein hizkuntzatan kantatu erabakitzerakoan.

“En Tol Sarmientoko musikariak Logroñoakoak dira, eta Logroñon ere badago mugimendu bat rock musikan, baina Euskal Herrikoa baino askoz txikiagoa. Egiten genuen musikagatik, eta entzuten genituen taldeengatik bagenekien hemen merkatu gehiago zegoela. Euskal Herrian zegoen mugimendua lagungarria izan zen zentzu horretan, eta euskaraz abestea aukera bat izan zen”.

Eta azken batean, euskaraz kantatzeak Euskal Herriko ateak zabaldu dizkie. Logroñon jo ahal izateko aukerak galdu dituzten maila berean.

“[Euskarak] Euskal Herrian jotzeko aukera guztiak [eman dizkigu], eta bertatik kanpo jotzeko aukera gehienak. Nik uste gehiago eman digula kendu baino. (...) Baina aldi berean, Logroñon aspaldi eman genuen azken kontzertua, eta hemendik [Ekoratik] hamar minutura dago. Bi hizkuntzetan jotzen genuenean deitzen gintuzten, baina orain ez... Logroño hamar minutura izanda, eta Senpere bi orduz, han milaka pertsona joan ziren, eta hemen ezagunak bakarrik etorriko lirateke. Beraz, Euskal Herriatik kanpo kantatzeko ate batzuk itxi dizkigu”.

Hala ere, euskaraz kantatzeak itxi dizkienak baino ate gehiago zabaldu dizkiela dio Etxezarretak, eta taldeak lortu duen arrakasta lortzeko bermea izan dela hizkuntza. Dena den, momenturen batean muga bat izan daitekeela ere badio, batez ere Euskal Herriatik kanpora ateratzeko saltoa ematen duteneko balizko egoeran:

“Taldeak daraman bilakaerarekin jarraitzen badu, helduko da momentu bat Euskal Herrian muga bat daukazula eta ezin duzula izugarri pila jo. (...) Lehen 40 kontzertu ematen genituen urtean, eta orain ezin dugu horrela egin, taldea gero eta gorago baldin badago, baldintzak ere hobekiak izan behar dutelako. Orduan, heldu daiteke momentu bat honaino iritsi garela, eta horra iritsi baldin bazara ez da albiste txarra. Bada hemen dena lortu duzunaren lekuko”.

Alegia, kanpoan jotzen hasten badira, momentu horretan hizkuntza traba izan daitekeela uste du. Baina “ez dugu inolaz pentsatu arrakasta izateko orain gazteleraz kantatuko dugunik”. Gaur gaurkoz taldearen ospea Euskal Herrira mugatzen baita batez ere, eta aurretik aipatu duen gisan, taldean dagoeneko ez da euskararen erabilera zalantzan jartzen.

Hizkuntza hautu kontziente bat izan da, beraz, En Tol Sarmientok egindakoa. Hasieran batez ere gazteleraz kantatzen hastetik euskara hutsez abestera igaro baitira. “Kontzertuetan dagoeneko ia dena euskaraz egiten dugu”, dio abeslariak. Hautu hori egitea, gainera, positiboki baloratzen du, eta bere ingurunean euskararen aldeko alea erein dutela iruditzen zaiola dio:

“Gure kasuan, ez dakit jendeak badakielako ez garela euskaldunak eta euskaraz kantatzen dugula, esaten digute ez dakigula zer nolako lana egiten diogun euskal komunitateari. Ez bakarrik Arabar Errioxako jendeari, baizik eta orokorrean. Ikusten

ditut gazteak euren artean gazteleraz egiten, baina ni banago euskaraz egiten didate, eta euskaraz abestuta euskararen alde egiten dugu. Ikastetxeetatik kanpo ikasleek euskara emozio positiboak ematen dizkion gauza batzuekin lotzea oso positiboa da. Orain ongi sentitzen gara taldean hartu genuen erabakia eta gero”.

Kasu honetan, beraz, agerian geratu da hizkuntza bati esker arrakasta lotzeak zer nolako eragina izan dezakeen musika talde batek egingo duen hizkuntza hautuan. En Tol Sarmientok *Musikaren doinua* kantuari esker Euskal Herrian zehar kontzertu gehiago eskaintzeko aukera izan ez balu, ziurrenik gainerako taldekideek galdetzen jarraituko baitzuten ea zergatik kantatu behar zuten eurek euskaraz. Sona lortzeko berme bat izan baita hizkuntza, eta horrek euskararekiko jarrera aldarazi die euskaldunak ez diren gainerako taldekideei. Hainbeste, arestian aipatu den bezala, hiru kide euskaltegian hasi zirela. Hizkuntzarekiko kontzientziagatik baino gehiago — Etxezarretak bakarrik zuen jarrera hori hasieran—, arrakastak legitimatu baitzuen euskaraz kantatzeko aukera.

Dena den, abeslariak euskararekiko daukan atxikimendutik abiatuta kantatu du taldeak euskaraz. Areago, lehen kantu horiek euskaraz sortu izan ez balira, En Tol Sarmientok ez zuen eduki duen bilakaera edukiko, eta ez zituen gero eta abesti gehiago euskaraz sortuko. Beraz, hizkuntzarekiko identifikazioak bultzatu bazuen taldea euskarazko lehen kantuak sortzera, horietako batek lortutako arrakastak bideratu zuen hizkuntzaren onarpena.

3.3. EUSKARAREN EGOERA MUSIKAN

Gaur egun euskaraz egiten den musikaren egoera ongi dagoela ikusten du Etxezarretak. Urteen poderioz eremu horretan aurrera egin dela.

“Hemen 1980ko hamarkadan punk taldeek gazteleraz kantatzen zuten gehienbat, eta pixkanaka kontua aldatzen joan da. Musika ere gizartea bezala baretzen joan da, baina punk musika entzuten genuenok gehienbat erdaraz entzuten genuen, eta orain badaude punk-oi! taldeak euskaraz kantatzen dutenak. Estilo berriak etorri dira euskarara, eta lehengo estilo gogorragoek ere jarraitzen dute”.

Horregatik dio euskarak bere eremua irabazi duela musikaren esparruan, eta beste arlo batzuetan baino osasuntsuago, gainera.

“Heltzen zaidan musika bada mundu horretan sartuta nagoelako. Orain nik ez dut talderen bat jarraitzen zehazki, orokorrean heltzen zait musika, eta barruan nagoenez heltzen zaidan musika gehiena euskaraz da. Orduan, nire erantzuna da ez dudala gaizki ikusten. Azkenean, beste arloekin konparatuz gero, musikan askoz hobeto dago”.

Dena dela, euskarazko musika egiten denean, entzule askori estilo berriak barneratzea kosta egiten zaiela sumatzen du Etxezarretak. Horren lekuko jarri du 2019ko Korrikaren abestia.

“Estilo berri bat jorratu da, eta nik uste dut Euskal Herrian euskarazko musika entzuten duen jende asko ohituta dagoela beti estilo berdinak entzuten. (...) Oraindik aurreiritzi asko daude estiloekiko. Eta kanpoko giroko erritmoak sartzen badituzu abestietan, kritika asko jasotzen dituzu. Badirudi hamar urte gehiago behar ditugula beste leku batzuetan dauden estilo berriak jorratzeko”.

Euskaraz kantatzeko hautua egin duten taldeak ezagutzen dituela dio Etxezarretak, baina adibide nabarmenena Betagarri izan daitekeela dio. “Badakit Gasteizkoak izanda hautu bat egon zela, eta Betagarri izan daiteke guregan eragin handia izan duen

taldea”. Hizkuntza aldetik, baina baita estilo aldetik ere. Bere arabera, entzuten den musikak ondoren egingo den ibilbidean eragina baitauka.

“Nik uste entzuten duzun musikak orokorrean eragin handia daukala ondoren egiten duzunarekin. Guk punk-rocka entzuten genuenean gazteleraz entzuten genuen, eta horregatik hasi ginen erdarazko musika egiten. Orduan, gure musika bertsiionatzen dutenean ikusten dut eragin handia duela erreferentetzat daukazu talde horrek hartu duen hautuak”.

Horregatik, En Tol Sarmientoko abeslaria jakitun da ondorengo belaunaldietan eragina izan dezakeela eurek egin duten hizkuntza hautuak. Aurretik ere aipatu du elkarrizketan zehar, jakitun dela gazteen hizkuntza ohituretan eragin dezakeela euren musikak, eta gazteleraz ari diren gazte batzuegana gerturatuta euskaraz egiten diotela berari. Horregatik, euskararen aldeko eragile lana egin izan duenaren jakitun da Etxezarreta.

4. EMAITZA BATERATUA

4.1. MUSIKARIA, MUSIKA ETA EUSKARA

Aztertu diren hiru abeslarien testuinguru linguistikoak ezberdinak dira elkarren artean, eta horregatik bi taldetan bereizi dira: batetik testuinguru euskaldunean jaio eta bizi direnak, eta eremu erdaldun batean jaio eta bizi arren, gero eta gehiago euskaraz aritzen direnak bestetik. Lehen taldean leudeke Izaro Andres eta Josune Arakistain, eta bestean legoke Iñigo Etxezarreta. Bakoitzaren testuinguruak ezberdinak izanagatik ere, posible duten eremu gehienetan euskaraz aritzen direla onartu dute hiruek, eta hizkuntza horretan bizitzeko ahalegina egiten dutela. Andres eta Arakistainen egunerokoaren zati handi bat euskaraz da, eta erdia Etxezarretaren kasuan. Egindako elkarrizketan zehar, euskara erabiltzeko jarrera positiboa erakutsi dute hiruek.

Euskarak etorkizunean izango duen bilakaerarekin, gainera, itxaropentsuak dira. Euren ingurua euskalduna delako daukate ikuspegi hori Andres eta Arakistainek, eremu horietan babestuago dagoelako euskara, eta arrisku gutxiago ikusten diote. “Nire inguruan egoera nahiko itxaropentsua da”, dio Andresek. Arakistainek ildo beretik: “Nire inguruko esparruan euskara osasuntsu dago”. Bestalde, testuinguru erdaldunean —kasu honetan Gasteizen eta Arabar Errioxan— euskarak aurrera urrats handiak egin dituelako da itxaropentsua Etxezarreta: “Hamabost urterekin inolaz ere ez nuen pentsatuko Gasteizen euskara erabiliko nuenik”. Eta gaur egun eremu batzuetan hitz egiten du. Inguru horietan euskara gero eta gehiago erabiltzen denez, bere iraupenarekiko ikuspegi positiboa dauka. Goranzko bidean ikusten duelako gaur egun.

Arrazoi bategatik ala besteagatik, beraz, euskararen geroarekin itxaropentsuak dira hiruak. Batzuek euskararen aldeko ingurune positiboa dutelako eta bere geroa bermatuta dagoela ikusten dutelako, eta hizkuntza ahulago dagoen eremu batean euskarak presentzia handiagoa duela sumatzen duelako besteak.

Hala ere, euskara minorizatuta dagoela kontziente dira hiruak. Beste era batera esanda, jakitun dira zein zailtasun eta muga dituen hizkuntzak euren inguruan. Batez ere euskarak gazteen artean duen hutsunea nabarmendu dute. Ez da kasualitatea belaunaldi horretako kideen artean dauden gabeziak azpimarratzea, hiruak 30 urte edo gutxiago baitituzte, eta gertuen daukaten errealitateari buruz hitz egiten baitute. Hala dio Andresek: “Orokorrean, falta zaigu euskara kaleetara ateratzea, gazteek erabiltzeko bezalako hizkuntza dela ikustaraztea”. Arakistainek ere aipatu du jakitetik hitz egiterako bidean dauden mugak.

Etxezarretak ere ildo horretatik jo du. Bere arabera, “beste zer bait” falta da. Eta falta den hori euskara jakitetik hitz egitera igarotzea dela dio, “klika” egitea. Hori bere testuinguruan nabarmenagoa litzateke, euskararen jakintza hedatzen ari bada ere — eta bere inguruan euskara inoiz baino gehiago entzuten duela onartuta ere— erabileran urrats bat gehiago ematea falta dela uste baitu. Hor ikusten du gabezia handietako bat, Arakistainek eta Andresek ere azpimarratu duten bezala.

Beraz, euskararen aldeko eremu soziolinguistikokoak izan, edo oraindik ahula den inguruneetakoak izan, testuinguru ezberdinetan ere hizkuntzaren biziraupenarekin itxaropentsuak dira hiru musikariak. Kontziente dira, hala ere, euskarak zailtasunak dituela aurrera egiteko, eta zentzu horretan gazteen hizkuntza ohituretan sumatu dute gabezia handiena: euskara jakitetik erabiltzera igarotzeko saltoa ematea falta dela nabarmendu dute, batez ere. Horregatik, nahiz eta itxaropentsuak direla garbi geratu den, hizkuntzaren geroaren inguruko kezka daukatela ere aipatu dute hiruek.

Eurei dagokienez, euskararekiko jarrera positiboa daukatela agerian geratu da emandako erantzunen arabera, eta ahal duten kasurik gehienetan euskaraz hitz egiten dutela adierazi dute. Kasu horretan, eremu euskaldunetako abeslariak erraztasun gehiago lukete hizkuntzaren erabilerari hori egiteko, inguruko elkarrizketak euskaraz egiteko traba gutxiago dituztelako. Euskararen testuingurua ahula den eremuan, hala ere, gero eta gehiago erabiltzen dela aipatu du Etxezarretak, eta horregatik bere hizkuntza ohitura ere apurka aldatzen ari direla dio. Horregatik esan liteke hiruek dutela hizkuntzarekiko jarrera positiboa.

4.2. HIZKUNTZA HAUTUAREN ARRAZOIAK

Euskaraz abestea erabaki duten hiru musikarien hautuaren zergatiak aztertzeko, eremu soziolinguistikoan egin den bereizketa bera egin beharko da: Andres eta Arakistain alde batetik, eta Etxezarreta bestetik. Lehen biek euskaraz kantatzeko erabakirik ez zutela hartu esan baitute, eta En Tol Sarmientoko abeslariak, bestetik, kontzienteki egindako hautua izan dela esan du.

Andresen eta Arakistainen erabaki ezak bereizgarri ezberdinak dituzte, ordea. Azken honek euskaraz abesteko garaian erabakirik hartu ez badu, bada egunerokotasunean hedatua daukan hizkuntza erabilerari jarraipena eman diolako, hein handi batean. Hau da, euskaraz hitz egiten du eremu denetan, eta euskaraz kantatzea ez zuen pentsatu ere egin, dioenez. Euskaraz abesteko erabakia naturaltasunez egindakoa dela dio, eta hori horrela baldin bada, bere eremua erabat euskalduna delako da. Bere egunerokotasunaren jarraipen gisa hartzen duelako kantagintza, azken batean. Horri deitzen dio naturaltasuna Arakistainek.

Hizkuntzek daukaten melodiari eusten dio, bestalde, Andresek. “Kantu bakoitzak, melodia bakoitzak hizkuntza bat ala bestea eskatzen dit eta beti uzten diot libre ateratzen”. Dioenez, ez du inoiz erabaki zein hizkuntzatan kantatu. “Sormenak dakarren hizkuntzari ateak ireki eta listo”. Hautua egin duenean, hori artistikoa izan dela dio. Gehienbat euskaraz abestu izan du —abestien erdiak hizkuntza horretan dira—, baina ingelesez eta gazteleraz ere kantatu izan du bere ibilbidean. Alegia, bere sortze prozesuan melodiekin gehiagotan eskatu izan diote euskaraz kantatzea. Abeslariak ez du bere testuinguru linguistikoarekin lotu hautu hori, dioenez ez duelako sekula erabakirik hartu, baina gehienbat euskaraz bizi dela onartu du, eta bere ingurunea ere hala dela. Melodia batek euskara gehiago eskatu badio, beraz, ez dago argi ingurune euskaldunak baldintzatuta izan ote den ala ez.

Andresek eta Arakistainek ez bezala, Etxezarretak hizkuntza hautua kontzienteki hartu zuen. Euskararekiko atxikimendua zuela onartu du, eta bere eraginez sortu zituzten

euskarazko lehen kantuak En Tol Sarmientoko kideek. Hala sentitzen zuelako. Bera da taldekide euskaldun bakarra, eta ondorioz baita hizkuntzarekiko kontzientzia zuen bakarra ere. Komunitate horrekiko atxikimenduan zegoelako erabaki zuen euskarazko lehen kantuak sortzea. Abesti horietako batekin, gainera, taldeak arrakasta lortu zuen euskal komunitatean, eta Euskal Herrian zehar jotzen hasi ziren. Gainerako taldekideek euskararekiko ikuspegia eta jarrera aldatu zuten momentu horretan. “Orain taldeak ez du pentsatu ere egiten erdarazko kantuak ateratzea”.

Beste era batera esanda, arrakastaren faktoreak zuzenean eragin duela En Tol Sarmiento taldearen hizkuntza hautua egonkortzerako garaian. Lehen erabakia taldekide baten nahiagatik izan zela esan badaiteke ere, hautu hori egonkortu duena arrakasta izan da.

Hiru musikariak euskal abeslari sentitzen dira, baina euskal abeslari izatea zer den definitzerako garaian erantzun ezberdinak eman dituzte: Arakistain eta Andresek euskalduna izan eta abeslari izateari deitzen diote euskal abeslaria izateari. Hau da, berdin du zein hizkuntzatan kantatzen den, aparte doazen bi bereizgarri direla diote. Etxebestek, bestalde, euskaraz abesten duen abeslariari deitzen dio modu horretan.

Euskaraz kantatzea izaera bati lotzen dioten ala ez galdetutakoan, ordea, erantzunak ezberdinak dira. Andresek, esaterako, ez du lotura hori egiten, eta euskaraz kantatzea izaera bati lotuko balitzaio, erabaki hori politikoa izango litzatekeela dio. Arakistain eta Etxezarretak, ordea, euskaraz kantatzen denean hizkuntzarekiko atxikimendu batetik egiten dela esaten dute, identifikazio batetik hain zuzen.

Beraz, ikertutako musikariak beste bi taldetan sailkatu daitezkeela agerian geratzen da: euskaraz kantatzea hizkuntzarekiko atxikimendu batetik egiten dutenak, eta hala egiten ez dutenak. Lehen taldean leudeke Arakistain eta Etxezarreta, eta bigarrean Andres. Hiruek euskal abeslaritzat daukate bere burua, baina bakoitzak bere moduan ulertzen du euskal abeslari izatea zer den. Hizkuntzarekiko identifikazio batetik egiten baitute batzuek, eta hortik aparte besteak.

Etxezarreta eta Arakistainen kasuan, euskaraz kantatu badute —kontzienteki izan ala ez—, hori euskal komunitatearekiko atxikimendua dutelako izan da. Arakistainek euskal komunitatearen parte delako abesten du euskara hutsean, eta inguruko jendeak ulertu dezan. Bertako kide sentitzen delako, eta komunitate horretako kide ere badelako. Beraz, nahiz eta erabakirik ez hartu, atxikimendu marka hori hor dagoela agerian geratzen da. Esan liteke euskal komunitatetik eta komunitatearentzat kantatzen duela euskaraz.

Hala ere, arestian aipatu bezala, erabaki hori ez da kontzientea izan, eta musika egiten duenean ingurukoengana iristea lortu nahi duela dio. Eta euskaraz kantatu badu, gakoa izan liteke bere ingurua euskalduna izatea. Izan ere, ikasketak Bilbon egin beharrean Sevillan egin izan balitu, akaso hizkuntza hautu hori ezberdina izango zela onartu du: “Nik uste dut abestiren batzuk erdaraz aterako zirela, batez ere abestiak ingurukoekin partekatzea gustatzen zaidalako, eta ez balute euskaraz ulertuko frustragarria izango zen”. Horregatik, Arakistainen hizkuntza hautua atxikimendu batek bideratu badu ere, agerian geratu da testuinguru ezberdin batek erabaki hori baldintzatu dezakeela.

Kontrara, Etxezarretaren hautua testuinguru soziolinguistikoaren aurka joan da hasieratik. Ingurune erdaldun batean euskararekiko atxikimendua sentitzen zuelako hasi zen euskaraz kantatzen, eta erabaki kontziente bat izan zen. Euskara Euskal Herriko altxor bat dela aipatu du elkarrizketan zehar, eta horregatik adierazpen horiek jarrera hori indartu egiten du. Baina hori jarrera pertsonal bat izan zen, eta ez

taldearena: “Orduan euskaraz kantatzearen nahiko kontziente nintzen arren, taldea ez”. Arestian esan bezala, taldeak euskaraz kantatzeagatik lortutako arrakastak euskara legitimatzeko balio izan baitzuen. Baina finean, abeslariak izan duen kontzientzia eta atxikimendu horrek bultzatu du taldea euskaraz abestera.

Andresen arrazoietan, ordea, nekez topatu daiteke euskararekiko atxikimendu berezi bat abesterako garaian. Sekula hauturik egin ez duela egin azpimarratu baitu, bere hizkuntza hautua artistikoa dela, eta kantatzen duen hizkuntza guztietan berdin sentitzen dela. Euskararekiko kontzientzia badauka, ordea, eta bere egoerarekiko kezka duela aipatu izan du elkarrizketan zehar. Horregatik, hizkuntzarekiko atxikimendua izan baduen arren, identifikazio hori galdu egiten da musikaren esparrura salto egiten duenean. Bertan hautu artistikoa egiten baitu, eta hizkuntza bat ala bestea erabiltzea erabakitzen du gitarra akustikoa edo elektrikoa aukeratzen duen bezala. Hizkuntza musikaren beste elementu bat gehiago balitz bezala.

Identifikazioa izan ala ez, euskaraz kantatzeak funtzio bat izan duela onartzen dute denek. En Tol Sarmientorentzat arrakasta lortzeko berme bat izan da euskara, baina Andres eta Arakistainek ere onartu dute euskaraz kantatzeak Euskal Herriko publikoarengana gerturatzeko balio izan diela.

Andresek hizkuntzari berari onartzen dio jendearekin konektatzeko gaitasuna, nahiz eta era berean, onartzen duen bere jarraitzaileek berdin entzuten dituztela hizkuntza ezberdinak. Arakistainek ere antzera dio, euskal publikoaren aurrean kantatu behar baldin bada, euskaraz kantatuta errazago iristen dela taldea euskal entzuleengana. Gazteleraz kantatuz gero estatuan akaso sona handiagoa lortuko luketela dio, baina era berean, Euskal Herriko oihartzunik gabe ez du uste iritsi diren lekuetara iritsiko liritekeenik. “Horregatik uste dut berme hori eman digula hizkuntzak”.

Era berean, gazteleraz kantatzen hasi zirenean En Tol Sarmientoko kideek euren inguruko herrietan jotzen zuten batez ere. Hau da, Arabar Errioxa inguruan eta baita Errioxako probintzian ere. Euskaraz kantatzen hasi zirenean, ordea, plaza hori galdu zuten, eta horrek garbi erakusten du komunitate baten hizkuntzan kantatuz gero bertan jo ahal izateko aukerak areagotu egiten direla.

Musikarien arrazoiak irakurrita, hala ere, kontu bat garbi geratzen da: inongo kasutan ez dela egin euskaraz kantatzeko hautua ospea lortzeko helburu bati lotuta. Hau da, hiruak jakitun dira euskal entzuleengana iristeko hizkuntza berme bat izan daitekeela, begirunea lortu dezaketela euskaraz kantatuta, baina inongo kasutan ez dute hautu hori horren arabera hartu. Erabakiaren ondorio bezala hartzen dute euskaraz kantatzeagatik lortu dezaketen arrakasta, eta ez hizkuntzaren erabileraren kausa edo abiapuntua.

Arestian ere aipatu da En Tol Sarmientoren kasua, hizkuntzagatik lortutako sonak egonkortu egin duela hizkuntza hautua. Areago, Etxezarretaren esanak kontuan hartuz gero, taldekide ez euskaldunentzako arrakasta bai izan da euskaraz kantatzearen arrazoi nagusia. Eta era berean, baita hizkuntzarekiko zuten jarrera aldatzeko aldagaia ere. Baina gauza bat garbi esan daiteke: hiru musikarien kasuan hizkuntza hautua ez da arrakasta lortzeko helburu batetik etorri. Izatekotan, komunitate batengana gerturatzeko bitarteko bat izan dela esan liteke.

Era berean, hizkuntzarekiko identifikazio bat egon den arren, kantatzerako garaian bi abeslariaren kasuan antzeman da atxikimendu horrek hizkuntza hautuan izan duen eragina. Gainera, horietako batek bakarrik egin du euskaraz kantatzeko erabaki kontziente eta konprometitu bat. Beste biek euskaraz natural edo musikak eskatzen duen doinuetara egokituta abesten dutela esan dute.

4.3. EUSKARAREN EGOERA MUSIKAN

Euskarak musikagintzan duen osasuna ona dela diote hiru abeslariak. Areago, Etxezarretaren arabera, beste eremu batzuetan baino osasuntsuago dago euskara musikaren eremuan. Azken urteetan, gainera, euskarazko doinuak estilo berrietara zabaldu direla ere nabarmendu dute. Dena den, kasu batzuetan entzuleek kritikatu egin dute musika estilo batzuetan euskaraz egindako sorkuntza. Arakistainek eta Etxezarretak, esaterako, 2019ko Korrikaren kantua jarri dute horren lekuko. Trap doinuen moldeetan egin zuten abestia Fermin Muguruzak, Mad Muaselek eta La Furiak, eta kritika iturri izan zen kantua, entzule askori desegokia iruditu baitzitzaien. Oraindik aurreiritzi asko daudela uste dute, eta horregatik zentzu horretan gabezia bat ikusten diote euskal musikaren eremuari.

Edozein modutan, gaur egun hainbeste musika estilotan euskaraz abesten baldin bada, aurreko belaunaldiek hizkuntza horretan kantatzea erabaki zutelako izan da. Hiru abeslariak ezagutzen dituzte euskaraz kantatzea erabaki zuten musikariak, eta horiek egin zuten hautuaren inguruko kontzientzia badaukate. Izan ere, hiruek onartzen dute aurreko belaunaldietako taldeek egindako hizkuntza hautuak eurei bidea zabaldu diela.

Euren erreferentziak garrantzitsuak direla ikusten da, beraz. Izan ere, horiek egindako hizkuntza hautua erreproduzitu izan dutela onartu izan dute hiruek. Beraz, aurreko belaunaldiek euskaraz kantatu bazuten, egungo musikarien hizkuntza hautuan eragina izan dutela esan daiteke, hauek horretaz kontziente izan ala ez.

Kate batean sentitzen dela azaldu du Arakistainek, eta bide horretan, ondorengo belaunaldiengan izan dezakeen eraginaren jakitun da. Horrela da En Tol Sarmientoko abeslariaren kasuan ere. Alegia, eurek kantatzen duten hizkuntzan kantatuta ondoren datozenei bide hori hartzeko aukerak eskaintzen dizkiela barneratuta dute. Izan ere, garaian garaiko musika euskaraz eginda, gaur egungo gazteek aukera daukate horiek erreproduzitzeko ere. Arakistainek dio trikiti eskoletan eskertu dela *Aldapan gora* gisako kantu bat, horrek trikiti ikasleak motibatuzeko balio dezakeelako. Etxezarretaren arabera, bestalde, gazteek entzuten duten musikak badu erreferentzialtasun puntu hori, eta sortzen diren talde berriek abesti horien bertsioak egiten hasten direla dio. Horregatik, euskarazko musika entzuten badute, euskaraz kantatzen hastea ondorio bat izan daitekeela jakitun da.

Hala ere, elkarrizketatutako musikariek ez dute hizkuntza hauturik egin ondorengo belaunaldiek euskaraz kantatu dezaten bultzatzeko. Erabakirik ez dute hartu bik, eta besteak hala erabaki duenean komunitate batekin identifikatzeko egin du. Hala ere, hurrengo musikariek euskaraz kantatzen jarraituko badute, horiengan daukaten eragiteko gaitasunaz jakitun dira.

ONDORIOAK

Belaunaldi berriko euskal abeslariak egindako hizkuntza hautuaren inguruan zein arrazoi ematen dituzten aztertu nahi izan da ikerketa lan honetan. Ikerketaren abiapuntuan egindako galdera ekarriko da galdera gogora, ondoren:

“Azken hamarkadan plazaratzen hasi diren euskal abeslariak euren sorkuntzan egiten duten hizkuntza hautuaren atzean zein arrazoi —kontziente ala ez— erabiltzen dituzte? Zergatik?”.

Horretarako testuinguru ezberdinetako hiru musikariren laginak aukeratu dira, jakinik ez direla 2010eko abeslari denen ordezkari, baina hori horrela izanda ere, eurek emandako erantzunetatik ondorio orokor batzuk atera daitezke, eta euren belaunaldiko musikariren ordezkari izan daitezke.

Horietatik lehena, argia litzateke: testuinguru euskaldun eta ez hain euskaldunear euskaraz kantatzea erabakitzen duten abeslarien artean ezberdintasunak daudela. Horietako bat, honakoa: eremu euskaldunetan ez daukate euskaraz kantatzeko erabakiaren inguruko kontzientziarik, eta erdaldunetan ordea bai. Agerian geratu da hori Etxezarretaren kasuan, Arabar Errioxan euskaraz abestea erabaki baitzuen hasieratik kontzienteki eta baita hizkuntzarekiko konpromiso batetik ere; Andres eta Arakistainek, ordea, ez dute halako erabakirik hartu. Ez behintzat kontzienteki.

Naturaltasuna hitza erabili du bata, eta hauturik sekula egin ez izana besteak. Euskara osasuntsu dagoen inguru batean bizi dira biak, hau da, hizkuntzaren erabilera normalizatuago dagoen eremuan eta hautu hori problematizatzen ez duen ingurunea daukate. Era horretan abestea, beraz, euren egunerokotasunaren jarraipen bat litzateke. Hala dio Arakistainek naturaltasunez hartutako erabakia izan dela dioenean. Etxezarretaren arabera, bestalde, En Tol Sarmiento gazteleraz abesten hastea natural egindako hautua izan zen. Era horretan kantatzen hastea “naturalagoa” izan zela iruditzen zaio, azken batean euren eguneroko bizitzan hizkuntza horretan aritzen zirelako. Alegia, bere ingurunean gaztelera erabiltzen zuten batez ere, eta horregatik naturalagoa zitzaien euren eremuko kideei euren hizkuntzan abestea.

Horregatik, hizkuntza hautua arrazoitzerakoan gaur egungo musikariek naturaltasuna aipatzen dutenean, horrek zerikusi zuzena izango du norberaren testuinguru linguistikoarekin. Etxezarretak kontzienteki egin zuen beranduago naturaltasun horren aurkako hautua, eta horregatik da erabaki horrekiko kontzientea. Arakistainek, ordea, ez dauka hizkuntza hautu horren inguruko kontzientziarik, ingurunearen arabera delako bere katurako hizkuntza. Ingurunearen hizkuntza ohiturei jarraitu dielako.

Beraz, katurako hizkuntza erabakitzen ez denean, eta naturaltasunaren printzipioa aipatzen denean, horrek eremu linguistikoarekin zerikusi zuzena duela ondorioztatuko da. Euskaraz kantatzen jarraitzen bada, eta naturaltasunez egin dela esaten bada, horrek esan nahiko du abeslari horiek testuinguru euskalduna izango dutela. Ondorioz, eremu euskaldunetan euskaraz kantatzeko hautua bermatuago egongo litzateke.

Dena den, testuinguruak baldintzatutako hizkuntza hautuak arriskurik ere badakar: ingurune linguistikoa edo hizkuntza ohiturak aldatzen direnean, hautu hori aldatu egin daiteke. Hala aipatu du elkarrizketan zehar momentu batean Arakistainek, beste eremu linguistikoa batean ikasi izan balu akaso abestiren bat gazteleraz egingo zuela. Baina euskararekin identifikatzen dela ere esan du, eta arraro sentituko zela euskara ez den beste hizkuntza batean kantatuko balu. Alegia, beste eremu linguistikoa batean egonda eta gazteleraz kantatuko balu ere ez zuela euskararekiko duen atxikimendua sentituko, eta abestiren bat beste hizkuntza batean eginda ere, euskaraz sortuko zuela gehienbat. Etxebestek bestelako bidea egin du, eta kontzienteki egin zuen aldaketa hizkuntza hautuan, testuinguru erdalduna aldatu ez bazitzaion ere. Eta hor zeresan handia izan zuen euskararekiko daukan atxikimenduak eta identifikazioak.

Horrek guztiak agerian uzten du, beraz, eremu soziolinguistikoak eduki dezakeen eragina handia baldin bada ere, azken erabakia norberak bere barne eragileen arabera egiten duela. Musikariak hizkuntzarekiko izan dezakeen identifikazioak bideratuko duela batez ere hautu hori, testuinguruak eragina izango badu ere.

Elkarrizketatutako musikarien barne eragile horiek zein izan diren jakitea izango da, beraz, ikerketaren abiapuntuan jarritako helburua. Euskaraz kantatzerakoan hizkuntzarekiko identifikazioan kokatu dira Arakistain eta Etxezarreta, eta ondorioz, jarrera integratzaile bat daukatela ondorioztatuko da. Alegia, euskal komunitate bateko kide sentitzen dira biak eta arrazoi horrek gidatuta egingo dute hautu hori. Motibazio sinboliko batek bideratu dituztela, azken batean.

Baina inguruneko baldintzak hizkuntzaren aurkakoak direnean motibazioak indar handiagoz agertzen direla aipatu da marko teorikoan, eta puntu hori berretsi egiten da kasu honetan ere. Izan ere, elkarrizketan zehar hizkuntzarekiko ageriko identifikazioa dauka Etxezarretak, euskaraz kantatzeko kontzientziatuta dagoela erakutsi du, eta euskaraz kantatzeko motibazioa Arakistainek eduki dezakeena baino handiagoa izan liteke, komunitate linguistikoa batean txertatzeko nahia edukiko lukeelako, eta Arakistain dagoeneko bertan dagoelako. Areago, Huntzako abeslariak ez du erabaki kontziente bat egin, eta Etxezarretak ordea bai. Kasu horretan ere agerian geratzen da barne eragile horietan ere testuinguru soziolinguistikoak izan dezakeen eragina.

Andresen kasuan, ordea, ez dago argi euskaraz kantatzerakoan zein jarrera duen hizkuntzarekiko, eta zein motibaziok bideratu duen unean uneko hautua egitera. Jarrera integratzaile eta motibazio sinbolikotik gertuago legokeela ulertu daiteke. Batez ere ingurune euskaldun batean bizi delako, eta komunitate horretako kide sentitzen dela ondorioztatu daitekeelako bere hitzetatik. Baina euskaraz hitz egiteko daukan motibazioari egokituko litzaioke motibazio hori, eta ez kantatzerakoan duenari. Izan ere, abesten duenean hizkuntza bat ala beste erabiltzea ez da garrantzitsua beretzat, edo ez du erabaki beharreko zerbait bezala ikusten. "Euskaraz dakidanetik abesten dut euskaraz, dakizkidan beste hizkuntzetan bezalaxe, berdin. Helbururik gabe, hauturik gabe, arrazoirik gabe". Horregatik, hizkuntza denekin motibazio berdina daukala ondorioztatuko da. Alegia, euskaraz, gazteleraz eta ingelesez kantatzerako ez du jarrera integratzailearik izango, eta ez du motibazio sinboliko batek bideratuko.

Izatekotan, motibazio artistiko batek gidatuko luke bere hautua, hizkuntzaren estetikan oinarrituko litzatekeen motibazio batean, hain zuzen. Hori bai onartu baitu, egiten duen hizkuntza hautua artistikoa izan ohi dela. Kasu honetan, beraz, lekuan lekuko euskararen egoera soziolinguistikoak ez du eragin zuzenik izango, eta sortzaileak berak une bakoitzean duen behar artistikoaren arabera egingo du hizkuntza hautua. Dena den, kontuan hartu behar da bere erreferentzia musikal gehienak ez direla euskaldunak, eta horrek irizpide estetikoaren atzean izan dezake eraginik. Azken batean, motibazio estetikoak ez baitira isolatutako irizpide autonomoetan oinarritzen.

Horregatik, lan honen helburu zehatza hori ikertzea ez bada ere, oso interesgarria litzateke motibazio estetikoaren atzean egon litezkeen bestelako motibazio sozial eta pertsonalak aletzea.

Barne eragileek bideratutako hizkuntza hautuan oinarrituz gero, beste ondorio argi bat ere atera daiteke: euskaraz abesten duten egungo musikariek aurreko belaunaldiek eskaintzen ez zituzten argudioak ematen dituztela hizkuntza hautua arrazoitzeko garaian. Beste era batera esanda, 1990eko hamarkadako musikariak euskaraz kantatzera bideratu zituen konpromiso linguistikoak indarra galdu duela gaur egun. Euskaraz kantatzea kontzientzia politiko bati eta militantzia linguistiko bati lotu zitzaion garai horretan, eta baita pentsamendu politiko bati ere. Euskaraz kantatzerakoan, beraz, ikuspegi hori galdu dela ondorioztatu daiteke jasotako erantzunak aztertuz gero.

Garai politizatua izan baitzen hamarkada hura, eta euskaraz kantatzeko erabakia askotan eremu horretatik egin zen. Egund politikak bere garaian izan zuen pisua galdu duela dirudi, eta horrek hizkuntzaren erabilera arrazoitzerakoan eraginik izan ote duen aztertzea interesgarria izango litzateke. Baina hori beste ikerketa baterako lana da.

Edozein modutan, konpromisoaren galera hori agerikoa da. Hainbeste, euskaraz kantatzeko erabakirik ez dutela hartu esan baitute elkarrizketatutako bi musikariek. Euskararen normalizazioan aurrera pausuak eman direnaren lekuko izan daiteke hori, azken batean hizkuntza horretan kantatzen baitute batez ere. Hala ere, aurreko belaunaldiarekin alderatuz gero, hautu horren inguruko kontzientzia galera bat badago.

Era berean, 1990eko hamarkadan garatutako konpromiso linguistiko hori eremu ez euskaldunetan mantentzen dela ere ikusi daiteke. Izan ere, Etxezarretak euskaraz abesteko hartutako erabakiak aurreko belaunaldiko komunitate kontrakulturaleko taldeen ezaugarriak betetzen ditu: rock eremuko musika egiten dute, euskaraz, eta abestietako letretan aldarrikapen politikoak egin izan dituzte —musikariak onartu du gero eta abesti aldarrikatzaile gutxiago egiten dutela orain—. Zerikusia izan dezake horretan ere taldea testuinguru ez euskaldunekoa izateak, azken batean, lehen esan den bezala, halako eremuetan euskararen aldeko aldarrikapenek indar handiagoa hartzen dute.

Edozein modutan, oro har musikariek hizkuntza hautuarekiko duten kontzientzia aldatu dela agerian geratu da ikerketa honetan zehar. Dena den, oraindik ere euskaraz kantatzeko erabakia hartzen dute talde askok, baina konpromiso linguistiko horren beherakadak hurrengo belaunaldiko musikarien hautuan zein eragin izango duen ikusi beharko da aurrerantzean.

Era berean, aurreko belaunaldiek euskaraz kantatzeko egindako hautu kontziente eta konprometituaz jakitun dira egungo musikariak. Badakite euskararen aldeko ekintza bat bezala egin zutela hizkuntza horretan abesteko erabakia, eta onartzen dute egindako lan hori. Euren ekarpenak euren bidea zabaldu baitie, eta euskaraz “natural” kantatzeko aukera eskaini die. Era berean, jakitun ere badira ondorengo belaunaldien aurrean erreferentzialtasuna eduki dezaketela eta euskaraz kantatzen jarraitzeko katean katebegi bat gehiago direla. Horretaz jakitun izan arren, hori ere ez da euskaraz kantatzera bideratzen dituen aldagaia, eta ikusi beharko da euren eragina zenbatekoa izango den etorkizunean.

Euskarak euskal entzuleen belarrietara iristeko bidea zabaltzen diela ere onartu dute hiru abeslariak. Badakite begirune edo atxikimendu bat lortzerako garaian bideak zabaltzen dizkiela euskaraz abestekoan, baina hori ez da inoiz hizkuntza hautu bat egiteko arrazoia izan. Arestian aipatu den bezala, ordea, En Tol Sarmientoren kasuan euskarazko abesti batek arrakasta izateak hizkuntza hautu hori legitimatzen lagundu

zuen taldekide erdaldunen artean. Larrañagak dioen bezala, euskaldunak ez diren eremuetan gehiagotan hedatzen dira jarrera instrumental eta motibazio pragmatikoak, eta kasu honek, beraz, teoria hori indartu egiten duela ikusi da. Era berean, aurrerantzean landu daitekeen ildo bat ere zabaltzen du: musika taldeetan hizkuntza hautua arrakasta motibazioarekin lotzea.

Martinez de Lunak adierazi izan baitu motibazio izanerazeak soilik ez duela indar nahikorik errealitatea iraularazteko, eta horretarako arrakasta motibazioak eta motibo pragmatikoak sustatu beharko liratekeela. En Tol Sarmientoren kasuak erakusten du musikaren eremuan euskara hautu bat egiteko baliagarriak izan daitezkeela motibazio horiek. Elkarrizketatutako musikariak, gainera, jakitun dira sona lortzeko baliagarria izan daitekeela euskaraz kantatzea, nahiz eta euren kasuan ez den hori izan hautua bideratu duena.

Beraz, garatu gabeko motibazio bat bada ere, aurrerantzean motibazio sinbolikoarekin batera hizkuntza hautua bideratzeko eragile izan daitezke bi motibazio hauek. Eta En Tol Sarmientoren kasuan bezala, eremu erdaldunetan izan dezake bide horrek arrakasta handiagoa. Azken batean, euskaraz kantatzeak gaztekeraz egiteak baino plaza gehiagotarako bidea zabaltzen duela ikusarazten baldin badu, horrek hizkuntza hautuan eragina eduki ahal izango du erdal eremuan, euskarak presentzia gutxiago daukan esparruan.

Horregatik guztiatik, eta hasierako galderara itzuliz, 2010eko hamarkadako abeslariak euskaraz kantatzerakoan identitatearekin lotura duten arrazoiak eman izan dituzte batez ere. Hala ere, hizkuntza hautu artistiko gisa hartzen duenik ere bada, eta horrek aldaketa bat ekarri du berarekin. Dena den, aurreko belaunaldiekin alderatuz gero, testuinguru euskaldunetako egungo musikarien ezberdintasun nagusia egindako hautuaren kontzientzia eza litzateke. Jakitun dira euskararen egoera zein den, eta kezka azaltzen dute; badakite aurreko belaunaldietako musikariek euskaraz kantatzeko zein ahalegin egin zuten, eta horrek euren bidea zabaldu diela kontziente dira. Baina horren guztiaren inguruko jakintza eta kontzientzia edukita ere, euskaraz kantatzea hautu natural gisa hartu izan dute eremu euskaldunetan. Aipatutako elementuak ez dira nahikoak izan kontzientzia hori garatzeko. Erdal inguruetan, ordea, kontzientzia hori areagotu egin dela ikusi da, hautu hori egiterakoan hizkuntza bera problematizatu egiten delako. Horregatik, kontzientzia egotea normala litzateke. Horiek lirateke, beraz, gaur egungo euskal musikariek euskaraz kantatzerakoan erakusten dituzten arrazoiak.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, U. (2018): *Euskaigintza eta kulturgintza aro berri baten aurrean* jardunaldiak (2018-06-28). [Sarean: www.argia.eus/multimedia/solasaldiak/euskaigintza-eta-kulturgintza-aro-berri-baten-aurrean] (Kontsulta: 2019-05-02). UEU eta Iratzar fundazioa: Eibar.
- AMEZAGA J. (1994): *Herri kultura: Euskal kultura eta kultura popularrak*. Leioa: Informazio eta Gizarte Zientzien fakultatea, EHU (doktoze tesia).
- ARRATIBEL, N.; IRIZAR, A.; IRASTORZA, J. (2016): "Hizkuntza portaeren motibo subjektiboez hausnarketa". *Bat soziolinguistika aldizkaria* 99. 197-207. Andoain: Soziolinguistika klusterra.
- BARANDIARAN, I. (2014): *90eko hamarkada oparoa*. Badok ataria. [Sarean: www.badok.eus/historia/90eko-hamarkada-oparoa/] (Kontsulta: 2019-05-18).
- BEOBIDE, I. (1966-03-13): "Bestelakoak al gara?". *Zeruko Argia* 159. 7. Donostia: Zeruko Argia.
- BEREZIARTUA, G. (2011-02-02): "Iaz disko asko... eta erdaraz (zenbait burutazio ingelesez kantatzeko hautuaz)". *Argia* aldizkariaren *Boligrafo Gorria* bloga. [Sarean: www.argia.eus/blogak/boligrafo-gorria/2011/02/02/iaz-disko-asko-eta-erdaraz-zenbait-burutazio-inglesez-kantatzeko-hautuaz/] (Kontsulta: 2019-05-02). Lasarte-Oria: Argia.
- CABEZA, P. (2016): "Prólogo". In *Party & borroka. Jóvenes, música y conflictos en Euskal Herria*. Tafalla: Txalaparta.
- DEL AMO, I. A. (2016): *Party & borroka. Jóvenes, música y conflictos en Euskal Herria*. Tafalla: Txalaparta.
- ERIZE, X. (2016): "Euskal herritarren portaera linguistikoen motibo subjektiboen bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak". *Bat soziolinguistika aldizkaria* 99. 113-177. Andoain: Soziolinguistika klusterra.
- ESNAOLA, I. (2011): *Gurean Do!nu. 2010ean argitaratutako Euskal Herriko musika*. Astigarraga: Harrobia Lantzen eta Entzun! aldizkaria.
- ESNAOLA, I. (2012): *Gurean Do!nu. 2011ean argitaratutako Euskal Herriko musika*. Astigarraga: Harrobia Lantzen eta Entzun! aldizkaria.
- ESNAOLA, I. (2013): *Gurean Do!nu. 2012ean argitaratutako Euskal Herriko musika*. Astigarraga: Harrobia Lantzen eta Entzun! aldizkaria.
- ESNAOLA, I. (2014): *Gurean Do!nu. 2013ean argitaratutako Euskal Herriko musika*. Astigarraga: Harrobia Lantzen eta Entzun! aldizkaria.
- ESNAOLA, I. (2015): *Gurean Do!nu. 2014ean argitaratutako Euskal Herriko musika*. Astigarraga: Harrobia Lantzen eta Entzun! aldizkaria.
- ESNAOLA, I. (2016): *Gurean Do!nu. 2015ean argitaratutako Euskal Herriko musika*. Astigarraga: Harrobia Lantzen eta Entzun! aldizkaria.
- EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA, EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA. (2017): *VI. Inkesta Soziolinguistikoa 2016*. [Sarean: www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557] (Kontsulta: 2019-03-25).
- IRAZU, A. (2017): *Rocka puntua!* Iruñea: Pamiela.

- LARRAÑAGA, N. (1995): *Euskalerriko gaztetxoek euskararekiko dituzten jarrerak eta beren eragina euskara ikasi eta erabiltzean*. Deustu: Deustuko Unibertsitatea (doktoze tesia).
- MARTINEZ, Z.; BERRI-OTXOA, K.; ALTUNA, O.; JAUSORO, N. (2019): 2.1. *Ikerketa soziolinguistikorako metodologiak eta teknikak*. Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, HIZNET. Donostia: EHU, Asmoz.
- MARTINEZ DE LUNA, I. (1996): "Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean". *Bat soziolinguistika aldizkaria* 18. 39-52. Andoain: Soziolinguistika klusterra.
- MARTINEZ DE LUNA, I. (2001): "Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena". *Bat soziolinguistika aldizkaria* 40. 47-68. Andoain: Soziolinguistika klusterra. [Sarean: www.soziolinguistika.eus/node/892] (Kontsulta: 2019-04-26).
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2015): *Euskara. Jarrerak eta iritziak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.
- SANCHEZ CARRION, J. M. "Txepetx" (1987): *Un futuro para nuestro pasado: Claves para la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: egilearen argitalpena.
- URLA, J. (1999): "El nuevo ritmo del euskara: identidad y mestizaje en la obra de Negu Gorriak", *VIII Congreso de Antropología vol. 9: Mesas de trabajo: Recreaciones etnográficas, lenguas, identidades e ideologías, antropología de las edades*. 155-164. Santiago de Compostela: Congreso de Antropología. [Sarean: www.negugorriak.net/pdfs/globalnoise.pdf] (Kontsulta: 2019-05-02).
- UZEI (2010): *Soziolinguistika hiztegia. Euskal soziolinguistikaren eremuan erabiltzeko*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzak.
- ZARRAGA, A.; COYOS, J.B.; HERNANDEZ, J.M.; JOLY, L.; LARREA, I.; MARTINEZ, L.V.; URANGA, B.; BILBAO, P. (2010): *Soziolinguistika eskuliburua*. Andoain: Soziolinguistika klusterra / Eusko Jaurlaritzak.

ERANSKINAK

1. TALDEEN HAUTAKETA

Every Place at Once webgunean Hego Euskal Herriko hiriburuetan gehien entzundako taldeen zerrenda (2019ko otsailaren 10ean begiratua):

BILBO

- 1- ESKEAN KRISTO (DEABRUA)
- 2- Gatibu (Zure Uretan)
- 3- Berri Txarrak (Berriz min hau)
- 4- NOGEN (D&D)
- 5- Ze esatek! (Kantuz eskertu)
- 6- Bad Sound System & Juantxo Arakama (Zutik)
- 7- Iheskide (Arrano beltzaren hegaldiak)
- 8- Lor (Zure doinua)
- 9- Latzen (Laztana)
- 10- GLAUKOMA (ITZALI EZIN)
- 11- EN TOL SARMIENTO (AURKITU GENITUEN)
- 12- SKAKEITAN (OREKARIAK)
- 13- Ken Zazpi (Zenbat min)
- 14- Hesian (Guregatik)
- 15- Esne Beltza (Argitzeraino)

DONOSTIA

- 1- Kaxiano (Zorionak)
- 2- Benito Lertxundi (Isil isilik)
- 3- Mikel Laboa (Martxa baten lehen notak)
- 4- Sorotan Bele (Sing-sing-ati-ko folk & rolla)
- 5- Ruper Ordorika (Martin Larralde)
- 6- Oskorri (Ostatuko neskatxa baten koplak)
- 7- Mikel Urdangarin (Non geratzen den denbora)
- 8- Mikel Markez (Zure begiek)
- 9- Xabier Lete (Xalbadorren heriotzean)
- 10- Alaitz eta Maider (Ispilu aurrean)
- 11- IZARO (ZURE EZPAINEN ITSASOAN)
- 12- Gozategi (Nirekin)
- 13- Anje Duhalde (Eperra)
- 14- Anari (Epilogo)
- 15- Katamalo (Gurarika)

GASTEIZ

- 1- GLAUKOMA (GURE KAIOLA)
- 2- Esne Beltza (Gogoak)
- 3- EN TOL SARMIENTO (MUSIKAREN DOINUA)
- 4- Vendetta (Udarako gau luzeak)
- 5- Zea Mays (Elektrizitatea)

- 6- Gatibu (Gabak zerureri begire)
- 7- Ken Zazpi (Zenbat min)
- 8- Altsasuko gurasoak (Aurrera Altsasu!)
- 9- Air Magno (Cupido)
- 10- Alaitz eta Maider (Txanpon baten truke)
- 11- Hertzainak (Aitormena)
- 12- HUNTZA (ALDAPAN GORA)
- 13- Itoiz (Lau teilatu)
- 14- Sorotan Bele (Arratsalde honetan)
- 15- Latzen (Laztana)

IRUÑEA

- 1- Los Zopilotes Txirriaos (La reina del carnaval)
- 2- SIETE BALAS (NAFARROA)
- 3- BALOREAK (BALOREAK)
- 4- Des-Kontrol (Duintasunez eutsi)
- 5- Vendetta (Reggaean hegan)
- 6- HUNTZA (LASAI, LASAI)
- 7- KALEKO URDANGAK (NORTASUNA)
- 8- EN TOL SARMIENTO (SEXUAREKIN)
- 9- Berri Txarrak (Maravillas)
- 10- Sugan (Zarena zarelako)
- 11- Altsasuko gurasoak (Aurrera Altsasu!)
- 12- Esne Beltza (Sueños de color)
- 13- Gozategi (Nor-nori-nork)
- 14- Xabi Solano (Erre zenituzten)
- 15- Gatibu (Aske maitte)

2. GALDETEGIA

1. SARRERA: MUSIKARA HURBILPENA

- Zein izan da musikarekin entzule gisa izan duzun lehen harremana? Noiz hasi zinen musika entzuten?
 - Zein musikari izan dira zure erreferentziak?
 - Zer estiloko musika entzun izan duzu?
 - Zein hizkuntzatan aritzen ziren musikari horiek?
 - Zein garrantzia izan dute musikari horiek zure ondorengo ibilbide musikalean?
- Noiztik zabilta musika egiten?
 - Zein izan da taldearen edo bakarka egindako ibilbidea?
 - Zergatik hasi zinen musika egiten?
 - Zein izan da musika egiterakoan zure helburua? Zeri kantatu izan diozu?
 - Zein hizkuntzatan kantatu izan duzu?

2. EUSKARAREKIKO HARREMANA

- Zein harreman duzu euskararekin?
 - Zure ingurunea euskalduna da?
 - Non ikasi duzu euskaraz?
- Egunerokotasunean euskaraz bizi zara?
 - Zein da zure gertuko eremuko egoera linguistikoa?
 - Lagunartean eta gertuko harremanetan zein hizkuntza erabiltzen duzu?
 - Zein testuingurutan erabiltzen duzu euskara?
- Zure gainerako taldekideak euskaldunak dira?
 - Hala baldin badira, zein hizkuntza ohitura daukazue?
- Zer pentsatzen duzu euskararen egungo egoeraren inguruan?
 - Nola ikusten duzu egoera zure inguruko testuinguruan?
 - Eta orokorrean? (Labur bada ere)

3. MUSIKA ETA EUSKARA HAUTUA

- Nola erabaki zenuen zein hizkuntzatan kantatu?
- Noiztik kantatzen duzu euskaraz?
- Zergatik egin zenuen hautu hori?
 - Euskaraz kantatzea erabakitzerakoan, hautu horren kontzientzia bazenuen?
 - Baldin bazegoen, zein zen kontzientzia hori?
 - Erabaki hori hartzerakoan zein pisu eduki du euskararen egungo egoerak?
 - Euskararen egoerak eraginik izan baldin badu hizkuntza hautu horretan, zer izan da euskaraz kantatzearekin lortu nahi zenuena?
 - Helbururik baldin bazeneukan, helburu hori lortu duzula esango zenuke?
- Musikaren arloan nola ikusten duzu euskararen egoera?
 - Euskaraz lehen bezain beste, gehiago ala gutxiago kantatzen da?
 - Zergatik dela iruditzen zaizu?
 - Zein indargune ditu euskarazko musikak?
 - Eta zertan egiten du huts, zure ustez?
- Aurretik euskaraz kantatzea erabaki duten zein talde ezagutzen duzu?
- Zein izan da zentzu horretan zure erreferentea? (Baten bat eduki baldin baduzu). Zergatik?
 - Aurreko belaunaldietako musikariek euskaraz kantatu izanak zein eragin izan du zagan zein hizkuntzan kantatu erabakitzerako garaian?
- Euskaraz kantatzen duzunean nola sentitzen zara? Zein da hizkuntza horretan kantatzean daukazun sentimendua?
 - Hizkuntza hautu hori egin duzunetik nola sentitu zara?

- Euskaraz kantatzeak zer ematen dizu? Eta zer kendu?
- Euskal abeslari gisa identifikatzen al duzu zure burua?
 - Zer da zure ustez euskal abeslari izatea?
 - Zeri lotuta dago? Atxikimendua zeri lotzen diozu?
 - Euskaraz kantatzeak egiten al du musikaria 'euskal abeslaria'?
 - Hala ez bada, zeri dagokio zure ustez identifikazio marka horrek?
- Euskaraz kantatzea izaera bati lotzen diozu?

4. ZALETUAK GOGOAN

- Zure zaletuak nola baloratzen dute, zure ustez, euskaraz abesteko egindako hautua?
 - Zein dira zure zaletuak? Zein eremu geografikokoak?
 - Euskal Herrira mugatzen dira? Muga horietatik kanpo badituzu jarraitzaileak?
- Jarraitzaile horientzako kantatzen duzu?
 - Hala baldin bada, zenbateraino da hizkuntza bermea? Eta zenbateraino traba?
- Euskaraz kantatzea erabakitzen duzunean entzulea gogoan daukazu?
 - Gogoan eduki beharko litzateke?
- Euskaraz kantatzea arrakasta helburu bati al lotzen diozu?
- Zer da zure ustez arrakasta izatea?
 - Euskaraz kantatuta arrakasta hori mugatu izan dela sentitzen duzu?
 - Euskaldunen artean begirunea lortu duzu euskaraz kantatu izanagatik?
- Arrakasta lortzerako garaian, zenbateraino izan da hizkuntza berme bat? Eta zenbateraino traba?

5. BESTE HIZKUNTZETAN ABESTEN

- Euskara ez beste hizkuntzaren batean kantatu izan al duzu?
 - Hala egin baldin baduzu, zergatik egin duzu hautu hori?
 - Zein beste hizkuntzetan abestu izan duzu?
 - Nola sentitu zara beste hizkuntzetan kantatzerako garaian?
 - Zer eman dizu euskara ez beste hizkuntza batean kantatzeak? Eta zer kendu?
- Euskara ez beste hizkuntzaren batean kantatu duzunean, zer sentitu zara?
 - Sentitzen duzu zure jarraitzaileek hautu hori baloratu izan dutela?
 - Hala baldin bada, arrakastarako giltza izan daiteke?
 - Zenbaterainoko abantaila edo desabantaila eragiten dizu euskara ez beste hizkuntza batean kantatzeak?
- Arrakasta lortzerakoan, zenbateraino da berme bat euskara ez beste hizkuntza batean kantatzea? Eta zenbateraino traba?

3. ELKARRIZKETAK

IZARO ANDRES (IZARO)

1. SARRERA: MUSIKARA HURBILPENA

Zein izan da musikarekin entzule gisa izan duzun lehen harremana? Noiz hasi zinen musika entzuten?

Ez dut uste ziur jakin daitekeenik hori. Ziurrenik entzungo nuen musika amaren sabeletik, eta bera ere entzungo nuen abesten. Gerora, gogoratzen ditudan lehenengoetarikoak Takolo, Pirritx eta Porrotx eta umeentzako abestiak.

Zein musikari izan dira zure erreferentziak?

Asko izan ditut, aldatzen joan direnak ni heldu ahala. Nerabezarora heldu baino lehen Hannah Montana eta High School Musical-eko aktore/aktoreak. Nerabezaroran Taylor Swift, KenZazpi, Gatibu, The Corrs, Vanessa Hudgnes, The Cramberries, Simple Plan, The Fray, Whitney Houston, Aretha Franklin, Zaz, Pedro Guerra, Dolly Parton... Eta hortik gaur egunera: Norah Jones, Maika Makovski, Zahara, Adele, Pedro Pastor, Damien Rice, Billie Eillish, Pedro Guerra, Miley Cyrus, Maria Arnal i Marcel Bagés, Novo Amor, Tom Odell, Aurora, Ruth B...

Zer estiloko musika entzun izan duzu?

Ez naiz estilo etiketatze zalea egia esan, ez dut uste asmatzen dugunik. Baina esango nuke gehienbat popa, folka, countrya, indiea, baladak, eta folklore latinoamerikarra?

Zein hizkuntzatan aritzen ziren musikari horiek?

Bakoitza berean: euskara, ingelesa, gaztelania, frantsesa, katalana, norvegiera, esango nuke.

Zein garrantzia izan dute musikari horiek zure ondorengo ibilbide musikalean?

Uste dut garrantzia handia izan dutela eta daukatela eta izango dutela, bai horiek bai etorriko direnak. Gure banku sonoroa eraikitzen goaz horrela.

Zein izan da taldearen edo bakarka egindako ibilbidea?

Serio antzean duela lau arte hasi nintzen. Baina musikarekin harremanetan betidanik.

Zergatik hasi zinen musika egiten?

Serio antzean? Kalifornian bizitzen nengoela konturatu nintzen banuela musika egiteko bide bat, eta aprobe txatu beharra neukala pentsatu nuen, musikak zoriontsu egiten nauelako.

Zein izan da musika egiterakoan zure helburua? Zeri kantatu izan diozu?

Ez dakit helburu finkorik izan dudan. Musika egiten dut musika egin behar dudalako, eta nire bizitzeko modua delako. Orain entzuleak ditut, baina lehen ni nintzen entzule bakarra, eta hor enfokea aldatu da. Baina musika egiten dut, hura egin gabe bizitzen ez dakidalako.

Zein hizkuntzatan kantatu izan duzu?

Bizitzan? Ulegarri euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Kantatu izan dut frantsesez eta italieraz, baina ez dut uste inork ulertuko lukeenik zer esaten ari nintzen. Ziur beste hizkuntzaren baten ere aritu naizela kantuan, oso trakets.

2. EUSKARAREKIKO HARREMANA

Zein harreman duzu euskararekin?

Gertukoa.

Zure ingurunea euskalduna da?

Bai.

Non ikasi duzu euskaraz?

Etxean eta kalean.

Egunerokotasunean euskaraz bizi zara?

Bai.

Zein da zure gertuko eremuko egoera linguistikoa?

Gehienbat euskalduna, aitarekin gaztelaniaz aritzen naiz. Euskal Herritik kanpoko lagun asko dauzkat, atzeritarrak ere bai, kanpoan bizi izan naizelako, eta haiekin nagoenean nire eremua guztiz ezberdina da.

Lagunartean eta gertuko harremanetan zein hizkuntza erabiltzen duzu?

Gehienbat euskara.

Zein testuingurutan erabiltzen duzu euskara?

Nire ahizparekin, amarekin, kuadrillakoekin, nire bandarekin, bikotearekin, Donostiako lagun gehienekin, kontzertuetan...

Zure gainerako taldekideak euskaldunak dira?

Denak ez.

Hala baldin badira, zein hizkuntza ohitura daukazue?

Hiru euskaldunak dira, eta gure artean beti euskaraz mintzo gara. Bat kataluniarra da, eta euskaraz ikasten ari da. Normalean euskaraz mintzatzen gara, baina gauzak azkar egin behar direnean gaztelaniaz egiten diogu berari.

Zer pentsatzen duzu euskararen egungo egoeraren inguruan?

Askok irabazi du, baina asko dauka oraindik irabazteko.

Nola ikusten duzu egoera zure inguruko testuinguruan?

Nire inguruan egoera nahiko itxaropentsua da, inguru euskaldunean bizi naiz.

Eta orokorrean? (Labur bada ere)

Orokorrean, falta zaigu euskara kaleetara ateratzea, gazteek erabiltzeko bezalako hizkuntza dela ikustaraztea. Nerabeek askotan gaztelania erabiltzen dute, beraien 'nerabe lenguaierako' egokiagoa ikusten dutelako. Euskaraz falta zaizkigu sexuaz aritzeko baliabideak, hizkuntzaren alde ganberroena falta da, uste dut horregatik egiten dutela nerabeek alde euskaratik. Gerora itzuli nahi izaten dute, esfortzu handiz eta akaso ez hain era naturalean.

3. MUSIKA ETA EUSKARA HAUTUA

Nola erabaki zenuen zein hizkuntzatan kantatu?

Ez nuen erabaki, ez dut inoiz erabaki. Kantu bakoitzak, melodia bakoitzak hizkuntza bat ala beste eskatzen dit eta beti uzten diot libre ateratzen.

OHARRA: Euskara hautuaren ataleko hainbat galdera erantzun gabe utzi ditu elkarrizketatuak. Mezu elektronikoa bidez bigarrenez eskatu zaio galdera horiek erantzun zitzan, eta hau izan da bere erantzuna:

“Ez ditut erantzun ez direlako nire kasura aplikatzen. Hau da, niretzat hizkuntza ez da hautu kontziente/politiko bat, niretzat hizkuntza hautu artistikoa da, gitarra akustikoa edo elektrikoa aukeratzea bezala, kantuari hobeto gelditzen zaiona. Euskaraz dakidanetik abesten dut euskaraz, dakizkidan beste hizkuntzetan bezalaxe, berdin. Helbururik gabe, hauturik gabe, arrazoirik gabe. Sormenak dakarren hizkuntzari ateari ireki eta listo”.

Musikaren arloan nola ikusten duzu euskararen egoera?

Konplexua.

Euskaraz lehen bezain beste, gehiago ala gutxiago kantatzen da?

Nik uste oro har gehiago kantatzen dela euskaraz, baina proportzioan gutxiago.

Zergatik dela iruditzen zaizu?

Ez dakit, jendea eroso sentitzen da euskaraz abesten, konplexu asko kendu ditugu eta erakargarria da euskaraz musika egitea.

Zein indargune du euskarazko musikak?

Hizkuntza txiki bati arnasa ematen diola.

Eta zertan egiten du huts, zure ustez?

Askotan euskara hutsean egiteagatik produktua ona dela kontsideratzen dugu, eta hizkuntzak ez dauka kalitate musikalean inongo eraginik.

Aurretik euskaraz kantatzea erabaki duten zein talde ezagutzen duzu?

Ba ez dakit, ez dut inoiz beraiekin hitz egin ea erabakia izan den edo ez. Badakit Anarik hala erabaki zuela, baita Fermin Muguruzak ere, baina gainontzekoek ez dakit zergatik egiten duten horrela, akaso naturala zaie besterik gabe.

Zein izan da zentzu horretan zure erreferentea? (Baten bat eduki baldin baduzu). Zergatik?

Niri beti gustatu izan zait asko Mikel Urdangarin.

Aurreko belaunaldietako musikariek euskaraz kantatu izanak zein eragin izan du zuegan zein hizkuntzan kantatu erabakitzerako garaian?

Uste dut libre egin nautela erabaki hori hartu beharrik ez izateko eta libreki sortu, musika egite hutsagatik.

Euskaraz kantatzen duzunean nola sentitzen zara? Zein da hizkuntza horretan kantatzean daukazu sentimendua?

Besteetan daukadan bera.

Euskaraz kantatzeak zer ematen dizu? Eta zer kendu?

Ez dakit, ez dut uste ezer eman ez kentzen didanik, baina zerbait esatekotan: eman, niri asko gustatzen zait rr-ak fuertea ahoskatzea euskaraz, ahotsarekin azpimarratuko banu bezala. Eta kendu: akaso guztizko komunikazioa euskaraz ez dakitenekin, baina hizkuntza guztiekin pasatzen da hori.

Euskal abeslari gisa identifikatzen al duzu zure burua?

Esango nuke.

Zer da zure ustez euskal abeslari izatea?

Abeslaria izatea eta euskalduna izatea.

Euskaraz kantatzeak egiten al du musikaria 'euskal abeslaria'?

Ez.

Hala ez bada, zeri dagokio zure ustez identifikazio marka hori?

Zailak dira galdera hauek, akaso bihar ezberdin pentsatuko dut, baina gaur: euskal abeslaria, euskalduna eta abeslaria, berdin du zein hizkuntzatan abesten duen, akaso ez du hizkuntzarik erabiltzen blueseko inprobisatzaileak bezala. Gero, euskaraz abesten duen abeslaria, izan daiteke ala ez euskalduna eta euskaraz abestu.

Euskaraz kantatzea izaera bati lotzen diozu?

Erabaki politikoa bada bai, bestela ez.

4. ZALETUAK GOGOAN

Zure zaletuak nola baloratzen dute, zure ustez, euskaraz abesteko egindako hautua?

Uste dut badakitela ez dudala hauturik egiten.

Zein dira zure zaletuak? Zein eremu geografikokoak?

Zaletuen gehiengoa Euskal Herrian daukat, gero espainiar estatuan, eta gero Mexikon.

Euskal Herrira mugatzen dira? Muga horietatik kanpo badituzu jarraitzaileak?

Bai.

Jarraitzaile horientzako kantatzen duzu?

Bai.

Hala baldin bada, zenbateraino da hizkuntza bermea? Eta zenbateraino traba?

Errazagoa da beti entzuleak ulertzen duen hizkuntzan abestea, baina tira, musika bera da hizkuntza nagusia, eta beste guztia bigarren plano batean geratzen da. Atzerrian eta hemen berdin aritzen naiz: hiru hizkuntzetan. Hemendik kanpo sekula ez didate hizkuntzei buruzko galderarik egin, kuriooa da.

Euskaraz kantatzea erabakitzen duzunean entzulea gogoan daukazu?

Nire kantu zerrenda egiten dut jo nahi ditudanak eta entzun nahiko dituztenak kontuan izanda, kantu bezala, ez bertan erabilitako hizkuntzaren arabera.

Zer da zure ustez arrakasta izatea?

Nire ustez arrakasta izatea egiten duzun horrekin duin bizitzea lortzea da.

Euskaraz kantatuta arrakasta hori mugatu izan dela sentitzen duzu?

Ez bereziki euskaraz kantatzeagatik, baina bai hemen lan egiteagatik. Kultura oso gaizki zaindua dago hemen, musikarion eta sortzaileon lan baldintzak ez dira duinak eta oso gogorra da lan hau. Inguruak ez duelako lana kontsideratzen, eta bada.

Euskaldunen artean begirunea lortu duzu euskaraz kantatu izanagatik?

Suposatzen dut baietz, baina horrek ez nau gehiegi lasaitzen.

Arrakasta lortzerako garaian, zenbateraino izan da hizkuntza berme bat? Eta zenbateraino traba?

Esan bezala hemengo musika industrian ezinezkoa da arrakasta izatea, oso zaila izango delako baldintza duinetan lan egitea, ez dago legedirik musika erregulatzen duenik, ez dago estatuturik, ez baja eskubiderik, ez ezer. Hala ere, famaz mintzo bazara, jendearentzat ezaguna izateari buruz, euskaraz abesteak nik uste lekua egin didala hemen. Jendeak nahi du musika berria eta musika asko euskaraz, hori oso aberasgarria delako, eta nik horretan nire apurra eskaini dut eta eskaintzen jarraituko dut. Eta hemendik kanpora begira, uste dut ingelesez edo gaztelaniaz kantatzeak ahalbidetu didala adibidez Mexikorekin konektatzea. Baina gero, berdin gozatzen dituzte ulertzen ez dituzten abestiak ere. Beraz, *win-win*.

5. BESTE HIZKUNTZETAN ABESTEN

Euskara ez beste hizkuntzaren batean kantatu izan al duzu?

Bai.

Hala egin baldin baduzu, zergatik egin duzu hautu hori?

Ez da hautu bat izan.

Zein beste hizkuntzetan abestu izan duzu?

Musikari ibilbidean gaztelaniaz eta ingelesez ere abesten dut.

Nola sentitu zara beste hizkuntzetan kantatzerako garaian?

Guztietan sentitzen naiz berdin.

Zer eman dizu euskara ez beste hizkuntza batean kantatzeak? Eta zer kendu?

Euskarak eman eta kentzen didan bera. Hizkuntza bakoitzak bere melodia ematen dizu, bere hitz-jokoak, bere hitzak, bere ahoskatzeko era, eta kendu, ba, hizkuntza hori ulertzen ez dutenekin guztiz konektatzea geldotzen duela, baina konexioa sortzen da.

Euskara ez beste hizkuntzaren batean kantatu duzunean, zer sentitu zara?

Euskal abeslaria.

Sentitzen duzu zure jarraitzaileek hautu hori baloratu izan dutela?

Uste dut nire jarraitzaileak puntu batera heldu direla, non, berdin entzuten dituzten hizkuntza ezberdinak.

Hala baldin bada, arrakastarako giltza izan daiteke?

Arrakastarako giltza industria musikal ganorazkoa daukan herrialde batean bizitzea litzateke.

JOSUNE ARAKISTAIN (HUNTZA)

1. SARRERA: MUSIKARA HURBILPENA

Zein izan da musikarekin entzule gisa izan duzun lehen harremana? Noiz hasi zinen musika entzuten?

Musika entzuten txikitatik hasi nintzen, denok baikaude musikari lotuta. Musika komertziala, irratia, telebista, dena dago musikarekin lotuta. Ni pixkanaka-pixkanaka joan naiz musika horretan fijaszen, entzuten nuena pixkanaka hartzen, trikitia entzun nuen arte. Tira, trikiti doinuak familiaratik asko jaso ditut. Nire lehengusu bat [Xabier Etxaniz] trikitalari oso ona da eta beretaz fijaszen nintzen, eta pixkanaka trikitiarekin hasi nintzen. Baina nire musika gustua ez da trikitia izan, eta orain ere ez da horrela. Entzuten dut, eta musika estilo bezala asko gustatzen zait, baina musika komertziala gustatzen zait. Irratian jartzen duten kanta denak ez, baina asko gustatzen zaizkit, edo nik nire gisara bilatu ditudan kanta ere bai. Estilo ezberdinak entzuten ditut, denetatik. Kantua gustatzen bazait nahikoa da, ez naiz estilo batean markatzen. Eta hizkuntzan ere ez, euskarazkoak entzuten ditut, ingelesezkoak, gaztelarazkoak...

Zein musikari izan dira zure erreferentziak?

Ez dakit. Erreferenterik horrela ez daukat. Trikitian adibidez, Xabi Solanoren kantuak erreferenteak izan dira. Beragan asko fijaszu izan naiz, jarraitu izan dut, eta miretsi dut asko bere musika, baina ez dakit erreferente kontsideratuko nukeen. Abesti asko bai hartzen ditut erreferente bezala, baina ez dakit... Nahasmena daukat erreferenteekin.

Xabi Solano esango nuke gehienbat. Baina esan bezala, abestiekin geratzen naiz. Ez naiz album gutzia entzutekoa, abesti solteak baizik.

Zer estiloko musika entzun izan duzu?

Trikitia batetik, baina baita folka ere. Irlanda edo Eskoziako folk estilo hori entzun izan dut. Horrez gain, teknoa edo musika elektronikoa asko gustatzen zait, eta baita popa edo rocka ere. Orain dauden taldeen artean... Irratietan entzuten direnak ere, juergako abestiak entzuten ditut.

Zein hizkuntzatan aritzen ziren musikari horiek?

Denetarik, baina gehiago fijaszen naiz melodian. Melodikoki sartzan bazait abesti bat, listo. Asko interesatzen zaidan abestia errumanieraz bada, letra begiratuko dut Interneten. Baina gehiago sartzan zaizkit melodiak, letrak baino.

Zein garrantzia izan dute musikari horiek zure ondorengo ibilbide musikalean?

Musikalki, ez dakit... Ni abestiak sortzen zerotik hasi nintzen, ezertan oinarritu gabe. Orduan, nik uste, entzun dudana dena nire subkontzientean egongo dela, eta horren arabera hasi naizela sortzen. Trikitiarekin sortzen dut, eta baliteke Xabi Solanok beste edonork baino eragin handiagoa izatea nigan, baina sortzen ari nintzen une horretan kontziente nintzen Xabirengan fijaszu nintzela, edo trikitik kantak entzungo nituela. Baina igual erritmo bat elektronikako abesti batetik hartu dut, eta horren gainean hasi naiz sortzen trikitiarekin.

Noiztik zabilta musika egiten?

Txapelketetan hamabost urterekin hasi nintzen, eta lehenengo kanta sortu nuen txapelketa baterako kalejira bat bezala. Iruditzen zitzaidan beti kanta berdinekin sartzan ginela, eta zerbait ezberdina egin nahi izan nuen. Garai horretan norbere sorkuntzak egitea ez zen oso ohikoa, probatu nuen, eta harrera ona izan zuen. Gainera, sortu nuen kanta nire kuadrillan oinarritutakoa izan zen. *Inundik inoare* da Itziariko gure kuadrillaren izena da, eta horren inguruan sortu nuen. Ikusi nuen jendeari

gustatzen zitzaioala, harrera ona izan zuen txapelketan, eta horrela hasi nintzen pixkanaka nire sorkuntzak egiten. Bilboko pisuan geundela ere sortzen nuen baita, eta nire pisukideei erakusten nizkien abesti horiek. Hori gustatzen baitzitzaidan, *feedback*-a jasotzea.

Zein izan da taldearen edo bakarka egindako ibilbidea?

Bilbon sortu zen taldea. Txapelketekin amaitu nuenean, aldaketa bat egin nahi nuen, beste formatu batzuetan probatu. Buruan neukan nolako taldea nahi nuen, zein instrumentu egongo ziren, eta zein estilotan arituko ginen: folk estilo horretan. Garbi neukan, baita ere, taldean biolin bat, gitarra elektriko bat eta trikiti bat ere egongo zirela. Hiru instrumentu horiek fusionatu nahi nituen, eta hortik hasi zen.

Hori buruan nuen. Behin Bilbon trikipote bat egiten ari ginen ni trikiti batekin eta nire klaseko Uxue panderoarekin. Egun horretan biolin poteo edo halako zerbait atera zen baita ere, eta hor elkartu eta ezagutu ginen. Biolin jotzailea erresidentziako banda batean zebilen, eta gitarra jotzailea ezagutzen zuen. Ondoren batera ere elkartu zitzaigun. Horrela sortu zen taldea.

Zein izan da musika egiterakoan zure helburua? Zeri kantatu izan diozu?

Trikitiaz aparte oso bertso zalea naiz, eta sasi-bertsolaria ere izan naiz. Bertso eskolan ibilia naiz, eta gustatzen zait bertsolariei galdetzea ea ze bertso idatzi dituzten eginda, eta ea utziko ote didaten musika jartzen. Hasiera batean sortzen nituen letrek ez zeukaten zentzurik, trikitiarekin melodia eta letra batzuekin mix bat egiten sortzen dut. Letra ematen diot, eta horrek melodia ematen dit. Orduan, askotan melodiak bultzatuta letrak zentzurik gabekoak ateratzen zaizkit, errimetan oinarrituta. Entzuteko oso polita da, baina behin abestia eginda dagoela letra aldatzen diogu, melodia horrekin.

Zein hizkuntzatan kantatu izan duzu?

Euskaraz beti.

2. EUSKARAREKIKO HARREMANA

Zein harreman duzu euskararekin?

Nere familiako kide guztiekin egiten dut euskaraz, nire kuadrillako denekin, ikasketa munduan dena euskaraz egin dut, eta lagunekin ere unibertsitatean euskaraz hitz egin dut beti. Orain hasi naiz erdaraz egiten apur bat gehiago, estatura kontzertuak ematera goazenean. Bestela oro har bizitza euskaraz egiten dut.

Zure ingurunea euskalduna da?

Bai, oso euskalduna. Elgoibarrera joaten ginenean ikasketa arrazoiengatik, akaso gaztelera gehiago entzuten da, baita Deban bertan ere. Txikitan gaizki pasatzen nuen batzuetan, gaztelera nahiko egiten baita Deban, eta Elgoibarren ere antzera. Azken batean, Itziartik gatoz gu, eta euskaraz egiten da hemen.

Non ikasi duzu euskaraz?

Etxean.

Egunerokotasunean euskaraz bizi zara?

Bai.

Zein da zure gertuko eremuko egoera linguistikoa?

Euskalduna.

Lagunartean eta gertuko harremanetan zein hizkuntza erabiltzen duzu?

Euskara.

Zein testuingurutan erabiltzen duzu euskara?

Denetan.

Zure gainerako taldekideak euskaldunak dira?

Bai.

Hala baldin badira, zein hizkuntza ohitura daukazue?

Euskaraz dena.

Nola ikusten duzu egoera zure inguruko testuinguruan?

Nire inguruko esparruan euskara osasuntsu dago. Itziarren oso ondo dago. Orain Deban ibili naiz irakaskuntzako praktikak egiten, eta han ere oso ondo, inori ez baitiot atentzioa deitu behar izan. Gero beste errealitate bat izango da ikasle horiek klasetik ateratzen direnean, eta ikusi beharko da patioan zein hizkuntza erabiltzen duten, baina nik ikusi dudanagatik osasuntsu dago egoera ikasgelako eremuan.

Eta orokorrean? (Labur bada ere)

Euskal Herriari buruz hitz egitea zaila da, zonaka doala esango bainuke. Musikalki apur bat oxigenatzen ari dela esango nuke. Bagaude euskaraz kantatzen dugun taldeak, baina kanpotik datorren musika dena erdaraz da, gaztelera edo ingelesez, eta gazteek asko kontsumitzen dute hori. *Influencer* askok ere euskaraz dakite, baina gero bideoak igotzen dituztenean *Youtube*-ra erdaraz izaten dira. Orduan, ez naiz ausartzen esatera euskararen egoera nolakoa den.

Kezka badaukat hala ere. Tira, kezka baino gehiago jakin-mina esango nuke, jakin nahiko nukeelako nola dagoen egoera benetan. Hemengo errealitatea baitakit, baina Donostia edo Bilbo bateko egoera nola dagoen ez dakit.

3. MUSIKA ETA EUSKARA HAUTUA

Nola erabaki zenuen zein hizkuntzatan kantatu?

Ez zen izan erabaki bat, naturaltasun guztiarekin atera zaidan zerbait izan da, pentsatu gabe hasi bainintzen euskaraz, nire bizitzako beste alor askotan bezala. Sortzen hasi nintzenean ez nuen pentsatzen beste modu batean izan zitekeenik ere. Gainera, ez naiz kontsideratzen gaztelera lexiko aberatsa duen pertsona bat, eta erosoago sentitzen nintzen hizkuntzan hasi nintzen sortzen.

Noiztik kantatzen duzu euskaraz?

Betidanik.

Zergatik egin zenuen hautu hori?

Eroso sentitzen nintzelako. Gainera, nire abestietan musikaltasuna emateko errimak asko erabiltzen ditudanez, eta bertsoak edo bertsolaritza ere asko gustatzen zaidanez, bada, bertsoak erdaraz imajinatzea zaila egiten zait. Orduan bertsolaritzatik eta nire egunerokotasunarekin lotuta, harreman zuzena zeukan euskaraz kantatzeak.

Euskaraz kantatzea erabakitzerakoan, hautu horren kontzientzia bazenuen?

Ez, natural atera zitzaidan. Inork ez zidan planteatu ere egin gaztelera kantatuko ote nuen. Gainera, nire etxean trikitiari letraren bat erdaraz sartuz gero, hori nire aitarentzat bekatua litzateke. Imajinatu testuinguru tradizional horretan zer litzatekeen hori. Xabi Solanok kanta batzuk erdaraz egin zituztenean jaso zituen kritikak ikusi besterik ez dago. Euskal artista askok euskaraz egin ondoren abesti bat gaztelera egiten badute kritikatuak izan ohi dira, are gehiago trikitiarekin lotuta badago.

Trikitia lotuago dago hizkuntzari?

Nik esango nuke baietz, euskal tradizioa lotuta baitoa oraindik. Badago jende asko trikitia duen talde bat erdaraz kantatzen ikusten duenean kritikatzeko duena. Gazteak ez seguruenik, baina adin batetik gorakoak seguru baietz. Adibidez, Izarok gaztelerez edo ingelesez kantatzen duenean, ez zaizkio kritika berdinak eroriko instrumentu eta estiloagatik. Azken batean estilo horretan ohituago gaude ingelesez edo gaztelerez entzutea.

Zure kasuan naturala izan zen baita ere horregatik? Trikitia euskaraz delako?

Izan liteke, bai.

Erabaki hori hartzerakoan zein pisu eduki du euskararen egungo egoerak?

Euskararen gaiak zer pentsatu eman izan dit, baina inoiz ez dut hori abesti batera eramanez. Ez daukat abestirik letren bidez euskara bultzatzeko eskatzen duena. Nire ustez hori abestia euskaraz sortzen duzunean egiten duzu. Garai bateko *Aitorren hizkuntz zaharra* eta euskararen inguruko letra horiek... Nik nahiago dut buelta bat eman, eta euskara letretan bultzatu beharrean, euskaraz kantatzea. Nik uste hori eraginkorragoa dela: jendeak entzun dezala euskarazko abesti bat, eta ez euskara bultzatzen duen abesti bat.

Helbururik baldin bazeneukan, helburu hori lortu duzula esango zenuke?

Nire helburua izan da nire ingurukoengana iristea. Nik hasiera batean sortzen nuenean pisukideekin partekatzen nituen abestiak, eta gustatzen zitzaidan ingurukoek ere ulertu ahal izatea. Ingelesez kantatzen ariko banintz, ez dut uste berdin iritsiko nintzenik ingurukoak euskaldunak izanda. Ez dakit zer geratuko zen biologia Bilbon egin beharrean Sevillan egin izan banu. Nik uste dut abestiren batzuk erdaraz aterako zirela, batez ere abestiak ingurukoekin partekatzea gustatzen zaidalako, eta ez balute euskaraz ulertuko frustragarria izango zen euskaraz sortu eta pisukideek ezer ere ez ulertzea.

Musikaren arloan nola ikusten duzu euskararen egoera?

Bere txikitetasunean nahiko osasuntsu ikusten dut. Euskal Herrian euskarazko taldeak asko mugitzen gara, indarra daukagu. Nik uste hori suertea dela. Mafalda taldekoekin behin hitz egiten, esaten zidaten Valentzian [bertakoak dira] baino kanpoan askoz gehiago aritzen direla. Nik uste Euskal Herriko taldeek hemen daukagula sona, eta hori hizkuntzagatik izan daiteke, euskaraz kantatzen dugun heinean hemen jotzeko aukera gehiago baitauek. Akaso erdaraz kantatuko bagenu, igual hemen ez genuen halako plaza izango.

Euskaraz lehen bezain beste, gehiago ala gutxiago kantatzen da?

Nik antzeko esango nuke. Hainbeste adibide daude... Lehen egon zen mugimendu bat, Negu Gorriak edo Hertzainak bezalako taldeekin, euskaraz nahiko potente aritu zirenak, eta helduen kasuan ere, hor zeuden Mikel Laboa, Xabier Lete eta Ez Dok Amairu guztia. Ez dakit orain osasuntsu dagoen edo ez. Nik uste badagoela generoa Euskal Herrian euskaraz kantatzen duena. Alderaketa aldetik ez dakit gehiago ala gutxiago, garai berrietara egokitzen esango nuke. Euskara testuinguru berrietara zabaltzen ari da, ikusi besterik ez dago bestela Korrikako abestiak zein kritika izan duen. Ez gaude ohituta entzutea euskara estilo horietan. Ez dakit euskaragatik ala estiloagatik den, akaso biengatik, baina arrazoiren bat izango du hainbeste kritika izateko abesti horrek.

Zein indargune ditu euskarazko musikak?

Trikitia esango nuke, euskaraz kantatzen den eremua delako, eta ia musika eskola denetan erakusten den instrumentua delako. Trikitia duen taldeen abesti ia denak

euskaraz dira. Orduan, musika eskola denetan erakusten bada trikitia, erakusten diren abestiak euskaraz izango dira. Lotura hori badauka.

Eta zertan egiten du huts, zure ustez?

Maialenek [Lujanbio] Korrikako mezuan esan zuenez, oso polita da esaldietan jartzea euskara sustatu behar dela, baina hori erakundeetara pasatu behar da. Eragiletzara pasatu behar da, martxan jarri benetako arauak bermatuko dutenak euskararen erabilera. Nik uste musikan berdina gertatzen dela. Badaude batzuk euskaraz kantatzen dutenak, eta beste askok ez dute euskaraz kantatzen, eta orduan hortik hasten bagara erakundeetatik euskara bultzatzen, akaso musikara ere iritsiko da normaltasun hori. Orduan, naturaltasunarekin eta normaltasunarekin lotuta dago nik uste euskararen erabilera.

Aurretik euskaraz kantatzea erabaki duten zein talde ezagutzen duzu?

Xabi Solano, Gose asko miresten dut, baita Kristina Solano Xabiren arreba ere. Musika asko kontsumitu dut, eta euskaraz kantatzen duten musikari gehienak ezagutzen ditut. Mikel Markez, Mikel Urdangarin, Anari bera...

Aurreko belaunaldietako musikariek euskaraz kantatu izanak zein eragin izan du zugar zein hizkuntzan kantatu erabakitzerako garaian?

Eurek euskaraz kantatzeagatik nik euskaraz abestu dut, azken batean hori kate bat da, eta kate baten zati bat gara. Eurengan fijatu naiz zuzenean ala zeharka, musika euskaraz entzun baitut, eta horregatik ere sortzen dut euskaraz. Egongo baziren taldeak euskaraz egiten zutenak baina ez zaizkidanak gustatuko, akaso ez nuen euskaraz kantatuko. Euskaraz kantatzen duen abaniko bat egoteak ematen dizu aukera zure estiloa entzuteko. Niri, adibidez, metala ez zait gustatzen, baina hori gustatzen zaienek badaukate euskarazko aukera. Eta hori da giltza euskal musika kontsumitzeko, ez badago aukerarik, beste hizkuntza batera joko baituzu.

Zuregan funtzio hori bete izan dute talde horiek?

Bai, Alaitz eta Maider, Tapia eta Leturia... Trikitia gutxi jo izan bazen nik ere ez nuen joko gaur egun. Orduan erreferentzialtasun kontu bat ere bada.

Euskaraz kantatzen duzunean nola sentitzen zara? Zein da hizkuntza horretan kantatzean daukazu sentimendua?

Hain normaltzat hartzen dut... Askotan bai sentitzen naizela letrak sortzerakoan hitzen faltan, eta sentitzen dut lanketa bat daukadala egiteko. Batzuetan faltsua sentitzen naiz egunerokotasunean erabiltzen ez ditudan hitzak erabiltzen baldin baditut. Kantuetan erabiltzen ditudan hitzak normalean egunerokotasunean erabiltzen ditudan hitzak dira. Orduan, nahi dudanean buelta bat eman esan nahi dudanari, saiatzen naiz beste hitz bat bilatzen, baina gero hori kantatzen dudanean ez naiz ni sentitzen.

Euskal abeslari gisa identifikatzen al duzu zure burua?

Euskaldun bezala bai, baina abeslari bezala ez dakit... Haurrek-eta esaten didate, abeslaria naizela, baina nire burua musikaritzat daukat akaso. Orduan, noiz konturatu nintzen euskaldun musikaria nintzela? Euskalduna txikitatik naiz, eta musikaria trikitia jotzen hasi nintzenetik. Biak lotuta joan dira.

Zer da zure ustez euskal abeslari izatea?

Euskal abeslaria ere bada euskaraz kantatu ez arren euskalduna dena... Nire ustez bai. Euskalduna deitzen diot egunerokotasunean euskara bere bizitzan presente daukan pertsonari. Abesterakoan bere hautua ingelesez kantatzea izan baldin bada, musika esparruan ez du euskara erabiliko, baina beste eremuetan erabiltzen badu, euskalduna kontsideratzen dut. Bai behintzat berak bere burua hala identifikatzen badu. Beste gauza bat da berak ingelesez kantatzea eta bere egunerokotasuna

gazteleraz egitea. Ba hori ez dut euskalduna kontsideratzen. Belako euskaldunak kontsideratzen ditut, esaterako, hori euren hautua baita, eta errespetagarria ere badelako.

Hizkuntzari lotzen diot euskalduna izatea, baina ez abesteko momentuan bakarrik. Euskal musikariak al da En Tol Sarmientoko gitarra jotzailea, euskara jakin ez baina taldeak euskaraz kantatzen duena?

Euskaraz kantatzea izaera bati lotzen diozu?

Bai, esango nuke baietz. Sentimendu bati gehiago. Azkenean abeslari euskalduna bada identitatea duena.

4. ZALETUAK GOGOAN

Zure zaletuak nola baloratzen dute, zure ustez, euskaraz abesteko egindako hautua?

Pertsona askok idazten digu sare sozialetatik esanez hasi direla euskara ikasten gure abestiengatik, orduan publiko batek asko eskertzen du guk euskaraz kantatzea. Askotan, kanpora goazenean, letra bidez komunikatu beharrean musikarekin komunikatzen gara, ez du zertan beti hitzak egon behar presente. Baina askok esaten digute musikarekin komunikatuta, letra jakinda are gehiago izango zela.

Zein dira zure zaletuak? Zein eremu geografikokoak?

Euskal Herrian dago batez ere puntu beroa. Spotify-en jartzen digute non entzuten den gehien, eta lehenengo Bilbo agertzen da, eta ondoren datoz Donostia eta Madril. Euskaldun asko egongo dira han, pentsatu nahi dut. Valentzian eta Katalunian ere asko jo izan dugu, eta hango zaleengana iristeko aukera izan dugu. Galizian eta Frantzia hegoaldean ere jo izan dugu, eta azkenik Argentinako puntu bero hori ere badaukagu.

Jarraitzaile horientzako kantatzen duzu?

Jarraitzaileentzako kantatzen dut, baina lehenengo nire buruarentzako. Ez badugu guretzako kantatzen asko aspertuko ginateteke.

Hala baldin bada, zenbateraino da hizkuntza bermea? Eta zenbateraino traba?

Euskal publikoaren aurrean kantatu behar baduzu berme bat da, eta errazago iristen zara eurengana. Baina euskaraz kantatu eta Japonera bazoaz... Erdaraz kantatuz gero akaso estatuan arrakasta gehiago izango genuke, baina orduan hemen ez ginen hain ezagunak izango, eta akaso ez ginen Valentziara iritsiko. Orduan zerk du pisua? Hemengo oihartzunik gabe ez ginateteke iritsiko iritsi garen lekuetara. Horregatik uste dut berme hori eman digula hizkuntzak.

Euskaraz kantatzea erabakitzen duzunean entzulea gogoan daukazu?

Lehen diskoko kantuak sortzen ari nintzenean entzulea ez zegoen presente. Kantuak pisuko egongelan sortzen nituen, eta entzuleak pisukideak ziren, ez zihoan hortik harago. Bigarren diskoa sortzeko garaian presio handiagoa dago, entzuleek zer nahi duen galdetzen diozu zure buruari. Lehen sortu dudanarekin iritsi bagara entzulearengana, orain zer? Zer berri sortu behar dut berdin iristeko? Zer pentsatu asko ematen du, eta okerrago ere bada.

Euskaraz kantatzea arrakasta helburu bati al lotzen diozu?

Ez. Hain naturala izan da sortzeko prozesua, arrakastarako helburua euskarari ematea ez dela gure kasua. *Aldapan gora* abestiak eman digu arrakasta, eta hor melodiak eman dio bultzada, tonu iguera horrek. Melodiari emango nioke nik arrakasta.

Zer da zure ustez arrakasta izatea?

Ez dakit, nik arrakasta lotzen diot ezagutzari, ahalik eta jende gehienak ezagutzea. Gaur egun jende gehiagok ezagutzen gaitu, eta geografikoki zabaltzeari deitzen diot, eta jendeak jarraitzea.

Euskaraz kantatuta arrakasta hori mugatu izan dela sentitzen duzu?

Bai, nik uste baietz. Berri Txarrak, esaterako, gehiago zabaldu ahalko zen beste hizkuntza batean kantatuta. Baina berdina izango zen ingelesez kantatuta hemen izango zuten arrakasta, eta hemengo bultzada berdina izango al zen kanpora joateko?

Gure kasuan, bereizgarritasuna horrek ematen digu. Kanpora joaten garenean badakite euskaldunak garela, eta hori ere jendeak miresten du, euskaraz kantatzea. Nik Huntza ez dut imajinatzen ingelesez, ez zuen izango identifikazio hori. Azken batean, Eskoziara joan eta euskaraz kantatzearen bereizgarri hori badaukagu.

Euskaldunen artean begirunea lortu duzu euskaraz kantatu izanagatik?

Nik uste begirunea sortu dela ezerezetik atera garelako. Gure kasua ez da pixkanaka joan zen zerbait, Otik 10era egin dugu salto, eta horrek bere alde onak eta txarrak dauzka. Jendeak bai eskertu zuen abesti horiek egotea, eta trikiti eskola askotako gazte askok eskertu zuten *Aldapa gora* bat egotea trikitiarekin jo ahal izateko. Ni musika eskolan nengoenean beti jotzen genituen abesti tradizionalak, eta eskerrak Solano bat bazegoela. Bai sentitzen nuen behar hori, eta jendeak eskertu du. Abesti horiek beste hizkuntza batean ez zuten funtzionatuko, orduan biak batera doazela esango nuke: hizkuntza eta melodia.

Musikari denoi gustatzen zaigu jendearengana iristea, eta zure ingurunea euskalduna bada eta bilatzen baduzu jendearengana iristea, kasu honetan euskaraz abesten duzu. Nik garbi nuen inguruko publikora iritsi nahi nuela. Tira, ez da hainbeste hautu bat izan, ez baitaukat beste ingurunerik.

Estilo batzuek ere hizkuntza bat eskatzen duela diote batzuek. Ni orain hasi naiz pentsatzen, edo lehen aldiz pentsatu dut ingelesez abesti bat sortzeko. Eta esan dut, zergatik? Artifizial geratuko zen Huntzaren abesti bat ingelesez. Bai izan daiteke probatzea, ez delako erlazionatzen trikitia ingelesarekin.

Beharko litzateke trikitia beste hizkuntza batekin lotzea?

Nik uste oso aberatsa izango zela trikitia instrumentuarentzako, euskal tradizioetik ateratzeko. Euskara eta trikitia bai daude oso lotuta, eta trikitia txapelketetara joan besterik ez dago, oraindik baserritarrez jantzita joan behar baituzu. Ondo egongo zen. Kasu honetan trikitia nazioartera eramatea izango zen, baina ez dakit horrek zenbateraino lagunduko zion euskarari.

IÑIGO ETXEZARRETA (EN TOL SARMIENTO)

1. SARRERA: MUSIKARA HURBILPENEA

Zein izan da musikarekin entzule gisa izan duzun lehen harremana? Noiz hasi zinen musika entzuten?

Txikitan denetarik entzuten nuen, irratikoak eta horrela, baina inongo hauturik egin gabe. Gogoratzen dut 13-14 urterekin lagun artean hasi ginela rock zinta edo diskoak entzuten, eta pixkanaka hemengo taldeak entzuten hasi ginen. Gogoratzen dut behin herrian [Ekoran] Kaotikok jo zuela, eta ez genekien oso ondo zer zen, baina ordurako hasita geunden Kaos Etilikoren gauzak entzuten. Ingurura etortzen ziren taldeak entzuten hasi ginen, eta behin Guardian Reincidentesek jo zuela-eta estatuko musika ere entzuten hasi ginen.

Zein musikari izan dira zure erreferentziak?

Lehen erreferentziak izan ziren Kaotiko, La Polla, Eskorbuto, Piperrak, eta baita Betagarri ere. Berri Txarrak ere asko entzuten genuen.

Zer estiloko musika entzun izan duzu?

Rockaren estilokoak, eta baita ska musika ere.

Zein hizkuntzatan aritzen ziren musikari horiek?

Euskaraz eta gazteleraz, biak batez ere. Akaso gehiago gaztelera euskara baino.

Zein garrantzia izan dute musikari horiek zure ondorengo ibilbide musikalean?

Handia. Gure kasuan 2004an egin genuen gure lehen entsegua, 16 bat urte genituela. Euskal musika entzuten hasi, eta bi urtera elkartu ginen entzuten genituen abesti horiek jotzeko. Hori izan zen lehen helburua. Ni hilabete lehenago hasi nintzen gitarra jotzen, eta bateria jotzailea ere antzeko. Entsegua egin genuen, ez genuen ezer lortu, baina hurrengo urte baterako utzi genuen. 2005ean hasi ginen lehen bertasioak egiten, lehenago esandako talde horienak, baina tronpeta jotzaile bat etorri zenez taldera, aldatzen hasi ginen. Baina batez ere horregatik, tronpeta jotzailea etorri zelako, eta gurekin zegoenez jo zezan saiatu ginen, estiloa apur bat aldatuz. Inondik inora ska musikaren jakitun ginelako. Eta hortik aurrera hortik aurrera estiloa mantendu dugu.

Noiztik zabilta musika egiten?

Taldea, 2004 ingurutik. Bi urte lehenago etorri zen Extremadurako taldekide bat Logroñora, Ekoran jarri zen bizitzen, eta elkar ezagutu genuen. Herriko jaietara batera joaten hasi ginen. Berarekin, eta kuadrillako Rubenekin hasi ginen elkartu eta zerbait egiteko asmoz, baina ez genuen ezer lortu. 2005ean hasi ginen asteburuetan elkartzen, eta horrela hiru abestiko kontzertu bat eman genuen urte horretan.

Zein izan da taldearen edo bakarka egindako ibilbidea?

Ordutik aurrera, 2006an etorri zen tronpeta jotzailea, eta pare bat urte egon zen gurekin. Miranda de Ebrokoa [Burgos] zen bera. Lau bat urte egon ginen laurok, eta 2008an lehen maketa grabatu genuen. Grabazio horretan abesti bakarra zegoen euskaraz, eta gainerako guztia gazteleraz zen. Abesti bat zegoen euskaraz, talderen bat entzuten genuelako euskaraz, eta nik euskaraz hitz egiten nuen. Taldean Extremadurako bat, Miranda de Ebroko bat eta Logroñon bizi zen Ruben. Beraz, naturalki hasi ginen gazteleraz kantatzen.

Zein izan da musika egiterakoan zure helburua?

Helburua ondo pasatzea zen, eta hainbeste entzuten genuen musika jotzeko gai ginela sentitzea, horrek ematen zizun *subidoia*. Zerbait egiteko gai zinela sentitzen zenuen.

Eta oraindik ikasten ari gara. Udalak, gainera, lehen soinu ekipoa utzi zigun. Lehendakaria behin lekorara etorri zenean erosi zuten, eta nahi bagenuen erabiltzeko eman ziguten. Laguntza bat izan zen hori, hasten zarenean zaila izaten baita gauzak lortzea, dirurik ez baitaukazu. Herri txiki batean bageneukan lokala lortzeko erraztasuna, eta soinu ekipoa lortu genuen, beraz, hortik aurrera *topera* sartu nintzen gitarrarekin.

2008tik aurrera, lau urte joan ziren gero lanik atera gabe, bi urtez Nantesen egon bainintzen bizitzen. Taldea ez zen desegin, udan etortzen nintzenean eta entsegatzen genuen. Nik esan nien kanpora nindoanez nahi zutena egiteko, baina itxaron ninduten. Itzuli nintzenean 2010-2011 inguruan, hortik aurrera *topera* jarri ginen taldearekin. Hainbeste urte daramazunean diskorik atera gabe, bada, saiakera egin behar genuen.

Hori izan zen zuen lehen diskoa?

Bai, lehen lan horri maketa deitzen diogu. Baina lehen disko ofiziala, bere hamahiru abestirekin, 2012koa izan zen: *Hacia la luna*.

Zeri kantatu izan diozue?

Bai maketan eta bai lehen diskoan, entzuten genuen musika aldarrikatzailea zen, eta nahiko *mala letxea* zeukan. Lehen diskoetan entzuten genuen hori islatu zen, eta beraz, nahiko gogorrak ziren. Ez geunden haserretuta, baina gaztea zarenez, zerbait esan behar duzula uste duzu. Orain ere pentsatzen dugu kritikoa izan behar dugula gizartean, baina lehen diskoan abestiak nahiko aldarrikatzaileak ziren. Politika, gerra edo kutsadura kritikatu...

Ostera apur bat lasaitu zarete?

Akaso heltzen ari garela esan daiteke, eta *mala letxe* hori albo batera utzi genuen. Musika oso alai zen, eta letrak berriz gogorrak ziren. Denborarekin bietatik egin dugu. Bigarren diskoan abesti alairen bat egin genuen, eta hirugarren diskoan guztiz aldatu zen. Kritika puntu bat bazegoen, baina *Beldurrik ez* diskoa sentimenduei buruzkoa izan zen, barruragokoa zen.

Zein hizkuntzatan kantatu izan duzu?

Gazteleraz hasi ginen. Taldean lau ginen, baina Miranda Ebroko taldekideak utzi zuenean sartu zen beste bat Bilbon jaio, baina beti Logroñon bizi izandakoa. Hura ere ez zen euskalduna. Gero etorri zen Najerako [Errioxa] beste bat. Taldean bost gaude, beraz: Extremadurakoa, lekora-Logroño artekoa, Bilbon jaio baina Logroñokoa, Najerakoa eta ni, gasteiztarra. Lehen disko horretan taldekideek ez zuten ezagutzen Euskal Herria, eta Ebro ibaitik behera telebistan hainbeste errepikatzen diren aurreiritziak indarra zutela ikusi nuen. Nik esaten nien lehen diskoan pare abesti bat edo hiru sartu behar genituela euskaraz, baina kostatu zitzaidan. Extremadurakoak esaten zidan ea zergatik kantatu behar genuen euskaraz; berak Logroñon egiten zuen lan, eta Ekoran bizita ez zuen euskara inoiz entzuten. Beraz, ez zuen ulertzen zergatik kantatu behar genuen euskaraz.

Nire kasuan, hemezortzi urterekin Arrasatera joan nintzen ikastera, eta hor hasi nintzen euskaraz gehiago hitz egiten. Gasteizen B ereduan ikasi nuen, euskaraz eta gazteleraz erdi eta erdi, eta gero Arrasaten Gipuzkoako jendearekin elkartuz-eta euskararekiko harremana estutzen hasi nintzen. Lehen disko horretan hiru abesti sartu ziren euskaraz, eta taldekideek ez zuten ulertzen oso ondo zergatik. Horietako bat izan zen *Musikaren doinua*, eta abesti hori irratan sartu zen, eta Arabar Errioxatik kanpo jotzen hasi ginen: Gasteiz inguruan, eta Araba iparraldean.

Euskaldun bakarra ni naiz, eta euskarazko abestietan koroak-eta egiteko buruz ikasi behar izan dute. Taldea hasi zenean Bizkaitik jotzen, eta apurka Euskal Herria

ezagutzen hasi ziren. Kontatzen nien zergatik zeuden argazki batzuk, edo pankarten esanahia, baina azkenean Euskal Herriko herriek taldea oso ondo tratatu zuten, eta nire ustez ere taldekideek apurka aurreiritzi horiek kendu dituzte. Abesti bategatik hasi gara jotzen Euskal Herrian, eta hortik aurrera euskaldunon mugimendu horretan sartu ginenez, Euskal Herriarekiko edo hizkuntzarekiko eskuzabala izateko-edo, erabaki genuen bide horretatik jarraitzea. Azken batean, taldeak bertan funtzionatzen zuela ikusi genuen.

2. EUSKARAREKIKO HARREMANA

Zein harreman duzu euskararekin?

Ni egon nintzen hemezortzi urtera arte Gasteizen bizitzen eta euskaraz eta erdaraz ikasten B ereduan —batxilergoan D ereduan sartu nintzen—. Ingeniaritza ikasi nuen Arrasaten, eta hor ere erabaki behar izan nuen erdaraz ala euskaraz ikasi. Euskaraz ikastea erabaki nuen, bagenekielako bestela hizkuntza galduko nuela. Beldurra izan nuen nahiko karrera zaila delako, eta gainera euskaraz egiteak zeukan zailtasunarekin... Di-da batean ohitu nintzen. Garai horretan Euskal Herriko jendea ezagutu nuen, nafarrak, gipuzkoarrak, bizkaitarrak, eta hor euskaraz komunikatzeko beharra eduki nuen. Eta hortik aurrera, karrera amaitzerakoan EGA atera nuen.

Zure ingurunea euskalduna da?

Berez ez. Nire familia guztia erdalduna da, nire lagunek B ereduan ikasi dute, eta beste batzuek A ereduan, baina gure artean erdaraz hitz egiten dugu. Lehen ingurune guztia erdalduna zen, baina orain ja ez. Gainera, Arrasaten amaitu eta Gasteizera itzuli nintzenean, banekien ez nuela euskaraz hitz egingo. Pentsatzen nuen erdaraz hitz egingo nuela, batez ere Gasteizen, mugitzen ginen lekuetan dena erdaraz baitzen. Denborarekin aldatu da kontua, ez dakit ikasleengatik, Gasteizen unibertsitate asko baitago, edo zergatik. Baina nire kasuan, inguruko lagun batzuk apuntatu ziren euskaltegira, eta gogotsu hasi ziren euskaldunon mundu horretan mugitzen. Gure artean batzuetan euskaraz hitz egiten dugu. Baina orokorrean giroa erdalduna da. Orain nire bikotekidearekin euskaraz hitz egiten dut, euskaltegian ezagutu nuen, eta euskaraz hitz egiten dut beraiekin. Hori izan da nire garapena. Hamabost urterekin inolaz ere ez nuen pentsatuko Gasteizen euskara erabiliko nuenik. Eta orain erdia euskaraz hitz egiten dut. Erdi eta erdi erabiltzen dut euskara. Azken batean taldearekin lotuta datozen gauza gehienak euskaraz direlako: diskoetxearekin hitz egiteko, teknikariarekin aritzeko... Azkenean, taldea Euskal Herrian sartu denez, taldearekin teknikariak eramaten ditugu eta mugitzen garen inguruneko jendea orokorrean euskalduna da. Orduan taldearen aldetik orain gehiena euskaraz etortzen zait.

Zein testuingurutan erabiltzen duzu?

Nire Gasteizko kuadrillakoekin erdaraz, eta familiarekin beti erdaraz hitz egiten dut. Hasi nintzen nire bikotekidearekin euskara erabiltzen, eta gero baita ere ingeniaritzako lanean sartu nintzenean batzuekin hasi nintzen euskaraz hitz egiten. Hori ere garrantzitsua izan zen, 23 urterekin Gasteizera itzuli nintzenean euskara erabiltzen hasi nintzen lehen esparrua lanean izan zelako. Taldea, bestalde, *hobby* batetik ia lan izatera igaro da, eta gehiena euskaraz etortzen zait. Taldearen irudia lantzea gustatzen zait, azkenean euskaraz kantatzen badugu, gurekin euskaraz komunikatu nahi badira aukera hori eman nahi izaten dut.

Zure gainerako taldekideak euskaldunak dira?

Ez. Ruben baxu jotzailea egon zen urte eta erdi euskaltegian. Taldea Euskal Herriatik jotzen hasi zenean, taldekideetatik hiru euskaltegietara animatu ziren. Azken batean *flipatzen* zuten, eta taldeak momentu batean gorakada bat izan zuen, eta iristen zitzaigun informazio gehiena ez zuten ulertzen. Oso ilusionatuta zeuden taldearekin eta euskaltegian eman zuten izena. Azkenean lanarekin, taldearekin eta familia,

bikotea eta dena delakoarekin, denborarik ez zuten eta utzi egin dute. Pena eman dit, baina ulertzen dut ere ezin zutela denborarik atera euren bizitzarako, baina sare sozialetan nahiko ulertzen dute. Hala ere, ikasi dute azkenean zerbait, eta ez daude deseroso.

Zein hizkuntza ohitura daukatzue?

Gure artekoa gazteleraz da. Bost musikari gara taldean, eta ekipoan badira beste lau pertsona soinu teknikari gisa, eta diskoetxeko managerra. Horiekin euskaraz egiten saiatzen naiz.

Zer pentsatzen duzu euskararen egungo egoeraren inguruan?

Nahiko baikorra naiz. Duela hamar urte Gasteizen nengoenean ez nuen pentsatuko euskaraz hitz egin ahal izango nuenik, eta orain aukera badago. Orduan, nik Gasteizen ikusi dudana bilakaera ikusita, nahiko baikorra naiz, eta ez dut uste hain txarto dagoenik. Nik uste dut garapen bat dela, eta nahiko pixkanaka joan behar dela, baina ikusten ditut haurrekin dabilzan gurasoak, eta nahikotxo entzuten da. Tira, alderatzen badugu lehengo egoerarekin, nik lehen ez nuen hitz bat bera ere entzuten. Normala da, eta nik uste Gasteizko jendeak nahiko onartuta daukala euskara gero eta indartsuago sartzen ari dela. Gauza asko falta direla egiteko? Bai noski, Gasteiz da, eta ez Donostia, baina uste dut pausoak ematen ari direla, eta ez dut gaizki ikusten.

Nola ikusten duzu egoera zure inguruko testuinguruan?

Ni Gasteizen bizi naiz, eta horri buruz ari naiz. Baina egia da herriko [lekorako] kuadrillakoak ditudala Gasteizen bizi direnak, giro antzekoak gara, eta gure artean hasi gara euskara hitz egiten. Lehen herrian ere ez zen ezer egiten euskararekiko, baina orain batzuk elkartu gara, eta batzuetan euskarazko gauzak sortzen dira. Adibidez, Korrika pasa deneko eguna prestatzen aritu ginen.

Printza positiboak ikusten dizkiot, eta ez dut ikusten behera doanik. Egia da falta dela beste zerbait. Eta askotan nik ere gaztelerara jotzen dut, etxean nire bikotekidearekin batzuetan zerbait barrutik ateratzen bazait erdarara jotzen dut. Baina gauza da *klika* hori egitea, eta hori da zailena.

3. MUSIKA ETA EUSKARA HAUTUA

Nola erabaki zenuen zein hizkuntzatan kantatu?

Hasi ginen erdaraz kantatzen naturalagoa iruditzen zitzaigulako, eta gure arteko harreman guztiak erdaraz zirelako. Eta akaso baita entzuten genuen musika ere —eta bertsioak egiten hasi ginen taldeak—, asko erdaraz zirelako. Hori alde batetik. Bestetik, taldea apurka Euskal Herriko giroan sartu da, eta pixkanaka euskarara gerturatzen joan gara. Hasieran aurreiritzi asko zeuden, baina taldea Euskal Herrian jotzen hasi zenean, garapen hori diskoetan ikusi daiteke. Lehenengo maketan eta diskoan abestien %15 ziren euskaraz, bigarren diskoan %70 inguru euskaraz, eta hirugarren diskoan %100. Eta orain taldeak ez du pentsatu ere egiten erdarazko kantuak ateratzea. Egia da noizbait zerbaitegatik sortzen bada, egingo dugula, baina dagoeneko taldean ez dago eztabaida hori. Euskaraz egiten dira abestiak, eta apur bat naturalki etorri da hautu hori. Taldea sartu denez euskaltzale mugimendu horretan, euskarak ere taldera gauza asko ekarri ditu, eta orduan taldeak ere bueltan euskarazko abestiak egiten ditu.

Noiztik kantatzen duzu euskaraz?

la hasieratik, baina egia da euskararen presentzia igotzen joan dela. Lehenengo disko horietan euskaraz hain gutxi kantatzen bagenuen ere, abesti horiengatik kantatzen dugula gaur egun euskaraz. Hau da, abesti horietako bat *Musikaren doinua* izan zen, eta abesti horrek atea ireki zizkigun jendearen belarrietara iristeko. Eta hortik aurrera

jendea hasi da entzuten gure musika eta nahiko ona harrera eduki du. Abesti hori ez balego, ez dakit gaur egun hemen egongo ginenik.

Euskaraz kantatzea erabakitzerakoan, hautu horren kontzientzia bazenuen?

Nik uste orokorrean taldeak ezetz. Nire kasuan bai gustatzen zitzaidan, eta nahiz eta Gasteizen mugimendu askorik ez egon eta askok nortasun asko ez eduki euskararekiko, nik apur bat banuen, euskaraz ikasi bainuen. Orduan euskaraz kantatzearen nahiko kontziente nintzen arren, taldea ez.

Zure kasuan, zein kontzientzia zeneukan euskararekiko?

Orain badaukat, baina lehen... Gaur egun daukadan kontzientzia bada euskara Euskal Herrian daukagun altxor bat dela, eta herri bat batzen gaituena hizkuntza bat dela uste dut. Badaude mila gauza batzen gaituena, baina puntan hizkuntza dago, eta hizkuntza batengatik zara bereizgarri, eta hori da altxor nagusia. Gaur egun, halako altxorak nire ustez zaindu behar dira, eta horien alde egin behar da. Gure kasuan, ez dakit jendeak badakielako ez garela euskaldunak eta euskaraz kantatzen dugula, esaten digute ez dakigula zer nolako lana egiten diogun euskal komunitateari. Ez bakarrik Arabar Errioxako jendeari, baizik eta orokorrean. Ikusten ditut gazteak euren artean gazteleraz egiten, baina ni banago euskaraz egiten didate, eta euskaraz abestuta euskararen alde egiten dugu. Ikastetxeetatik kanpo ikasleek euskara emozio positiboak ematen dizkion gauza batzuekin lotzea oso positiboa da. Orain ongi sentitzen gara taldean hartu genuen erabakia eta gero.

Erabaki hori hartzerakoan zein pisu eduki du euskararen egungo egoerak?

Guretzako hizkuntzaren egoera zen geografia. Guk ez genuen ezagutzen zer zen euskara modu natural batean, nik ezagutzen nuen ikastetxean eta unibertsitatean. Baina ja herri batera joan eta ikustea euskarazko elkarrizketa naturalak, ama hizkuntza euskara dutenen artean... Taldeak beste modu batean pentsatu zuen hor. Ez zen bakarrik Euskal Herria kantatu nahi bagenuen euskaraz kantatu beharragatik, baizik eta hizkuntza oso polita dela, eta oso ondo tratatzen gaituela. Baina baita geografikoki ere ikusi dugulako.

Euskararen egoerak eraginik izan baldin badu hizkuntza hautu horretan, zer izan da euskaraz kantatzearekin lortu nahi zenuena?

Nire ustez Euskal Herria ezagutu zuelako aurreiritziak kendu zituen taldeak, eta hori horrela izanda, taldea ja lehen diskoarekin Euskal Herriko mugimendu batean funtzionatzen zuela ikusita, hizkuntzarekiko eztabaida ere kendu egin zen. Azkenean jendeak lotzen bagaitu mugimendu euskaldun batekin, ez dugu eztabaidatzen. Hasieran izan zen zailena, zergatik bai, eta zergatik ez. Baina behin abesti horiek sartuta, eta gainera horietako batek funtzionatuta, etorri dira beste guztiak.

Azkenean aukera bat izan zen. En Tol Sarmientoko musikariak Logroñoakoak dira, eta Logroñon ere badago mugimendu bat rock musikan, baina Euskal Herrikoa baino askoz txikiagoa. Egiten genuen musikagatik, eta entzuten genituen taldeengatik bagenekien hemen merkatu gehiago zegoela. Euskal Herrian zegoen mugimendua lagungarria izan zen zentzu horretan, eta euskaraz abestea aukera bat izan zen.

Gogoan dut baxu jotzailearen komentario bat: lortzen badugu taldea zonaldearekin lotzea, gure kasuan Arabar Errioxarekin, horrek ere bereizgarritasun bat emango digula. Hemen zonaldean ere ez daude talde asko, eta marka hori ere lortzea. Gainera euskaraz abesten baduzu, hor lotzen dira bi osagai nahiko potenteak batera.

Musikaren arloan nola ikusten duzu euskararen egoera?

Ez dut gaizki ikusten, ongi ikusten dut. Akaso izango da taldearengatik gaur egun kutsatuta nagoela. Heltzen zaidan musika bada mundu horretan sartuta nagoelako.

Orain nik ez dut talderen bat jarraitzen zehazki, orokorrean heltzen zait musika, eta barruan nagoenez heltzen zaidan musika gehiena euskaraz da. Orduan, nire erantzuna da ez dudala gaizki ikusten. Azkenean, beste arloekin konparatuz gero, musikan askoz hobeto dago.

Euskaraz lehen bezain beste, gehiago ala gutxiago kantatzen da?

Nik uste gehiago. Hemen 1980ko hamarkadan punk taldeek gaztelaraz kantatzen zuten gehienbat, eta pixkanaka kontua aldatzen joan da. Musika ere gizartea bezala baretzen joan da, baina punk musika entzuten genuenok gehienbat erdaraz entzuten genuen, eta orain badaude punk-oi! taldeak euskaraz kantatzen dutenak. Estilo berriak etorri dira euskarara, eta lehengo estilo gogorragoek ere jarraitzen dute.

Zein indargune ditu euskarazko musikak?

Ikusten dut herriko jaietako gunea indargune bat dela. Jai giro hori musikarentzako oso onuragarria da, bertatik datorren musika alai euskaraz kantatzen delako. Ikusten ari naiz, baita ere, telebistan presentzia gehiago duela euskal musikak. *Bagoaz!* edo antzeko programa batzuk badaude, eta edukietan oso ados egon ez arren, egia da hor dauden abesti denak euskaraz direla, eta telebistan indar handiagoa duela euskarazko musikak.

Eta zertan egiten du huts, zure ustez?

Adibidez, Korrikako abestia. Estilo berri bat jorratu da, eta nik uste du Euskal Herrian euskarazko musika entzuten duen jende asko ohituta dagoela beti estilo berdinak entzuten. Ematen du estilo berri bat egiten baduzu, reggaeton girokoa edo trapa... Oraindik aurreiritzi asko daude estiloekiko. Eta kanpoko giroko erritmoak sartzen badituzu abestietan, kritika asko jasotzen dituzu. Badirudi hamar urte gehiago behar ditugula beste leku batzuetan dauden estilo berriak jorratzeko.

Aurretik euskaraz kantatzea erabaki duten zein talde ezagutzen duzu?

Adibide nabarmenena Betagarri izan daiteke, badakit Gasteizkoak izanda hautu bat egon zela, eta Betagarri izan daiteke guregan eragin handia izan duen taldea.

Zein izan da zentzu horretan zure erreferentea? (Baten bat eduki baldin baduzu). Zergatik?

Nik uste Betagarri izan dela, bai. Hizkuntza aldetik eta gero estiloan.

Aurreko belaunaldietako musikariek euskaraz kantatu izanak zein eragin izan du zuzan zein hizkuntzan kantatu erabakitzerako garaian?

Handia. Nik uste entzuten duzun musikak orokorrean eragin handia daukala ondoren egiten duzunarekin. Guk punk-rocka entzuten genuenean gaztelaraz entzuten genuen, eta horregatik hasi ginen erdarazko musika egiten. Orduan, gure musika bertsionatzen dutenean ikusten dut eragin handia duela erreferentetzat daukazu talde horrek hartu duen hautuak.

Euskaraz kantatzen duzunean nola sentitzen zara? Zein da hizkuntza horretan kantatzean daukazu sentimendua?

Ongi. Euskaraz eta gaztelaraz kantatzen hasi nintzenean, hasieratik esan zidaten hobeto egiten nuela euskaraz. Lagunek-eta esaten zidaten hori, naturalago egiten nuela. Orain, adibidez, saiatu izan banaiz erdaraz konposatzen, arrotzago sentitzen naiz, eta hori nire hizkuntza ere gaztelera dela. Erosoago sentitzen naiz gaztelaraz hitz egiten, baina naturalagoa iruditzen zait euskaraz konposatzea.

Euskaraz kantatzeak zer ematen dizu? Eta zer kendu?

Euskal Herrian jotzeko aukera guztiak, eta bertatik kanpo jotzeko aukera gehienak. Nik uste gehiago eman digula kendu baino. Jende berria ezagutzeko aukera eman dit, leku

berriak ezagutzeko, eta guztia eman didalako. Baina aldi berean, Logroñon aspaldi eman genuen azken kontzertua, eta hemendik [Ekoratik] hamar minutura dago. Bi hizkuntzetan jotzen genuenean deitzen gintuzten, baina orain ez... Logroño hamar minutura izanda, eta Senpere bi ordutara, han milaka pertsona joan ziren, eta hemen ezagunak bakarrik etorriko lirateke. Beraz, Euskal Herritik kanpo kantatzeko ate batzuk itxi dizkigu.

Euskal abeslari gisa identifikatzen al duzu zure burua?

Bai, testuinguru batean jartzen baldin banaiz, nik uste baietz.

Zer da zure ustez euskal abeslari izatea?

Ez bakarrik euskarazko musika egitea, eta jendearengan euskaraz kontatzea nire barnean gertatzen diren gauzak, baizik eta hizkuntzarekiko errespetu bat eta euskaltzaleen mugimenduari ekarpen txiki bat egitea. Ez da bakarrik hizkuntza, baizik eta esaten ari zarena. Niretzako euskarak dituen baldintzak kontuan hartuta, informazio gehiago pasatzen dut euskaraz kantatzen.

Euskaraz kantatzeak egiten al du musikaria 'euskal abeslaria'?

Hasiera batean baietz esango nuke, baina akaso ez. Azken batean euskaraz kantatzean beste zerbait ere transmititu behar duzulako, eta euskara sartzen baduzu, eta esaten ari zarenak ez badauka ezer atzean, nire ustez ez da akaso mugimendu horretan sartuko.

Zeri dagokio zure ustez identifikazio marka horrek?

Lehen abeslari esaten zenean lotzen zen Mikel Laboa eta halakoekin. Orduan pentsatu behar dugu zer izango zen abestea euskaraz duela 30-40 urteko testuinguru horretan. Euskaraz kantatzeak zekarren arauak ez betetzeko marka hori, eta orduan euskal musikan hori ere gertatu da. Euskal kantari askorekin nik uste asko egin dutela euskararekiko, baita Euskal Herri edo euskal kulturarekiko. Eta berreskuratu zuten galtzeko zorian zegoena, eta oso lan ona egin zuten. Ez dakit horregatik-edo, euskal abeslaria izatea ildo horretatik doa. Gaur egun euskal abeslari izatea ez da berdina, eta erraztasun asko ditu, baina hizkuntza txikiago bat izanik, oraindik badauka hizkuntzarekiko eta kulturarekiko errespetu bat. Beraz, hori ikusten dut, ekarpen bat egitea ez soilik hizkuntza bati, baizik eta herri bati.

Euskaraz kantatzea izaera bati lotzen diozu?

Bai, beharbada bai. Eta askotan izaera hori ez da jaiotzetik duzuna, nik 20 urtera arte ez dut jaso euskal kulturaren hezkuntzarik ia-ia, ikastetxean euskarazko ikasgaiaren genuenaz gain. Eta izaera izan daiteke jaiotzetik ala ez, eta beste aldetik zuk erabakita. Kasu honetan nik erabaki dut, eta interesgarria ere bada halako gauzak egitea Euskal Herrian.

4. ZALETUAK GOGOAN

Zure zaletuak nola baloratzen dute, zure ustez, euskaraz abesteko egindako hautua?

Nire ustez ez dira kontziente. Gehiago konturatzen da jende heldua, gazteak baino. Gazteei pasatzen diegu informazioa abestien bidez, eta melodiak azkenean dira barrura heltzeko laguntza, baina nire ustez gazteak ez direla oso kontziente guk egin dugun hautu horretaz. Ez dira kontziente, oraindik, gure kasuan gazte asko baitaude. Arrazionalki ez dut uste kontziente direnik.

Zein dira zure zaletuak? Zein eremu geografikokoak?

Nukleo potenteena Bizkaian kokatzen da, Bilbo inguruan. Gaur egun, Bizkaian eta Iparraldean daukagu gehien. Araban eta Gipuzkoan ongi, eta Nafarroan apur bat gutxiago. Gehienbat Bizkaian, Gipuzkoan eta Iparraldean jotzen dugu.

Euskal Herrira mugatzen dira? Muga horietatik kanpo badituzu jarraitzaileak?

Gutxi. Hasi gara mugitzen Frantzia hegoaldean. Izan genituen azaroan bi kontzertu Iparraldetik nahiko gertu. Han Euskal Herria gertukoa dute, nahiz eta urrunago eduki. Hegoaldean ez da gertatzen hori, hainbat lekutan aurreiritziak daude, eta asko kaltetzen dute. Horrez gain, Madrilan ere jo izan dugu, baita Katalunian ere.

Jarraitzaile horientzako kantatzen duzu?

Bai. Beti esaten da musikan norberarentzat egiten direla abestiak, eta ondoren jendeari gustatzen baldin bazaio ongi etorria izan dadila. Nik abestiren bat egin behar badut lehenik eta behin niri gustatu behar zait argi eta garbi, baina egia da abesti horiek milaka pertsoneri helduko zaizkiela, eta zaindu behar dut asko kontatzen ari garena. Nik kontuan hartzen dut atzean dagoen gutzia.

Hala baldin bada, zenbateraino da hizkuntza bermea? Eta zenbateraino traba?

Nik uste taldearen egoera finkatuta egonda, berme bat dela. Hau da, eroso sentitzen baldin bazara, eta jendeak gogoekin itxaroten badu musika hori, hizkuntza horren hautua eginda, nik uste berme bat dela traba baino gehiago.

Euskaraz kantatzea erabakitzen duzunean entzulea gogoan daukazu?

Bai, orokorrean lehen ez hainbeste. Baina azkenean zertarako daukazu taldea? Musika gustatzen zaizulako eta baita jendaurrean kantatzea ere. Nik adibidez kontzertu batean, ez badago jenderik ez dut oso ondo pasatzen. Azken urteetan zortea eduki dugu parean jendea edukitzeagatik, baina jenderik ez badago ez dauka zentzurik jarraitzea.

Euskaraz kantatzea arrakasta helburu bati al lotzen diozu?

Bai, ez da helburu bakarria inondik ere. Nire kasuan helburu hori ez nuke hain garbi ikusiko, eduki dugun garapena eduki izan ez bagenu. Adibidez, musikarien kasuan ikusten dut. Hasiera batean hainbeste traba jarri, eta orain hain gutxi jarrita, erakusten du hizkuntza batek arrakasta bat ekartzen duela atzetik.

Zer da zure ustez arrakasta izatea?

Behin entzun nuen bezala: "Arrakasta talentuaren eta aukeraren arteko nahasketa bat da; eta talentua izan daiteke jaiotzetikoa, edo landua". Oso identifikatuta sentitu nintzen, azken batean gauza bat da ospea edukitzea, eta nire ustez ospetsua izan zaitezke baina arrakastarik ez edukitzea. Eta egiten duzun horrekin disfrutatzen ez baduzu hori ez da arrakasta. Bai ospetsua zara, baina barne arrakastarik ez daukazu. Eta arrakasta azkenean bada daukazun helburuak ondo betetzen badituzu, eta onak baldin badira. Gure kasuan helburua da jendeari helaraztea gure musika eta gure ideiak edo letrak, eta jendea emozioetara iristea.

Euskaraz kantatuta arrakasta hori mugatu izan dela sentitzen duzu?

Oraindik ez, baina taldeak daraman bilakaerarekin jarraitzen badu, helduko da momentu bat Euskal Herrian muga bat daukazula eta ezin duzula izugarri pila jo. Jendea ez aspertzeko kanpora jotzen duzu, baina era berean badakizu hemen irabazten duzuna kanpoan jotzen gastatuko duzula. Askori hori pasatu zaie, eta ez dakit guri pasatuko zaigun, baina momentu horretan ere bagaude: Euskal Herrian leku guztietan ezin dugu jo. Lehen 40 kontzertu ematen genituen urtean, eta orain ezin dugu horrela egin, taldea gero eta gorago baldin badago, baldintzak ere hobekak izan

behar dutelako. Orduan, heldu daiteke momentu bat honaino iritsi garela, eta horra iritsi baldin bazara ez da albiste txarra. Bada hemen dena lortu duzunaren lekuko.

Euskaldunen artean begirunea lortu duzu euskaraz kantatu izanagatik?

Bai, noski. Nik ikusten dut hori gure zonaldean. Arabar Errioxan oso zaila da talde bat sortu eta abesti denak euskaraz izatea. Eta jendeak begiratzen gaituzte, eta esaten digute "Begira zer lortu duzuen". Hori gauza handia da.

Arrakasta lortzerako garaian, zenbateraino izan da hizkuntza berme bat? Eta zenbateraino traba?

Guztia bermea izan da. Gu oso txikiak izan gara, eta ez dugu inolaz pentsatu arrakasta izateko orain gazteleraz kantatuko dugunik. Berme bat izan da, erabat.

5. BESTE HIZKUNTZETAN ABESTEN

Euskara ez beste hizkuntzaren batean kantatu izan al duzu?

Gazteleraz, eta frantsesez ere bai. Lehen diskoan Frantziatik itzuli berri nintzenez, banekiela aprobeixatuz sartu genuen kantu bat frantsesez, eta beste bat ingelesez. Baina gainerako guztia euskaraz eta gazteleraz, eta kontzertuetan dagoeneko ia dena euskaraz egiten dugu.

Hala egin baldin baduzu, zergatik egin duzu hautu hori?

Hitz egiten genuelako, eta banekiela frantsesa ahaztuko zitzaidala, eta aprobeixatu nuen. Garai horretan ere ez geneukan entzuleria zabal bat ere. Hasiera batean egiten genuen gazteleraz, eta gero erabaki genuen euskaraz egitea, eta egon dira urte batzuk, non hasiera batean ez genuela esaten taldea ez zela euskalduna. Eta gero erabaki genuen zergatik ez? Esaten hasi ginen taldearen egoera zein zen, eta hori onuragarria izan zen taldearentzat. Baina orain heldu da momentu bat, non egiten baldin badugu ingelesezko abesti bat ez dela ezer gertatzen. Ez dut uste horrekin inolako kalterik egingo lukeenik, eta hala uste duenak burua ireki beharko luke apur bat.

Nola sentitu zara beste hizkuntzetan kantatzerako garaian?

Hobeto euskaraz. Gaizki ere ez, azkenean nik egindako abestiak baitira, baina gaur egun erdarazko abestiak kantatzen ditudanean ez naiz hain eroso sentitzen. Beharbada izan dugun bilakaeragatik, eta pasa dugun guztiagatik. Taldea askotan egon da sartuta euskararen aldeko sare horretan, eta ezeroso sentitzen naiz erdaraz kantatzeagatik, baina tontakeria bat da. Hor dago sentimendu hori.

Zer eman dizu euskara ez beste hizkuntza batean kantatzeak? Eta zer kendu?

Hasiera batean gazteleraz kantatzen genuenez eman dit Errioxan jotzeko aukera, eta frantsesez edo ingelesez kantatzeak ez digu ezer eman edo kendu.

Sentitzen duzu zure jarraitzaileek hautu hori baloratu izan dutela?

Gazteen artean ez didate transmititu ze ekarpen egin dion hizkuntzaren hautuak. Nahiz eta akaso kontziente ez izan, nik uste gazteek oso ongi hartzen dutela. Eta azkenean euskal musika gustatzen bazaie, jendea kontziente da esaten ari garenaz.

Hala baldin bada, arrakastarako giltza izan daiteke?

Beste hizkuntzak ez du ezer ekarri zentzu horretan. Bermea izan da jotzeko kanpoan, eta traba izan daiteke gaztelerazko kantuak abestea. Euskal Herrian badakit lekuren batean jotzeko atzera bota dutela taldeak ez duelako guztia euskaraz egiten.